

Gratu Amaierako Lana

Soziologia Gradua

# Ipar Euskal Herriko irratigintza – Irulegiko Irratiaren Kasu Azterketa

Historia, egungo egoera eta etorkizuneko erronkak

Egilea:

Garazi Uribarren Goienetxea

Zuzendaria:

Josu Martinez

## AURKIBIDEA

---

|  |           |
|--|-----------|
| <b>1. ATALA: Sarrera, Helburuak eta Metodologia.....</b>   | <b>5</b>  |
| 1.1 Lanaren Aurkezpena: .....  | 5         |
| 1.2 Helburuak.....   | 6         |
| 1.3 Metodologia .....  | 6         |
| 1.3.1 IKERKETAREN DISEINUA .....   | 6         |
| 1.3.2 TEKNIKA METODOLOGIKOAK .....   | 6         |
| <b>2. ATALA: MARKO TEORIKOA. IPAR EUSKAL HERRIKO IRRATI EUSKALDUNEN SORRERA ETA TESTUINGURUA .....</b> | <b>10</b> |
| 2.1 Irrati Askeak: Frantzia eta Euskal Herria .....  | 10        |
| 2.2 Ipar Euskal Herriko Euskalgintza Modernoa .....  | 10        |
| 3.2 Ipar Euskal Herriko irradi euskaldunak: euskal irratia .....                                       | 11        |
| <b>3. ATALA: IRULEGIKO IRRATIA – KASU AZTERKETA.....</b>   | <b>20</b> |
| 3.1 Hizkuntza Hautua: .....  | 21        |
| 3.2 Finantzazioa: .....  | 26        |
| 3.3 Hedapen-eremua: .....  | 30        |
| 3.4 Soslaia .....  | 31        |
| 3.5 Mugarriak: .....   | 34        |
| 3.6 Mezua eta helburuak .....  | 35        |
| <b>5. Ondorioak.....</b>   | <b>38</b> |
| <b>6. Bibliografia .....</b>   | <b>40</b> |
| <b>Eranksinak .....</b>  | <b>43</b> |

***Auzia ez da izan ala ez izan  
Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori.  
Kontua ekitea da.  
Egitea.  
Egiten duguna gara.  
Izatea egitea da.***

## Laburpena

Ipar Euskal Herriko euskarazko irratigintza gutxi aztertu den errealitate bat da, euskalgintzaren eta irratigintzaren alorrean berebiziko garrantzia izan badu ere. Aurrekari eskasia horrengatik, Gradu Amaierako Lan honetan, gaiaren inguruko azterketa gaurkotuago bat publikatu nahi da, fenomenoaren ibilbidea eta ekarpena aztertuz. Ipar Euskal Herriko euskarazko irradi-esperientzia nabarmenenak aipatu ostean, 1982tik diharduen Nafarroa-Behereko Irulegiko Irratiaren inguruko kasu azterketan zentratuko gara. Horretarako, bi teknika kualitatibo erabili dira: iturri ez-zuzenen azterketa eta sakoneko elkarrizketak.

**HITZ GAKOAK:** Euskal Irratiak, euskalgintza, Irulegiko Irratia, Ipar Euskal Herriko irratigintza, euskara hutsezko komunikabideak

## Abstract

Radio broadcasting in Basque in the North Basque Country is a little analysed reality, although it has been very important in the field of Basque production and radio. Due to the scarcity of an updated empirical background, this work intends to publish a more current study on the theme, analysing the trajectory and contribution of the phenomenon. After mentioning the most outstanding experiences of radio in Basque in the North Basque Country, we will focus on the case study of Irulegiko Irratia in Lower-Navarre. Two qualitative techniques have been used: the analysis of indirect sources and in-depth interviews.

**KEY WORDS:** Euskal Irratiak, euskalgintza, radio broadcasting in Northern Basque Country, media entirely in Basque

# 1. ATALA: SARRERA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

## 1.1 Lanaren Aurkezpena:

Euskal kulturaren garapenean historikoki Ipar Euskal Herriak izandako lekua erabat ezezaguna zaigu Hego Euskal Herriko euskaldun askori, eremu honetatik euskarara komunikazio-elementu ugari sartu badira ere: lehen euskarazko liburua (Bernat Etxeparerena, 545ean), euskarazko lehen filma (Gure Sor Lekua, 1956an), telebista (Maite Barnetxeren saioak, ETB sortu baino hamaika urte lehenago) edo eta euskal kantagintza berria eta rock-a, adibidez (Mixel Labeguerie eta Errobi edota Niko Etxarten bidez).

Irratiaren kasua ere ez da ezberdina. Lapurdin, euskara hutsez aritzeko sortu zen *Gure irratia* emisora askea 1981an hasi zen emititzen, Eusko Jaurlaritzaren *Euskadi Irratia* baino urtebete lehenago, eta ondoko urteetan etorriko ziren *Xiberoko Botza* eta *Irulegiko Irratia* ere. Geroztik, *Euskal Irratiak* izeneko federazioan bildutako irradi aske hauek, garrantzia handia lortu dute Iparraldeko euskal komunitatearentzat, euskarazko komunikabide popularrenak bilakatuz.

Gradu Amaierako Lan honetan, metodologia kualitatiboan oinarritutako bi tekniken arteko konbinaketa eginez – iturri ez-zunen azterketa eta elkarrizketa sakonak – *Euskal Irratiak* federazioko irrati ibilbidea ikertu, eta Nafarroa-Behereko *Irulegiko Irratiaren* kasu azterketa aurkeztuko da.

Soziologiako Gradua bukatzean, ohartu nintzen orduraino aukeratutako lan eta proiektu guztiek gai berdintsuak zituztela. Hor okurritu zitzaidan, Gradu Amaierako Lanerako, ezer ez nekien eta urrun geratzen zitzaidan gai bat lantzearen ideia. Beraz, lehen motibazioa interes eta jakinmin pertsonala handitzea izan zen. Ikergaia hautatu eta berehala, haren egokitasuna berretsi zidaten arrazoiak agertu zitzaizkidan. Ipar Euskal Herriko euskarazko irratigintzaren inguruko azterketen urritasuna, fenomenoaren gaineko hutsune bibliografikoa, historiak marjinaziora bideratu dituen edota ikuspegi ofizial bakarra izan duten fenomenoaren tratamendu akademikoaren garrantzia ere nabarmentzea gustatuko litzaidake iruditzen zaidalako Ipar Euskal Herriko irratigintza aztertzeak etorkizuneko ekimenen nondik-norakoaren teorizazioen panorama osatzen lagundu dezakeela lurralde mailan.

Iparraldeko irradi euskaldunen sorreraren eta ibilbidearen azterketa orokorra egin ondotik, lan hau *Irulegiko Irratian* zentratzen da, kasu azterketa xehea eginez. Gradu Amaierako Lan baten luzera kontuan hartuz, ikergaiaren tamaina mugatu beharra genuen. Sakonki *Euskal Irratiak* federazioko irradi bakar bat aztertuz, euskal irratiaren fenomeno osora zabaldu daitezkeen ondorio batzuk atera daitezkeela pentsatu dugu, eta *Irulegiko Irratia* aukeratu dugu, batetik, bertako eragileek elkarrizketak emateko erakutsi duten prestutasunagatik, eta bestetik, aurtun, 2022an, 40 urte betetzen dituelako, eta nolabait, ziklo baten argazkia egin dezakegulako horrela.

## 1.2 HELBURUAK

- i. Helburu Orokorra: Helburu nagusia ikerketa gaiarekiko hurbilketa orokor bat egitea da, ondoko ikerketentzat abiapuntu gisa balio lezakeena.
- ii. Helburu Zehatzak:
  - i. Iparraldeko euskal irratien sorrera eta garapena kartografiatzea, haien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak detektatuz.
  - ii. Irulegiko Irratiaren historiaz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez azterketa xehea egitea.

## 1.3 METODOLOGIA

Ikerketa hau metodologia kualitatiboan oinarrituko da. Helburu motaren arabera diseinuan *miaketazkoa* aukeratu da. Jarraian, ikerketa bat burutzeko bidearen aukeraketa egitean azken bien alde egin da, hots, jarrerak modu sistematiko eta kontrolatuan galdetzea eta beste batzuk klasifikatutako materiala aztertzea. Erabilitako teknikak, iturri ez-zuzenen azterketa eta elkarrizketa sakona izango dira.

### 1.3.1 IKERKETAREN DISEINUA

Ikerketa diseinu hau, helburuen motaren arabera *miaketazkoa* da. Juaristik (2003) aipatzen duen bezala, diseinu hau egokia da ikertzen den fenomenoaren lehen hurbilpen bat egin nahi denean hortik ezagutza orokor bat biltzeko asmoz. Earl Babbie-k (1996) zehazten du gainera, diseinu hau egokia izan daitekeela ikertzailearen jakin-minari erantzuteko eta ezagutza handiagoa norberegantzeko. Ipar Euskal Herriko irratien inguruan gutxi ikertu da eta lan honen hasierako pausuak horiek ziren, gaiaren inguruan idatzi den ahalik eta gehien eskuratzea. Horrela, Juaristiren (2003) esanetan honelako ikerketa esploratzaileetan komenigarria izaten da aztergai fenomenoari buruz ideia orokorra ematen diguten teknikak aplikatzea, hauen artean, behaketa, eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketa.

### 1.3.2 TEKNIKA METODOLOGIKOAK

Ikerketa hau burutzeko bi tekniken arteko osogarritasunaren (Bericat, 1998) integrazioa egin da. Konbinazio honetan errealitate berdin baten bi irudi bilatzen direlarik, errealitatearen ulermena aberastuko dituzten bi irudiek aldi berean aurkeztea da, hau da, helburua gehigarria da eta ez da adostasunik ezta konbergentziarik bilatzen. Aukeratutako teknikak iturri ez-zuzenen azterketa eta sakoneko elkarrizketa dira.

### 1.3.2.1 ITURRI EZ-ZUZENEN AZTERKETA

Beste teknika guztiak bezala, iturri ez zuzenen azterketak bere abantailak eta mugak ditu. Abantailei begira, kutsatu gabeko informazioa eskuratzen da, ikerlariak ez baitu datuen eraketan parte hartzen eta gehienetan, merkeagoa izaten da (Juaristi, 2003), baita ikerketa honetan. Gure kasuan, geografikoki urrun dauden errealitateak aztertzeke ere baliagarria izan da (Ibid.). Baina baditu bere desabantailak ere. Hasteko, Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegian edota sarean dauden iturriak bakarrik erabili dira, bestelako artxibategietan sartzeko ezintasunagatik eta diru faltagatik. Gutxi ikertua izan den gai bat den heinean, informazioa erabat sakabanatuta dago eta eremua Ipar Euskal Herria izatean, gainera, sarritan ezagutzen ez genuen hizkuntza batean (frantsesez). Honek denbora inbertsio oso handia suposatu du.

Erabilitako iturri ez-zuzenak honakoak izan dira:

- i. Dokumentu idatziak (monografiak, artikulua akademikoak, prentsa artikulua eta dokumentu ofizialak).
- ii. Ikus-entzunezkoak (bideoak eta irratiko elkarrizketak)

Datu baseetan aurkituriko informazioa oso mugatua izan da, are gehiago euskarazko informazioa. *Inguma* euskarazko datu basean esate baterako, dokumentu bakarra dago ikergaiaren inguruan hitz egiten duena. Beraz, hauek izan dira ikerketa burutzeko gehien erabilitako dokumentuak. Jean Jacques Chevalen “Médias audiovisuels français et langues régionales minorisées. Langues d’Aquitaine: dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique, 197-242” (1996), NOR Ikerketa Taldearen “Hedabideak eta Euskal Herria” (2000), urte berean Gorka Jakobe Palaziok (2000) argitaraturiko “Irratibidearen Barrunbeetan Zehar. Harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara”, 2002an Gutierrez Paz-ek publikaturiko “Euskal Irratigintzaren Historia” eta Luzien Etxezarretaren “Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian” artikulua, 2006ko Soziolinguistika Aldizkaria-n argitaraturikoa. Alabaina gai hau sakonen aztertu duten autoreak Aitor Zuberogoitia eta Lierni Alkorta izan dira, “Masa-komunikaziotik Informazioaren Gizartera: Euskararen bideetan barrena” (2009) lanean. Lan hau hartu da ikerketa honen oinarritzat, inspirazio modura. Are gehiago, Zuberogoitiak berak “Euskararen presentzia gaur eguneko prentsa elebidun abertzalean” (2003) doktore tesian komunikabideak ikertzeke erabilitako sailkapeneko elementu batzuk aztertu ditugu kasu azterketan: hizkuntza-hautua, finantzazioa, mugarriak eta hedapen-eremua. Horiei, gainera, honako aztergaiak erantsi dizkiegu guk: soslaia, mezuak eta helburuak.


### 1.3.2.2 SAKONEKO ELKARRIZKETA

Ikerketa honetan erabili den bigarren teknika, sakoneko elkarrizketa izan da. Abantailen artean, Juaristik (2003) dio sakoneko elkarrizketak oso onak direla dio erakunde baten egitura aztertzeko, eta adituekin gaiari buruz hitz egiteko. Mugen artean, hala ere, informaziorik gabe gelditzeko arriskua dago elkarrizketatuek ez badakite nola erantzun edo galdetutakoaz gogoratzen ez badira. Requena Santos eta Ayuso Sanchezek (2018) berriz emaitzen hauen estrapolatzeko ezintasuna aipatzen dute.

Elkarrizketatuak aukeratzeko, ikerketa kualitatiboan adierazgarritasun teorikoa bezala ezagutzen dena jarraitu da. Hau da, ikerketa honek ez du lagin estatistiko batek osatuko digun ausazko laginketarik ezta estratifikaziorik bilatzen, adierazgarritasun estrukturala osatzen lagunduko digun laginketa teorikoa osatzen baizik. Hori horrela, profil ezberdinak lortzeko bi aldagai erabili dira: Irulegiko Irratian lanean egotea edota egon izana eta ibilbidea:

- Lan-egoera Irulegiko Irratian: Lanean aritzea edo aritu izana.
- Ibilbidea: Hiru sailkapen ezarri dira. Sortze unetik egonikoak (1. Belaunaldia), 2000. urterik orain artekoak (2. Belaunaldia) eta 2015. urtetik eta aurreragokoak (3. Belaunaldia).

#### 1. Irudia: elkarrizketatzaileen perfila





4 sakoneko elkarrizketa burutu dira guztira, lehenengo belaunaldiko bat, bigarren belaunaldiko bi eta hirugarren belaunaldiko bat, honakoak:

1. Jojo Bidart: 1. Belaunaldiko langile-ohia (2021eko abenduaren 6an)
2. Jone Barnetxe: 2. Belaunaldiko langilea (2021eko abenduaren 15ean)
3. Pantxika Arranbide: 2. Belaunaldiko langile-ohia (2021eko abenduaren 27an)
4. Artzen Letona: 3. Belaunaldiko langilea (2021eko abenduaren 31an)

## 2. ATALA: MARKO TEORIKOA — IPAR EUSKAL HERRIKO IRRATI EUSKALDUNEN SORRERA ETA TESTUINGURUA

### 2.1 IRRATI ASKEAK: FRANTZIAN ETA EUSKAL HERRIAN

Irrati libreen uholdea 68ko maiatzeko iraultzarekin iritsi zen Europara (Gutierrez Paz, 2004). Gehienak Europa hegoaldean pilatu ziren eta Italia zein Frantziako esperientziak bilakatu ziren mendebaldeko eredu (Pérez Martínez, 2009). Frantziako lehen irrati askea unibertsitate eremuko *Radio Lille* Campus izan zen, 1969an. 1977an, *Radio Vert* jaio zen Parisen, orientazio ekologistako irratia, estatuaren monopolioa desafiatzea helburu zuena (Ibid.). Irrati honen sorrerak mugari handia suposatu zuen. Populazioak eztanda egin zuen *Radio Vert*-en lehenengo emisioa poliziak eragotzi zuenean eta honek oihartzun handia izan zuen garaiko prentsan. 1977ko abuztuan irrati askeen inguruko biltzar bat egin zen eta 12 irrati elkartek parte hartu zuten bertan. Bilera horren harira irrati askeen kopurua esponenzialki emendatu eta urte amaiera horretan antolatu zen bilkuran 50 bat talde izango ziren parte hartuko zutenak. Bilkura haietan, erdigunean zegoen publizitatea irrati hauetan erabiltzearen inguruko eztabaida. Hori horrela, 1981an sozialistak gobernura heltzean, emititzeko baldintzen artean publizitateaz ez jabetzea jarri zuten. Honela irakurri daiteke 1981. urteko azaroaren 12an *El País*-en: “*El Gobierno francés ha autorizado las emisiones de las radios libres con la condición de que las emisoras pertenezcan a asociaciones no lucrativas, y con la limitación de difundir su programas en frecuencia modulada. Las radios libres, por tanto, no podrán emitir publicidad, y su radio máximo de cobertura es de treinta kilómetros*” (El País, 1981ko azaroaren 12a).

Handik gutxira jaio ziren Euskal Herriko lehen euskara hutsezko *Euskal Irratiak* Ipar Euskal Herrian, euskararen biziberritze prozesu baten baitan.

### 2.2 IPAR EUSKAL HERRIKO EUSKALGINTZA MODERNOA

XX. mende erdialdera oso minorizatuta iritsi bazen ere, 60ko hamarkadako azken urteetatik aurrera, euskarak berpizte prozesu indartsu bat abiatu zuen Ipar Euskal Herrian, belaunaldi gazte baten eskutik. Hamarkada hartan, gurasoen euskaltasun katoliko folkloriko eta tradizionalarekin hautsi zuen gazte talde batek. Iparraldeko lehen belaunaldi abertzalea zen, frantses izateari uko egiten ziona eta euskaraz bizitzeko nahia agertzen zuena. Kantagintza modernoa ere orduantxe sortu zen, eta Mixel Labegeriek abestutako “Gu gira Euskadiko gazteri berria, Euskadi bakarra da gure aberria” leloak, ongi islatzen du mugimendu honek ekarri zuen berritasuna.

Belaunaldi berri honen eskutik 1969an Iparraldeko lehen ikastola sortu zen Arrangoitzen, eta 70 hamarkadan zehar ziztu bizian zabaldu zen ikastolen sukarra Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetako herrietatik. 1980an, Kanbon, bigarren mailako eskola ireki zen eta lau urte geroago 660 ikasle zituzten jadanik ikastolek.

Paraleloki, helduak euskaldundu eta alfabetatzeko prozesua ere abian jarri zen, eta hala sortu zen Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea, AEK alegia, Ipar Euskal Herrira 1979-1980 hedatuko zena *Iparraldeko Gau Eskolen Federazioa* sortuz.

Kantagintzak ere eztanda handia izan zuen urte haietan, eta folk estiloko talde ugari gain (Guk, Eltzegor, Etxamendi eta Larralde, Manex Pagola), 70eko hamarkadan zehar, lehen rock talde euskaldunak sortu ziren. Kantaldiak euskaldunen komunitatearen elkargune nagusi bilakatu ziren, izugarrizko arrakasta lortuz. Bukatzeko, herri antzerkigintzak ere biziberritze aro bat izan zuen urte haietan. Toberak antolatuta ziren hainbat herritan (Baigorri, Iholdi...), lekuan lekuko gazteak aktibatuz eta mobilizatuz, eta mugimendu euskaltzalera hurbilaraziz.

Elementu guzti horiekin batera, hainbat euskaltzale ohartu ziren euskararen biziraupenerako derrigorrezkoa zela komunikabide euskaldunak sortzea, eta irrati libreen fenomenoak bizitzen ari ziren garapena aprobeztatuz, herri irrati euskaldunak sortu zituzten.

### 3.2 IPAR EUSKAL HERRIKO IRRATI EUSKALDUNAK: EUSKAL IRRATIAK

#### Gure Irratia

1981. urteko abenduaren 24a Euskal Herriko irratigintzaren historian presente izan behar dugun eguna da, orduan jaiotzen baita euskaraz ehuneko ehunean jardungo duen lehen irratia, *Entzun-Ikus* elkartearen eskutik: *Gure Irratia*.

Urte horretako udan, 30 euskaltzale bildu ziren Baionan euskara hutsez arituko zen irrati eta telebista publiko baten beharrez hitz egiteko eta Entzun-Ikus elkarteak sortu zuten. Irrati-telebista sortzea zen elkarte horren helburua. Irratia sortzeko, "Sortzaileak" izeneko azpitaldea sortu eta elkarteko pertsona orok 500 libera jarri zituen proiektuak aurrera egiteko (Gutierrez Paz, 2002). Zuberogoitiak honela kontatzen du hastapen hura:

"Benafarroko idazle ezaguna den Xipri Arbelbidek abiatzen du orduan ikerketa irrati medioez. Ateratzen da irratia muntatzeko medio merkeak behar direla. Entzun-Ikus elkarteak lehen diru kapitala biltzen du eta Lapurdiko Milafrangan muntatzen dira lehen estudioa eta antena ipintzen Km. erdi urrunago 150 m-ko mendiska baten kaskoan." (Zuberogoitia, 2003: 351)

Anaitasuna aldizkariaren 1981ko azaroako aldizkariaren 415. zenbakian honela dago adierazita, “*Entzun-Ikus elkartearen projektua martxan jartzen bada guztiz euskalduna izango zen lehen irratia genduke hau, hau da, euskara hutsean arituko litzatekeen lehen irratia*” (Zuberogoitia: 2003). Larzabalek dio “*Lehen hiru irratilari euskaldunen izenak gure historia herrikoiak gogoan hartuko ditu: Lucien Etchezarreta, Jaki Lautre eta Ermi Madariaga. Azpimarra dezagun Euskal Herri guztiko lehen irrati euskalduna dugula Gure Irratia*” (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009). Goian aipaturiko aldizkari berean (Anaitasuna 415. zk.) *Entzun-Ikus* elkarteko kideek honelaxe diote:

“Irrati legea aldatu zelarik irratia berri bat, librea, ez estatuaren menpekoa, martxan jartzea erabaki genuen, guztiz euskaldun izango den irratia, hau da, euskara hutsean ihardungo duena. [...] Entzun Ikus elkarte lege horretaz [*Mitterand legea*] baliatzen da bere irratia jartzerakoan. [...] Gure politika bakarra euskararena da, ez dugu nahi ere politikariek beren eskuak sar ditzaten.” (Zuberogoitia, 2003: 350; Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 113)

Garaian bazen tokiko informazioak zabaltzen zituen beste irratia bat: *Radio Adour*, euskarari tarte simboliko bat egiten ziona. Irrati honen lehia gutxi ez balitz, euskaraz arras gutxi egiten bazuten ere,<sup>1</sup> eratu eta urte batera, 1982an, Baionako udalak eta *UDF* alderdiak (Frantses Demokrasiaren Aldeko Batasuna) diru publiko asko bideratu zioten kompetentzia egingo zuen *Radio Bayonne* irratia (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 232).

Testuinguru honetan jaio zen *Gure Irratia*, baita kritika ugari jaso ere. Fama txarra hartu zuen, zaharrarena, euskararen integristarena. *Enbata* aldizkarikoek barre egiten zioten proiektuari eta *Argia* astekarikoek *Radio Adourrekin* batu ez izana leporatzen zioten: “*Horrelako egoera ez litzateke txarra, eta badu ere bere alde ona, baina ikusiz Ipar Euskal Herriak dauzkan aberastasun eskasak bai diruaren, bai gizonen aldetik, zatikatzeak ez du zerbitzatzen, egiten ahal lukeen bezenbat, euskara ez eta euskal populua*” (Arbelbide, 2003). Esparru abertzalean ere gailentzen zen aurreiritzi hori. Honela dago plazaratuta *Enbata*-ren 705. zenbakian (1982ko otsailak 18; hemen aipatuta: Alkorta eta Zuberogoitia, 2009):

“Arazo asko badaude euskal emankizunen emendatzeko eta ontzeko. Lehenik, mikrofonoa ez da euskal tresna bat eta irratia inguruan badabil miztika azkar bat emeki emeki, jender buruz lan eginez hautsi behar dena. Bestalde, euskararen eremua nahiz aberatsa den ez da aski zabala mundu moderno hunen gaietaz solastatzeko”.

---

<sup>1</sup> Hona sortzaileetako baten erantzuna euskarazko eskaintzaz hitz egitean, “*Devant cette inquiétude des indigènes, M. Ansoborlo a répondu que si des gens avaient des choses à dire en basque ou en gascon, ils pourraient venir le dire, sans faire de propagande*” (“Bertakoen kezka horren aurrean, Ansoborlok dio euskaraz edo gaskoieraz esateko gauzak baldin badauzka, etor daitekeela, baina inolako propagandarik egin gabe”) (Zuberogoitia, 2003: 345)

Gainera, egitasmo honek irrati publiko baten eratzea oztopa zezakeela ere egozten zieten *Gure Irratikoei* eta hau nahikoa ez balitz, egitasmo horretan huts egiteak euskaldunek euskal irratia egiteko gai ez direnaren aurreiritzia indartuko zuela arbuiaitu zien elkarrizketatzaileak (Ibid.). Lucien Etxezaharretak 2001ean honakoa zioen, “*Radio Adour Navarre irratiak ez zuen inoiz Entzun Ikus elkartekideei, Gure Irratia sortu zutenei, elkarrekin irrati euskaldun baten egitea proposatu. Heien aukera ele aniztasuna izan zen, nahiz % 90 frantsesez zen. Euskara piska bat ematen zen ere baina oro har oso guti.*” (Zuberogoitia, 2003)

Euskaraz beste edozein hizkuntzetan bezala jardun ahal zenaren ustekoak izango ziren irratia sortu zutenak. Augus Hernanen arabera, bi ziren irrati honen sortzea ulertzeko erreferentziak: irrati-panorama eta euskararen egoera (Euskonews 157. zk., 2002). Antzera, Luzien Etxezaharreta, *Gure Irratiko* lehen berriemaileak, honela dio:

“Asko aipatzen zen garai horretan (1980) diglosia, eta baita elebitasunak, demokrazia eta parekotasun idurizkoaren atzean, menpekotasuna zekarrela euskararentzat, biak bata bestearen alboan jarrita batak erraz bestea lehertzen zuela, frogatuz gainera ez zela gai komunikazio modernoarentzat, alabaina dena lantzekoa baitzen alor horretan! Horrengatik harreman istilutsua gertatu zen Radio Adour Navarrek, honek egia erran euskaltzaleen gehiengo handia biltzen zuela! Hala ere tinko eta fermu atxeki genuen eta agertu zen gure apustua premiazkoa zela: bide berdinetik gero hasi zen Euskadi Irratia 1982an” (Zuberogoitia, 2003).

Topikoekin apurtzearen aldeko apustu ausarta egin zutenek eta fedea zeukatenek %100ean euskaraz aritzen den irrati bat posible zela erabaki zuten sortzaileek. Bidea ez zen erraza izan irratikoentzat, gogora ekarriz jasotako kritikak. Beste buruhauste batzuk ere bazeuden, Lapurdi kostaldeko euskaldunen tasa txikia baitzen, beraz hastapenean, saioetan frantsesez egiteko hautua irratiko langileen esku geratzen zen. XXI. mende hasiera arte Lapurdin iraun zuen irrati aske bakarra da, hori horrela, irratian tokiko albisteak edo informazioa jasotzeko euskara hustezko irrati batekin egiten zuen jendeak topo. Estrategia berriak planteatu beharrean ziren eta eztabaida horrek luzaroan iraungo zuen. Etxezaharretaren lekukotasunari esker dakigunez, itzulpen-sistemaz baliatzen ziren bai eta mahaigaineratu ere erdarazko emanaldiak egitea beste frekuentzia batean – 2002. urtetik aurrera legezkoa egingo zenean bi frekuentzia izatea irrati batek (Zuberogoitia, 2003) – beraz, irrati honi zor zaion lorpenik handiena horixe da, gehiengo erdaldun bat dagoen testuinguruan euskaraz bizirautea eta euskara gizarteratze-tresna bilakatzea posible dela erakustea.

Erabiltzen duen euskara ez da batua, “*iparraldeko batua*” baizik, “*benafartar-lapurtar*” osatua deritzoguna, baina beste hizlari edo korrespontsalen bizilekuko euskalkiak ere entzuten dira irratian. Nolanahi, programazioaren ehuneko-ehuna euskaraz izan da betidanik (Jakobe Palazio, 2000: 29),

Chevalek azaldu legez, hizlarien %100a eta musikaren %80a XXI. mende hasieran (2002). Hala ere, salbuespenak egin litezke gonbidatuen hizkuntzaren arabera, izan ere, egon izan dira emanaldi berezi batzuk non Quebec, kurdo edo beste herrialdeetako pertsonak egon diren eta baita ingelesez edota gazteleraz saioak ere.

### **Xiberoko Botza**

Urtebete geroago, 1982an, kasu azterketaren ondoko atalean xehe-xehe aztertuko dugun Irulegiko Irratia sortu zen Baxenafarroan. Zuberotarrek ere, irratien eztanda honen garaian ez zuten askorik itxaron beharko haien irradi propio bat izan arte. Maite Lephaillek, honela zioen 2001ean, *“Bai; Iparralde guzian eraman zen gogoeta komunikabideez, eta, Gure Irratiaren eta Irulegiko Irratiaren sortzearekin, beharrezkoa zen Xiberokoan ere irradi baten sortzea”* (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009). Allande Etxartek GARA aldizkariari eginiko elkarrizketa batean ere antzeko zerbait dio:

“François Mitterrand boterera heltzearekin Estatuaren monopolioa hautsi zen, irradi libreen irekitzea posible zen, eta diru laguntza bat ere bazen irradi libreentzat. Jadanik abiatuak ziren Gure Irratia eta Irulegiko irratia. Hemen probintzien autonomia nahia handia denez, ez genuen Gure Irratiaren adar bat soilik izan nahi, baina nahi genuen Xiberoko irradi bat [...] Roger Idiart apezak, Zalgizeko erretoreak, proposatu zituen beste izenen artean Xiberoko Botza izan zen onartua. Euskarazko irradi bat muntatzeko nahia zen, nehork ez zuen esperientziarik, baina ikusiz besteek egiten zutela, nahi genuen besteek bezainbeste egin” (GARA, 2012ko abuztuak 4)

*Xiberoko Botza, Uhaïtza* taldearen ekimenez jaio zen eta lehen emisioa 1982ko abuztuaren 5ean egin zuen arratsaldeko bostetan (Berriapapera 125. zk., 2002) Irabarneko jauregiko lehen solairutik non Mauleko udalak, Frantziako Alderdi Sozialista agintean, gela batzuk utzi zizkien antena Zalgizeko tontorrean zutelarik (Jakobe Palazio, 2000). 4 urte inguru egon ziren nahiko kaxkar<sup>2</sup> zegoen jauregi hartan, Madouce Aranguaseri irratikoek eginiko elkarrizketan kontatzen duenez (GARA, 2012ko abuztuak 4), Lephaillek informazio gehiago ematen du: *“Zahar-zaharra zen. Konponketa prekarioak egin bagenituen ere, ganerreko tauladak sekulako kirrinka egiten zuen, eta mugitzen zen guzietan disko biniloak erortzen ziren. Orotan ezarri genituen paperak: «Emeki ibil». Gero, langilea hartzearekin, lokalez aldatu ginen.”* (Iparraldeko Hitza, 2020ko uztailak 5).

Irratikoek egun hori ez zuten ausaz aukeratu emisioekin hasteko, 1789ko abuztuaren 5ean Parisen jauntxoaren pribilegioak ukatu ziren eguneko sinbologiaz beteriko data aukeratu zuten Etxarten esanetan

---

<sup>2</sup> Barnealdera sartzen zen haizearen interferentziak ekiditeko jauregiko hormak kartoizko arraultza kutxaz bete zituzten 30. urteurrenaren baitan *Xiberoko Botzak* Jean-Jacques Etxeberri Llagori eginiko elkarrizketari esker (Xiberoko Botza, 2012ko abuztuak 3).

(GARA, 2012ko abuztuak 4). Irrati propio bat sortzearen ideia, alabaina, bost urte lehenagotik zetorren, 1978tik, Zuberoako udalek eta administrazio frantsesak *Contrat de Pays* ituna egin zutenetik (Jakobe Palazio, 2000), horrela sortzen da *Uhaïtza* elkartea, lehen itun horren esparruan (Landart, 1990). Lehendabiziko frogara bi aste lehenago egin zuten (Berriapapera 125. zk., 2002). Hasierako hilabetean ostegunero emititzen zuten arrastiko zazpietatik aurrera eta iraila iristean ekin zioten eguneroko programazioari ordu berean ordu erdi/bi orduz (Enbataren 732. zk., 1982; hemen aipatuta: Zuberogoitia, 2003). Euskararen egoera ez zen arrazoi bakarria irrati honen sortzearen atzean, arrazoi hori esanguratsuen bada ere. Bestelako faktoreei erreparatuz, gero eta lanpostu gutxiago zeuden Zuberoan, baita gazteentzako aukera gutxi lur sail edo etxerik erosteko eta beraz, beraien herrian geratzeko eta garatzeko. Garaiko testuinguruaz honela zioen Allande Etxartek:

“[...] aipatu, laborantzan, toki eskasiaz eta industrian, lan baldintza okerrez alde egiteko, ihes bidea hartu zuela Xiberotar saldo handia. Bi sektore horietan, gainbehera handia izan da, eta orain hiru herenetan banatzen da ekonomia: laborantza, industria eta zerbitzuak” (Euskonews, 1999ko uztailak 2)

Euskal mundua mespretxatzen zuen diskurtso hegemonikoaren aurrean bestelako ikuspegi bat aurkeztu nahi zuten sortzaileek<sup>3</sup>, baita irrati kritiko bat eratzea. Sektore ezkertiar eta euskaltzaleak bultzatuta emisora aske moduan hasi ziren emititzen *Sud-Ouest*, *Miroir de la Soule* eta *Radio France Pays Basque* eskuin ideologiako komunikabideei lehia eginez (Euskonews, 1999ko uztailak 2; GARA, 2012ko abuztuak 4). Panorama horretan, ez zegoen euskarazko komunikabiderik eta irrati honen aitzindariak ez ziren oraindik entzuten lurraldean. Euskara trantze larrian zegoen, eta gehiago zuberera. Allande Etxarten (Euskonews, 1999ko uztailak 2) arabera folklorezaleen gain erori zen euskal kulturaren babes eta horrek euskararen transmisio katea eten zuen. Beraz, panorama orokor honetan sortu zen, ez zailtasun gutxiarekin, *Xiberoko Botza*. 1986 arte emisora aske moduan emititu zuten irratiaren baitan egon zen zatiketa iritsi arte. Irten zen sektoreak *Radio Mendililia* sortu zuen.

Azpimarragarria da nola garai beretsuan sorturiko hiru euskarazko irratiak eredu propio bat garatu zuten hizkuntzarekiko. *Xiberoko Botzaren* kasuan, hasieran euskaltzale eta sozialistak batu ziren irrati libre bat sortzeko. Hau honela, hasierako<sup>4</sup> saio batzuk frantsesez egiten ziren. Maite Lephaille-ek dio (Berria,

---

<sup>3</sup> Honela argitu zuten irrati arduradunek Abilen 1. zenbakian (1982), “*Tokiko prentsa ez da nahikoa informatzeko eta, oro har, adierazteko. Hego Mendebaldean Béarni lotuta dago La Soule, eta La République, sarritan bilatu behar izaten da. Eta, Miroir de la Soule-n bezala, haren orientazioa ezagutzen da. Objektibitatearen zerbait egunkariaren indargunea ez zenez, irrati beharra zela zirudien.*” (Zuberogoitia, 2003: 384)

<sup>4</sup> 30. urteurrenaren baitan Xiberoko Botzak eginiko elkarriketan (2012ko abuztuaren 3an) Madouze Aranguasek aitortzen du Xiberoko Botzaren lehenengo saioa erdi frantsesez eta erdi euskeraz egin zutela. Berak frantsesezko atala eta Lephaillek berriz euskarazkoa (GARA, 2012ko abuztuak 4).

2020ko uztailak 5) hasiera batean euskarazko programazioa %60 ingurukoa zela baina denbora gutxiren buruan ehuneko hori 70era igo zela (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009) proportzioa euskararen mesedetan egon delarik beti. Gaztelerazko (Zuberogoitia, 2003) eta portugesezko emanaldiak ere entzuten ziren irratian (Berria, 2020ko uztailak 5) baina Lephaille-i eginiko elkarrizketa berean azaldu legez, irratikoek bihurtu batera iritsi ziren euskara nagusitu zenean. Lehenik sozialistak joan ziren urrutzen eta gero portugesak (Berria, 2020ko uztailak 5)<sup>5</sup>. Jakobe Palazioren esanetan bestalde, 1995. urtean ehuneko hori handiagoa zen, %80koa, baina bere ohikora bueltatu zela bost urteren buruan. Allande Etxartek 1999an %90ean zegoela adierazi zuen eta 2012an berriz dena emanaldi denak zirela euskaraz zioen. Allande Sokarrosen hitzetan berriz, *Euskal Irratiak* federazioaren barruan izandako lankidetzak bertako euskalkiaren mesedetan lan egin beharrian berai ahuldu du gehiengoaren ulermenaren mesederako (Euskonews 157. zk., 2002). Lephaille iritzi berekoa da, *“Iruditzen zait euskalkiak aberastasun direla, baina eztabaida beti hor da, eta arranguratua naiz: jendeak euskalki desberdinak entzun nahi ditu; alta, irratia barnean, ez dugu trenkatu. Ados naiz euskalkiak moldatu behar direla elkar entelegatzeko gisan, bai, baina ez batua bakar bat”* (Berria, 2020ko uztailak 5).

### **Antxeta Irratia eta Amikuzeko irratia**

*Gure Irratiaren* 20. urteurrenaren baitan, bigarren euskarazko irratia bat sortu zen Lapurdin: *Antxeta Irratia*, Hendaian. 2001. urteko abenduaren 20an inauguratu zuten egoitza (Zuberogoitia, 2003), proiektua 2000. urtean hasi bazen ere, (Gutierrez Paz, 2002) eta otsailaren 18an<sup>6</sup> hasi ziren emititzen *Pausumedia* eta *Entzun-Ikus* elkartearen sustenguz (Gutierrez Paz, 2002; Argia, 2016ko otsailaren 18a) Behe-Bidasoako eskualdean euskara suspertzeko, esparru komunikatiboa euskalduntzeko eta *“komunitatearekin eta komunitatearen zerbitzura lan egiten duen”* hedabide komunitario bat sortzeko ekimenez (Sustatu, 2010) . Eragile sozialek eta hizkuntzaren normalizazioan jarduten zuten pertsonak abian jarri nahi zuten eskualdeko hizkuntza-normalizazioaren prozesuan aurrera egiteko proiektu bat eta okurritu zitzaizkien irratia bat eratzea zela egokiena hirugarren sektorearen esparruan, hau da, irratia zerbitzu asoziatibo bat, Aitor Errazkin irratiko kideak, elkarrizketa batean dioenez (El Salto Diario, 2020ko otsailak 2). 2002. urteaz geroztik erakunde autonomo bezala dabil (Etxezarreta, 2006). Lokala berriz, 2005eko urriaren 25ean ireki zuten (Arin Larrañaga, 2010) eta gaur egun *Antxeta Irratia* bera elkarte bat da. *Antxeta Irratia* Bidasoa ibaiaren alde bietan hasi zen emititzen eta Ipar Euskal Herrian legezkoa zen

---

<sup>5</sup> Maite Lephaille-i Berria aldizkariak eginiko elkarrizketan honela mintzo gara hartaz, *“Portugesek ez zuten deus endelegatu: denbora anitz eman zuten frantsesa ikasteko, integratzeko, eta, jin delarik euskararen nagusitze hori, ez zuten deus konprenitu, eta urrundu ziren. Bigarren langiletik landa, ni nintzen sartu.”* (Berria, 2020ko uztailak 5)

<sup>6</sup> Zuberogoitiaren esanetan lehen emisioa otsailaren 3an izan zen (2003: 416).



bitartean, estatu frantsesak horrelako irratiei garantia eta errekonozimendu batzuk ematen dizkie eta, estatu espainolak ez zuen eta ez du horrelakorik kontenplutzen, baina egoitza Hendaian zenez, Bidasoa beste aldeko herri batzuetan ere entzuten zen, Irun eta Hondarribian adibidez. Honela mintzo zaigu Inge Arin Larrañaga (2010: 1):

“Bidasoa-Txingudi aldeko harremana bultzatzea dute helburu bertako kazetari zein langileek, hau da, Espainia eta Frantziako zatiketa administratiboak bortxaz herrien arteko ezagutza falta dakar [Urruñako Pausua auzoak osatzen duten eskualde naturala] eta beraz, Gipuzkoa eta Lapurdi elkar aritzeko parada egokia iruditu zitzaion. Era berean, euskara sustatzearen nahia ere puntu nagusizat dute. Horregatik, proposatzen dituzten emankizun guztiak euskara hutsean eskaintzen dituzte. Preseski, Irun, Hondarribia, Hendaia, Behobia eta Biriato eskualdeko euskarazko lekuko irratia dugu.”

2012. urtean “*Antxeta Bi*” izeneko proiektua hasi zuten eta hegoaldean emititzeko lizentziaren eskakizuna egin zen eta Eusko Jaurlaritzarekin auzitan egon ondoren 2016an esleitu zitzaion lizentzia. Egun Hego Euskal Herriko 4 hiriburutan entzun daiteke. Astiro-astiro haien emanaldiak luzatzen ere joan dira. Bost ordurekin hasi ziren (*Le Journal du Pays Basque*, 2001-X-25; hemen aipatuta: Zuberogoitia, 2003), 2010ean jadanik ordu bete gehiago zen (Arin Larrañaga, 2010) eta gaur egun 24 orduz emititzen dute Aitor Errazkinen kontatu legez (El Salto Diario, 2020).

Bukatzeko, 2018an, bigarren euskarazko irrati bat sortu zen Baxenafarroan, *Irulegiko Irratia*-ren eskutik: *Amikuzeko Irratia*, Amikuze eskualdeko berri lokalak jorratzen dituena.

### **Euskal irratien marko legala eta finantzazio publikoa**

Frantziako CSA-k (Conseil Supérieur de l’Audiovisuel) 5 irrati mota desberdintzen ditu:

1. A Kategorikoak: irrati zerbitzu asoziatiboak, gizarte-komunikaziorako helburu komunitarioa dutenak. Irrati mota hauek aurrekontuen %20raino bakarrik balio daitezke publizitateaz.
2. B Kategorikoak: programa nazionalik transmititzen ez duten tokiko edo eskualdeko irrati-zerbitzu independenteak, beste era batera esanda, programa estatal baten barruan ez daudenak.
3. C Kategorikoak: sare nazionalaren irrati zerbitzu lokal edo eskualdekoak.
4. D Kategorikoak: nazio mailako irrati-zerbitzuak.
5. E Kategorikoak: bokazio nazionalako irrati-zerbitzu orokorrak.

*Euskal Irratiak* A kategorian daude sartuta, emisora hezitzaile, kultural, asoziatibo eta tokiko emisoreen taldean Pirinio Atlantikoen (64) departamenduan. Irrati askeen oldea egonkortu ostean, estazio asko

aukera komertzialaren aldeko hautua egin zuten, beste batzuk desagertu egin ziren arazo ekonomikoen poderioz eta geratzen zirenak, askatasun espiritua gordetzeko eta hurbileko komunikazioaren alde egiteko, F.N.R.L federazioan (1978-1984) bildu ziren, geroago C.N.R.L (1984-2004) bilakatu zena (Bujanda, 2009) eta egun S.N.R.L – *Syndicat National des Radios Libres* – deitzen dena. C.N.R.A-rekin batera frantses estaduko irrati asoziatiboen federaziorik handiena sortzen dute elkarrekin C.N.R.A/S.N.R.L egitura sindikal artekoa edo intersindikala osatuz. Federazio horren lorpenik handiena *Fonds de Soutien à l'Expression Radiophonique – F.S.E.R* – edo *Irrati-Adierazpenerako Sostengu Fondo* izanik. Diru publikoa Kultura Ministeriotik heltzen da – nahiz eta ez den diru sarrera bakarra – eta *Irrati-Adierazpenerako Sostengu Fondo* honek kudeatzen du. 4 diru laguntza mota bereizten ditu federazioak: *Instalaziorako diru-laguntza* (16.000€koa eta baten bakarrik eskaintzen dena), *ekipamenduarentzako diru-laguntza* (ekipoaren balioaren %50 artekoa limitea 18.000€koa delarik), *funtzionamendurako diru-laguntza* (honen esleipena automatikoa da komunikazioaz eta aurrekontuez arduratzen diren ministroek ezarritako eskala bat erabiliz esleitzen dena) eta *irradi-ekintzetarako diru laguntza selektiboa* (gertuko komunikazioarekin konpromisorik handiena duenari dirua gordetzea du helburu eta lortutako puntuen arabera doa. Puntuak sari bezala jokatzen dute urtean zehar egindako saioen gaien arabera ematen baitira izendatzeak: 1-3 puntu bitartean hezkuntza eta ekintza kulturalen gaietara, 1-2 puntu bitartean diskriminazioaren kontrako eta integrazioaren aldeko gaietara eta azkenik 1-2 puntu bitartean ingurumena eta garapenaren aldeko gaietara. Esan beharra dago irrati programazioetan txertaturiko gaiez gain beste faktore gehiago ere daudela puntuak esleitzerakoan irratiei, baliabideen dibertsifikazioa, lanpostuak sortzea edo programen arloko ekintza kolektiboetan parte hartzea besteak beste.)

Hona nola banatu zen diru hori hamar urteren buruan F.S.E.R.-ek publikatutako txostenen arabera 2009tik 2020ra:

1. Taula: [Euskal irratiei eginiko diru-laguntzaren esleipena](#)

| Ustiapenerako diru laguntza |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |
|-----------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
|                             | 2009    | 2010    | 2011    | 2012    | 2013    | 2014    | 2015    | 2016    | 2017    | 2018    | 2019    | 2020    |
| Antxeta Irratia             | 26.000€ | 36.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ |
| Amikuze Irratia             | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | 38.000€ | 38.000€ |
| Gure Irratia                | 40.000€ | 40.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ |

|                   |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |
|-------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Irulegiko Irratia | 40.000€ | 40.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ |
| Xiberoko Botza    | 40.000€ | 40.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 42.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ | 40.000€ |

*Iturria: autoreak egina F.S.E.R. -ek eskainitako datuen bitartez*

**2. Taula:** Euskal irratiari eginiko diru-lagunzaren esleipena

| Irrati ekintzetarako diru-laguntza selektiboa |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |
|---|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
|   | 2009    | 2010    | 2011    | 2012    | 2013    | 2014    | 2015    | 2016    | 2017    | 2018    | 2019    | 2020    |
| Antxeta Irratia                               | 6.132€  | 15.645€ | 23.602€ | 20.402€ | 32.099€ | 26.322€ | 23.820€ | 17.280€ | 27.230€ | 30.291€ | 25.256€ | 22.726€ |
| Amikuze Irratia                               | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | -       | 26.000€ | 17.222€ | 15 271€ |
| Gure Irratia                                  | 17.995€ | 19.183€ | 29.657€ | 22.277€ | 27.706€ | 23.239€ | 20.871€ | 17.280€ | 27.230€ | 30.291€ | 29.049€ | 26.275€ |
| Irulegiko Irratia                             | 24.851€ | 25.856€ | 26.663€ | 25.502€ | 28.604€ | 23.536€ | 24.138€ | 19.897€ | 30.909€ | 34.214€ | 29.049€ | 26 275€ |
| Xiberoko Botza                                | 21.423€ | 22.520€ | 26.663€ | 25.502€ | 32.099€ | 26.915€ | 24.138€ | 19.753€ | 29.973€ | 34.214€ | 28.477€ | 25 823€ |

*Iturria: autoreak egina F.S.E.R. -ek eskainitako datuen bitartez*

Jada aipatu bezala, guzti hau F.S.E.R-ek kudeatzen du, honegatik, arestian aipaturiko publizitate muga daukate irratiak, aurrekontuaren %20a baino gutxiago, zehazki. Honetaz gain, goizeko 6etatik gaueko 10etarako tartean, gutxienez lau ordu eskaini behar diote eremu horretako informazioari. Lau ordu horiek beteta, kanpoko saioekin bete dezakete haien programa baina saio horiek A kategoriakoak (zerbitzua doan denean), gobernuz kanpoko erakundeetakoak edota elkartekoak (hauek kudeatzen dutenean) izan behar dira (Gutierrez Paz, 2002: 121). Egitura aldetik, nahiko berdintsuak dira, denek hartzen dute parte CNRL Konfederazioan eta bat egiten dute eginmoldeetan edo printzipiotan beste 250 irratiarekin. Gainera, euskara eta euskal kulturaren hedapena, promozioa, elkarte sistema berdintsua eta euskarazko irrati zerbitzu publiko bat eskaintzea dute denek zerumuga (Bujanda, 2009).

### 3. ATALA: IRULEGIKO IRRATIA – KASU AZTERKETA

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, 80ko hamarkadaren hasieran irrati askeen uholdea hedatua zen eta ez zuen askorik iraungo Nafarroa Beherera heldu arte. *Gure Irratia* emititzen hasi zenetik aste gutxi batzutura, 1982ko urtarrila arte hain zuzen ere, prestaketekin urte bat lehenago hasi arren. *Gure Irratiak* bezala, 1981eko hauteskundearen ostean ikusi zuten Nafarroa-Behereko euskaltzale batzuek euskara erdigunean jarriko zuen irrati aske bat sortzeko beharra. *Radio Adour Navarre* eta *Radio Côte Basque* irratiaren euskara entzun ahal zen, baina oso urri eta *Gure Irratia* ez zen lurraldeko toki guztietara iristen. Gainera, aitzindariak bezala, tokian tokiko informazioa zabaltzeko medio baten beharra ere ikusi zuten, bertako jendearen parte hartzea bermatuko zuena. Honela azaltzen digute irratiaren kideek:

“Lehenik erran behar da bi irrati horiek batere edo arrunt gaizki entzuten direla gure eskualdean. Gero, inportantena behar bada guretako, orai artio guhauren berriak kanpotik ukaitea usatiak ginen eta partikularzki irrati mailan, aldiz irrati libreen mogimenduaren gauza interesgarriena da lekuko jendeek parte hartzen ahal ukaitea eta mintzatzea bizi dituzten gauza guztietaz. Aipatu ditugun bi irratiak kosta aldean dira; aldiz, barnekaldeko jendeek parte hartu nahi badute, biziki errexago izanen da hemen berean studio bat balin bada.” (Zuberogoitia, 2003)

Alkorta eta Zuberogoitiaren lanean irakurri ahal denez, Herriaren 1.639. zenbakian (1982-02-18:7) aipatzen da hasiera batean *Radio Adourrekoek* haien irratiaren beste hedatzaile bat barnealdean jartzea proposatu zirela, baina irrati askearen legearen arabera hedatzaile bakarra izan ahal zen eta beraz elkarte edo batasun bat gauzatzea erabaki zuten (2009), horrela sortzen da *Irratia* elkartearen. Garai berean borroka bat bazen Ipar Euskal Herri mailean aspaldidanik euskararen presentzia areagotzeko komunikabideetan (Bidart, komunikazio pertsonala, 2021). Urte horretan, 82an, sortu zuten *Irratia* elkartekoek *Irulegiko Irratia* (NOR ikerketa taldea, 2000: 52). *Herria* aldizkariak 1989an publikaturiko artikulua baten arabera lehen estudioa Menta etxaldean kokaturik zegoen, mahastien erdian (Jakobe Palazio, 2000), gero arditegian eta antena berriz Mentako teilatuaren gainean, Irulegin bertan. *Berria*-k (2020ko otsailaren 2an) Jojo Bidarti, *Irulegiko Irratiko* lehen ahotsari, eginiko elkarrizketari esker dakigu, Bidart eta Joseba Grazia errefuxiatuaren artean lortu zutela ikaragarri berotzen zen bigarren eskuko igorle zahar eta txiki bat erostea eta montatzea. Guztiarekin ere, denbora gutxiren buruan antena lapurtu zuten. Testigantzen arabera, jendarmeen autoa izan zen inguruan azken ikusi omen zutena. Honela kontatzen zuen *Egin* egunkariak (1984-IV-2):

“Lehen ikuilu izandakoa, ezpairik gabe, ongi prestatua dago: estudio profesional bat baina miniaturan. Baigorriko eskualderako egiten dute irratiak, eta paraje oso menditsua delarik, Urepel gaineko mendi batean ipini behar izan zuten antena; norbaitek ohostu eta berriro jarri behar izan dute. Programazioa ere

eskualdeari lotua neurri handi batean, bertako taldeei eta. Hala ere bi informatibo egiten dituzte egunero, eta bi lagun ari dira hor fijo, euskaraz gain frantsesa ere erabiltzen dutelarik.” (Zuberogoitia, 2003)

Jojo Bidartek azaldu legez, gertakizun horrek antena berri bat erosteko lehen sostengu kanpaina bultzatu zuen, ordutik aurrera urtero egiten dena (komunikazio pertsonala, 2021) eta Bidarten arabera, meditatuta ez bazegoen ere, mesedegarria izan zen beraientzat antena lapurtzea. Teknika aldetik ez ziren profesionalak, baina Bidartek bazuen esperientzia irrati-munduan, *Radio Adour-Navarren* egon baitzen. Luzien Etxezaharreta da horren testigu, *“Erran behar da Irulegiko Irratiako lehen langileak Radio Adour Navarre (RAN) irratian aritu zirela, 1982ko otsailean hasi aurretik modu autonomoan, laguntza ardietsiz RANetik; bere burua elebidun aurkeztu zuen Irulegiko Irratiak orduan, %80 euskaraz zuela hargatik”* (Zuberogoitia, 2003). Horrela ba *Herri Taldeak* talde politikoak dirua bildu eta Jojo Bidarti eman zioten irratiarekin jarraitu zezan. Horrela bilakatu zen bera *Irulegiko Irratiko* lehen soldatapeko langilea (Berria, 2020ko otsailak 2). Emanaldi motzekin hasi ziren, ordubetekoak, eguerdiko hamabi eta erdietatik ordu bat eta erdietara. 1992an *Oihartzuna (Oiarzuna)* taldea eratu zen finantzamenduarekin irratiari laguntzeko (Jakobe Palazio, 2000) eta lantalde honi esker adibidez, 2001ean egoitza berria martxan jartzeko kanpaina hasi zuten. Urteen joan etorriarekin irrati ondo sustraitua da gizartean eta herritarren onarpen zabala du.

*Irulegiko Irratiaren* alderdi esanguratsuen azterketari ekin diezaiozun orain.

### 3.1 Hizkuntza Hautua

Aitzinean aipatu bezala, euskara komunikabideetan jadanik entzun ahal zen, *Radio Côte Basque*-ek tarte txiki bat emititzen zuen euskaraz, zertxobait gehiago *Radio Adour Navarre*-ek. Honela mintzo da Bidart garai haietako euskarazko irratigintzaren panoramaz: *“Guk argi ginuen behar genuela komunikabide tresna horretan lagundu euskara [...] zeren eta ikusten baiginuen beste komunikabide guztietan alderantzizko propozioa eta ono guttiago zuela tokia euskarak. Beraz, behar zen tresna bat orekatzeko, beraz, indar gehiago ukanen zuen euskarak.”* (Komunikazio pertsonala, 2021). Baina euskarazko komunikazioaren gaia pil-pilean zegoen eta ikus-entzunezkoen esparruan baino lehen hasiak ziren jadanik prentsa idatzian euskara baliatzen, *Herriz Herriko* astekarian hain zuzen ere (Jojo, 2021eko irailak 9) Gogoratu behar dugu jadanik bazela irrati bat osoki euskaraz ari zena, *Gure Irratia*, baina hauek ez zuten fokua Baxe-Nafarroan jartzen. Irratiak Milafrangatik emititzen zuen eta lurraldeko zenbait tokitara ez zen heltzen.

*Irulegiko Irratiari* dagokionez, helburu birekin munduratu zen: lehena, euskaraz nagusiki aritzea, baina ez euskara hutsean, bermatu nahi baitzuten irratiak ahal bezain plurala izango zela. Bigarrena, Nafarroa-

Behereko ahalik eta pertsona eta talde gehienak parte hartzea, hau da, herritarrengandik eta herritarrentzako izango zen irrati baten sortzea. Horrela jaio zen *Irulegiko Herri Irratia*. *Gure Irratiko*en elebakartasunaren eredia ez zuten jarraitu, euskararen egoera ez zelako berdintsua bi lurraldeetan. Bidarten ustetan, frantsesaren presio handiagoa pairatzen zuen Lapurdik eta horregatik erabaki zuten *Gure Irratiko*ek euskara hutsean aritzea, nolabaiteko kontra-presioa egiteko (Komunikazio pertsonala, 2021). Baxe-Nafarroan ordea, egoera ez zen hain kaxkarra, izan ere, lurraldeko bi-herenak hitz egiten zuen euskaraz (Zuberogoitia, 2003: 372) eta beraz, zentraltasun gehiago eman zioten eragile anitzen parte hartzeari elebakartasunari baino, nahiz eta euskararen babesa erdigunean mantendu izan hasiera-hasieratik (Komunikazio pertsonala, 2021).

Hastapenean, ordu eta erdiko saioak egiten zituzten, osorik euskaraz, baina orduak luzatuz joan hala, jende gehiago hasi zen parte hartzen eta beste bide bat hartzea erabaki zuten. (Zuberogoitia, 2003: 372). Saio gehienak euskaraz ziren, baina esatarien eskutan gelditzen zen hizkuntza-hautua. Saioen arabera, bai euskara edo bai frantsesa entzun ahal zen partehartzaileen edota bideratutako entzuleen arabera. Esate baterako, umeei bideratutako saioak frantsesez egiten ziren ohartu baitziren eskoletara hurbiltzerakoan ume askok ez zekitela euskaraz eta beraien parte hartzearekin kontatu nahi bazuten frantsesez egin behar zutela. Bestalde, nekazari bideratutako saioak eta kultur saio gehienak euskaraz ziren. Cheval-en irudikoz, irratian parte hartu nahi baina euskaraz ez zekitenentzat egiten ziren salbuespenak, *“Les Amis de La Terre”* talde ekologistak egiten zituen saioentzat esate baterako, baita eragile politikoentzat, mezua fidagarriagoa egiten delako hizkuntza originalean entzunda (1992)<sup>7</sup>. Gauza bera esaten zuen Bidartek 2001. urte hartan: *“Ez dugu itzulpenik egiten, bera zuzenean entzunez mezua fidelago izango baita, beste batek itzulita baino.”* (Zuberogoitia, 2003; 367). Argitu beharra dago partehartzaileen eskuetan geratzen bazen ere hizkuntza-hautua, langileen kontrataziorako halabeharrezko kriterioa euskaraz jakitea zela (Bidart, Komunikazio pertsonala: 2021). Boluntarioak ziren frantsesezko saioa gehienak egiten zituztenak.

*Gure Irratiko*en antzeran, *Irulegiko Irratiko*ek ez ziren euskara batuan mintzo, nafarro-lapurtarrean baizik Baxe-Nafarroako *“Herriz Herri”*-ko (1980-1991) informazio-astekaria eta *Gure Irratiko*en gisara. *Euskal Irratiak Federazioan* bildu zirelarik 1997an, amankomunean egiten zituzten jadanik emankizun batzuk, eta beraz, entzuleek Ipar Euskal Herriko euskalki asko entzuten ahal zuten. Bidarten berbetan, batzuei arrotz egin zitzaiezen euskalkien nahasketa hori, baina helburu zuten beste irratiarekin lanean hasi zirelarik elkar ulermena azkartzea eta hizkuntzen kohabitazio bat mantentzea. Jone Barnetxe, *Irulegiko*

---

<sup>7</sup> *“If only politicians who spoke fluent Basque had the opportunity of speaking it would lessen the objectivity”* (Cheval, 1992: 186)

*Irratiko animatzailearen begietan (komunikazio pertsonala, 2021), "Euskalkien nahasketa bazen eta euskalkien nahasketa hori biziki aberatsa, gainera [...] biziki aberasgarria gainera eskuara desberdin horiek entzuteak. Hitz ainitz ikasi ditugu guk ere irratian, nola erraiten diren adibidez, Kattalin gorria [marigorringoa] Xiberuan edo Lege Xuria polizia erraiteko".*

Ez dago batasunik erabiltzen zen euskararen proportzioren inguruan, 1994an Mattin Larzabalek zioen frantsesezko saioak %5 zirela gutxi gora-behera (1994: 220), Chevalek (2002) berriz euskarazkoak %80-koak eta Pantzo Hirigarairen (Jakobe Palazio, 2000: 30) eta Jojo Bidart-en ustetan %90-ekoak "[...] bainan betidanik eta sortu denetik eta luzarat nonbaitan euskararen tokia nagusi-nagusia zen %90 esate baterako euskaraz eta %10 frantsesez gutxi gora behera, ideia bat ukaiteko." (Komunikazio pertsonala, 2021).

Arrosa sarean 2006. urtean publikatuta dagoenagatik pentsatu dezakegu frantsesaren erabilpena handiagoa zela elkarrizketetan saioetan baino, honela baitio, "*Nahiz eta frantsesezko elgarrizketa zonbait egiten ditugun, gure emankizun gehienak euskaraz dira (%90)*". Normala den bezala, aitzinean nolabaiteko beldurra pairatu zuten jende batzuk, pentsatzen baitzuten elebitasunaren aldeko apustuak, orduko komunikabide guztiekin gertatu zen bezala, frantsesaren mesedetan izaten bukatuko zuela: "*Uzten baduzue frantsesa sartzerat frantsesa nagusituko da eta euskararen kaltetan izango da*" (Bidart, komunikazio pertsonala: 2021). Bainan frogatu dute irratikoek, eta frogatu 40 urtez, elebitasunean jardun daitekeela euskararen mesedetan.

### **Gaur egun**

40 urte bete dituen honetan, gauza asko aldatu badira ere, hasierako hizkuntza-hauturi eutsi diote. Arrazoi hauen inguruan galdegitean honela mintzo da Artzen Letona, *Irulegiko Irratiko* koordinatzailea (komunikazio pertsonala, 2021):

"Baduzu bi aukera, baduzu tipo bat euskara dakina baina mami gutxi duna edo baduzu tipo bat frantsesa, non gaia menperatzen duena eta mamia daukan [...] saiatzen dugu euskaldun bat bada, ba euskaldun batekin egitea, baina esaten dudan aurreko adibidea hartuta da beti, mamiaren aldetik ere jun behar gara gauza baten bila, baldin badugu bat euskaraz, ez badigu beste munduko gauzarik kontaktzen ongi da, bai, euskara entzun dugu, euskaraz da, baina informatzeko gaude hor [...] Gero, egiten badugu dena euskaraz ere ba azkenean gertatzen da beti ber jendearen inguruan gelditzen garela eta interesa dauka ere ba beste ikuspegi batzuk eta beste jende batzuen entzutea".

Horrez gain, Letonak (komunikazio pertsonala, 2021) irрати batetik bestera erabilitako euskararen proportzioa lurraldean dagoen jendearen eta euskarazko azpiegituren kantitatearen arabera dela dio,

“Lapurdin euskaldunak aurkitzea errexera da, ez dakit zenbat herri dauden, ez dakit zenbat ikastola dagoen, badituzte hiru kolegio, lizeo bat eta horien artean aparte ere elebidun sailak eta beste. Hemen, Garazin, Irulegiko Irratiaren buruan, bai, badugu Arberoa, badugu Baigorri, hor ikastola berria, baina Amikuzeren kasuan, hor ikastola bakarra dago, beraz, zailagoa da. Xiberoko Botzaren kasua hartzen badut, biztanlegoa ere, Xiberuan 10.000 biztanle daudela uste [...] Horregatik eremuak ere egiten du desberdintasuna, Xiberuan 15.000 eta Antxetak herri bakar batean dauka kasi 10.000 biztanle [...] dxeta adibidez, Gure Irratia aipatzeko, haiek euskara bakarrik sartzen dute, Irulegiko Irratian frantses pixkat sartzen da, Xiberoko Botzan pixkat gehio eta Amikuzeko Irratian Xiberoko Botzan bezala.”

Bestalde, euskaldunen kopurua apalduz joan dela ohartarazi du Pantxika Arranbide langile ohiak (komunikazio pertsonala, 2021) eta horrekin bat jendeak nolabaiteko konplexu bat hartu duela euskara hitz egiterakoan. Jone Barnetxek eta Jojo Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021) ildo beretik, azpimarratzen dute euskaldunak aurkitzea– eta aurkitzerakoan, hauek euskaraz hizketan jartzea – zaila dela bereziki elkarrizketa teknikoak direnean, medikuntzaz esaterako. Azkenik, elkarrizketatutako irratiko langile guztiak datoz bat mezua lurraldearen garapenarentzat informazio garrantzitsuak dituzten eragileengandik etorri behar dela zuzenean, hots, alkate, auzapez edota hautetsiengandik.

Euskararen proportzioaren eta erabilitako euskalkiaren gaira itzuliz, kontutan izan behar da gaur egun irratien programazioaren %80a *Euskal Irratietan* bildurik emititzen dutela eta tarte horietarako lantzen duten edukia %100ean dela euskaraz. Hori horrela, gelditzen den %20ean bakarrik, tokiko programazioetan, sartzen dute frantsesa. Hara zelan azaltzen duen hori guztia Letonak (komunikazio pertsonala, 2021), “*Gure bizkar-hezurra, edo hori, egina da bi gauza ezberdinetan, daukagu eguneko gaiak eta gero kronikak eta kronika horiek euskara hutsean. Gero, eguneko gaiak eta aktualitateari lotutako gaiak, ba jendearen arabera*”. Baina ez da nafarro-lapurterra bakarrik entzuten, honela mintzo da horren gainean Arranbide (komunikazio pertsonala, 2021)

“[Euskal Irratiekin emititzean] Xiberutarra entzuten baita edo Antxeta Irratikoekin Gipuzkera entzuten baita, Nafartarrak ere baditugu gure artean edo Bizkaitarra ere noizbehinka... pixka bat euskara mota guztiak ezagutu eta, adibidez, erran nahi dizut, txikitatik Urepelen “ados” errateko “accord” erraiten zen eta ikastolen bidez edo irratien bidez edo, holako hitzak orokortu dira, gaurkotu dira, eta denek erabiltzen ditugu eta denek ezagutzen ditugu, hara, eta uste dut Irulegiko Irratiak hortan laguntzen duen ere, pixka bat euskararen hiztegia aberasten eta euskalki mota desberdinak ezagutarazten”.

Interesgarria da gainera, euskararen aldeko oreka hau mantentzeko zer nolako estrategiak jartzen dituzten praktikan. Lehenik eta behin, euskaradun bat bada ausartzen ez dena euskaraz elkarrizketa bat mantentzen, bizpahiru minutuko entsegua egiten dute hasierako “ezjakinaren konplexu” hori gainetik kentzeko. Elkarrizketatua euskalduna ez bada, *Xiberoko Botzan* hasi zirena egiten (*Amikuzeko Irratian* ere egiten dute) eta hortik Letonak *Irulegiko Irratian* ezarritakoa jartzen dute martxan: elkarrizketatzaileak euskaraz zein frantsesez egitea galderak eta gero soinu montaketan frantsesezko



parteak moztea horrela erantzuna frantsesez bada ere galdera euskaraz entzuten delako (komunikazio pertsonala, Barentxe eta Letona: 2021). Korte hori ez baldin bada luzeegia horren gainean egiten dute euskarazko bikoizketa. Hala ere, denbora eta errekurtsio edo ahalmen faltagatik askotan ezin ezaten dute bikoizketa egin, baita korte hori luzeegia bada ez delako oso entzungarria egiten (Barnetxe, komunikazio pertsonala: 2021). Azkenik, oreka hau ez dute elkarrizketetan bakarrik mantentzen zeinetan 5 egunetatik 3 gutxienez saiatzen diren euskaraz izaten, arlo musikalean ere euskarak du lehentasuna, Letonak aitortu digunez 3 abestitatik 2 euskaraz dira eta bat erdaraz. Esan beharra dago, kuriositate moduan bada ere, *Euskal Irratietan* emititzen dutelarik musika zabalago bat jartzen duten bitartean, tokiko programazioetan Baxe-Nafarroako artistak pasatzen saiatzen direla.

### **Etorkizunerako erronkak:**

Euskararen gainbehera nabaria da Baxe-Nafarroan. Letonak azaltzen digu (komunikazio pertsonala, 2021) belaunaldi oso bat dagoela, 40 urtetik gorakoak, euskarazko transmisioa egin ez dutenak eta horien seme-alabak izango direla laster aktore lurralde horretan. Ezer finkaturik ez daukaten arren, erronkak aipatze aldera hurrengo txertatzen du, *“euskaldunak gutxiago baldin badira behintzat gutxienez kazetari bezala, animatzaile bezala, ez hizkuntza horiek baliatzea [...] ez bada euskaldunak ba saiatzea eta gu euskaraz aritzea beti”*. Alabaina, Bidarten esanetan (komunikazio pertsonala, 2021) ez dira euskal-hiztun soslaiak dutenak *Irulegiko Irratiko* entzule bakarrak, euskara-hartzaile eta euskaldunak ez direnak ere entzuten dute irratia, beraz, interesgarria izan liteke soslai honetako jendea erakartzeko estrategien pentsatzea.

## **3.2 Finantzazioa**

*Irulegiko Irratiaren* egoera finantzario egonkortuz joan da urteetan zehar. Hasierako urtean, Bidartek kontaktzen digunez (komunikazio pertsonala, 2021), irratia sortu zutenak baliabide oso gutxirekin hasi ziren, Menta etxaldeko ganbaran, antena teilatuan, ia dirurik gabe eta bigarren eskuko materialaz jabetzen. *Irulegiko (Herri) Irratiko* lehen transmisorea izan ere, *Radio Adourreko* teknikariak lagundu zien egiten eta entseguak egiteko transmisorea, *Gure Irratian* zebilen Ernest Hirigoienek eman zien. Baliabide gutxi bai, baina gogoz eta imajinazioz beterik ekin zioten bideari. Babesa erakusteko irratia eta honek aurrera jarrai dezan, *Herri Taldeak* izeneko mugimenduak diru-bilketa bat egin zuen Jojo Bidart-i emateko. Honela bilakatu zen bera *Irulegiko Irratiko* lehen soldatapeko langilea, hasieran lanaldi erdian, lanaldi oso batek baino ordu gehiago sartzen bazuen ere, eta bizpahiru hilabete geroago heldu ziren lehen dossierrak lanpostu lagunduak izateko. Borborka zeuden Baxe-Nafarroa osoan euskalgintzaren

aldeko mugimenduak eta orduan ziren abiatu gaur egun diharduten egitura asko (Ikastolak etab.), hauek ekonomikoki babesteko parte hartze ekonomiko bat izan zen lurralde osoan, honela azaldu digu Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021), *“Parte hartze ekonomiko hortan kanpaina bat egin ginuen zabaltzeko, ez bakarrik hastapeneko lagun taldea baizik eta Baxe-Nafarroan eta lagundu nahi zutenak, zeren eta gauza asko ziran abiatu: ikastolak, baziren lurzaindia... asko talde baiziren molde hortan funtzionatzen zutenak eta irratia ere horren bitartez”*. Oro bat, hasierako urtean hasi ziren ere gaur egun oraindik diharduen etxez-etxe kanpainarekin, otsaila zen, aratuste garaia eta gau batez antena lapurtu zieten, *Berriak* (2020-2-2) Bidart-i eginiko elkarrizketa bati esker jakin izan dugu, uneko testigantzen arabera, jendarmeen autoa izan zela inguruan azken ikusi omen zutena. Esan bezala, aratuste garaia zenez, irratian zebilen kide batek iraganeko inauterietan etxez-etxe egiten zen diru-bilketa antzeko bat egitea proposatu zuen. Horrela abiatu zen kanpaina, gero herri batetik bestera eta gero festa komiteak lotu ziren horri eta ordurik, aurrera egin du kanpainak urtero urtero (Bidart, komunikazio pertsonala: 2021). Sortu eta 5-6 urteren buruan – 1986 inguruan – heldu zen ere *F.S.E.R-etik* urtero emango zitzairen diru laguntza. 1996an, beste aldaketa handi bat bizi izan zuten *Garapen Kontseiluaren* sortzearekin. Jean-Baptiste Battistu Coyos-en lanean irakurri daitekeenez *Euskal Herriko Garapen Kontseiluak* eta *Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak* lau urteko gogoetak aurkeztu zituzten eta finantzamendurik gabeko egitarau bat bazen ere *Euskal Herriko Hitzarmen Bereziari* egin zion bidea, lehen finantzabide publikoari.

“Gero, diru mailan aldaketa handi bat ere izan da, 96an izan baita Garapen Kontseilua, orduan sortu zen. Gero, hautetsien kontseilua eta geroztik sortu da urte ainitzen buruan elkargoa eta hori. Bainan 96an hasi ziren, hautetsien artian eta gizarte zibilean, proiektuak aztertzen iparralde maila – ea ze nolongo proiektuak behar diren – eta horietan sartu zen beraz Euskal Irratien arteko proiektu bat. Hola sortu zen Euskal Irratiak Federazioa eta diruz lagundua izan zen ere molde horretan instituzio horien bidez.” (Coyos, 2006: 992).

Hastapeneko urteetan, finantzazioaren erdia kirol-elkarte, sindikatu eta kultur elkarteetatik zetorren eta beste erdia herriko jaietan bildutakoarengandik eta udalen diru laguntza publikoengandik (Muguruza, 1998; hemen aipatuta: Jakobe Palazio, 2000). Aipatzekoa da ere, *Gure Irratiko*en tankeran, *Irulegiko Irratikoak* ere baliatu zirela hileroko harpidetza-sistemaz, eta egun arrunt baino arruntagoa egiten bazaigu ere, nahiko neurri aurrerakoia zen finantzabide metodo hori garai haietarako (Cheval, 1992). 1992an jadanik 50 harpidedun zituzten (Ibid.). 1994ean aurrekontuen %40a etxez-etxe kanpainatik zetorren, %30a diru publikotik – Nafarroa Behereko 78 herritik 40 bat herrik bideratzen zieten diru-laguntza irratikoei – %10 Euskal Kultur Erakundetik eta gainontzeko %20a beste iturri txiki batzuetatik (Jakobe Palazio, 2000: 30). 2001ean, Chevalen arabera, hiru euskal irratien aurrekontuen %40-%45


F.S.E.R irrati adierazpenerako sostengu fondoetatik zetorren eta urte horretan bertan egoitza berria erosteko kanpainarekin hasi ziren eta lortu ere. Etxebizitza arrunt bat erreformatu zuten estudio, bulego eta batzar geletan. 2005ean, Luzien Etxezarretari esker azaltzen zuen, aurrekontuen %30 zetorrela etxez-etxeko kanpainatik, 4.500 bat etxetatik (2009: 233). Hortik eta hiru urtera, 2007an, entzuleen artean biltzen zen diruak aurrekontuen laurdena betetzen zuen (Argia, 2007ko martxoak 4) 300 pertsonen laguntzarekin diru-bilketa egiten 70 herritan.

### **Gaur egun**

Gaur den egunean *Irulegiko Irratikoei* galdeginez gero pairatzen duten egoera ekonimikoaz bi hitz gailentzen dute: egonkorra baina zaila. Barnetxek aditzera ematen duenez (komunikazio pertsonala, 2021), jendea kaleratu behar izan zuten bizpahiru urtetako zuloak estaltze aldera, honela dio, “*Duela zorbait urte finantza aldetik Irulegiko Irratia gaizki zen eta horren... pixka bat zilo horren betetzeko edo... langileak joaiten zirelarik ez ziren ordezkutzen beraz ekipa ere pixka bat murriztu dugu azken urte hauetan [...] eta hori ez da zinez marka ona*”. Arrazoi gehiago egon daitezkeen arren, Arranbide eta Barnetxe (komunikazio pertsonala, 2021) bat datoz egoera ekonomikoak txarrerantz egin zuela une batez, *Piztu* elkarteak eta *Irulegiko Irratiak* sortu zuten *Euskal Herria Zuzenean* festibalaren antolatzaile izateari utzi ziotenean. Irratikoei laguntzaile sare handi bat ekartzen zioten festibalari eta trukean hauek langile bat ordaintzen zioten. Galdu zuten beste diru iturri bat *Euskal Kultur Erakundearena* izan zen, jadanik jasotzen ez dutena. Edozelan, egoera egonkorrago baten dago gaur egun irratia eta bide horretan doazela dio Barnetxek (komunikazio pertsonala, 2021).

Gaur egungo diru iturrietan zentratuz, 1. grafikoan ikusi dezakegu *Irulegiko Irratiko* aurrekontuak diru-iturri bakoitzak daukan pisu erlatiboa.

1. Grafikoa.



Iturria: Autoreak egina elkarrizketetako datuetan oinarrituz

Aitzinean sakonago azaldu bezala, aurrekontuen parterik handiena *Fonds de Soutien à l'Expression Radiophonique Irrati-Adierazpenerako Sostengu Fondo-etatik* – edo F.S.E.R-etik – dator eta hau dute funtsezko diru sarrera, funtsezko beharrianak, soldatak esate baterako, estaltzen dituenak. Pantxika Arranbidek honela ematen digu honen berri (komunikazio pertsonala, 2021), “*Frantzia mailan bada horrelako sistema bat irrati haundiek, komertzialek, publizitate anitz egiten duten irratiek, zerga bat ordaintzen diote Kultura Ministeritzari eta zerga horren bidez ministeritzak dirua banatzen die irrati libreei edo elkarte libreei, gu bezalako irratiei, eta txostenak egin behar dira eta hauen bidez notatua da eta notaren arabera gure lana justifikatu behar dugu, urte guzian egin den lana eta nota atertzen baldin bada notaren ba araberako diru laguntzak.*” Urtero legez eta publikatutako txostenean adierazita dagoenez, 2020. urtean 68.085€-ko esleipena egin zitzaion *Irulegiko Irratiari* funtzionamendurako diru-laguntza, irrati-ekintzetarako diru laguntza selektiboa eta ekipamenduarentzako diru-laguntza bilduta, azken hau 1.810€-koa, (*Fonds de Soutien à l'expression Radiophonique, Rapport d'activité: 2020*) 5 urterik behin eskatu daitekeena materialaren berrikuntzaren parte bat ordaintzeko. Bigarren diru-sarrerarik handiena otsailean egiten duten etxez-etxeko kanpaina da, baita garrantzitsuena irrati-ko langileentzat. Kanpaina burutzeko urtero bilatzen dituzte herriz-herri eta etxez-etxe joango diren laguntzaileak dirua biltzen. Kanpaina hau arrakastatsua izan da betidanik nahiz eta azkeneko urte hauetan kanpaina hori burutzeko laguntzaileen bilaketa geroz eta zailagoa izan, Letonak hitzetan (komunikazio pertsonala, 2021), gehien bat Amikuzeko eskualdean. Arranbidek ezagutzera eman

digunez (komunikazio pertsonala, 2021), 2020. urteko kanpaina, pandemia garaian, 40.000 € eskuratu zuten.

Iragarki (enpresenak) eta soinu dei asko (elkarteenak) ere baditu *Irulegiko Irratiak*, aurrekontuaren %10 betetzen dutenak eta nahiko merke direnak (Ibid.). Irratikoek ohartarazi dutenez, azken urte hauetan arlo honetan ere egon da beherakada bat gehien bat gazteen artean ez baitira zerbitzu horretaz baliatzen haien mezuak zabaltzeko, herriko festetan adibidez, nahiago dutelako sare sozialen bidez egitea askotan. Ildo beretik jarraiki, oraindik daukate ere hastapenean ezarritako harpidetza sistema 7€-tik 20€-ra bitartekoa (Jone Barentxe, komunikazio pertsonala: 2021). Gainera, interes generaleko (d'interes general) irratia denez, harpideduna izanagatik, dohaintzan ematen duzun erdia baino gehiago aurreztu dezakezu zergetan, "*inposetan, emaiten duzunaren %60 edo %66a, 10 euroren gainean errealki 6 euro kentzen ahal dituzu eta 4 euro gelditzen zaizkizu zure sakeletik emaitako*" (Ibid.). *Euskararen Erakunde Publikotik – E.E.P-ak* – ere jasotzen dute diru-laguntza bat, Arranbideren esanetan (komunikazio pertsonala, 2021) %5ekoa gutxi gora behera. Diru laguntza hau, *Euskal Irratiei* ematen zaie eta hango lanpostuak behin ordainduta (erredaktore burua, animazio arduraduna eta koordinatzaile ekonomiko bat) geratzen dena *Euskal Irratiei* ematen zaie (Ibid.). Azkenik, herriko etxe batzuek ere egiten dute haien ekarpena.

### **Etorkizuneko erronkak:**

Finantzazioari dagokionez, ez dago bere momenturik txarrean *Irulegiko Irratia*, talde egonkorra dute eta diru aldetik ez daude gaizki. Hala ere, elkarriketatu ia guztiek azpimarratu dute (Arranbide, Barnetxe eta Letona, komunikazio pertsonalak: 2021) elkarte mundua kenka txarrean dagoela, denek eskatzen eta behar baitute jendearen parte-hartze ekonomikoa. Honi gehitu behar zaio, gazteen dinamika murriztuz joan dela urteetan zehar eta sare sozialak gailenduz. Hala, gazteak orduan eta gutxiago baliatzen dira irratiaz, hor beste iturri bat ere galduz, baina baita sartzeko ordurarte izan duten ahalmena ere. Hori horrela, egitura publikoen laguntza finantzario handiagoa beharrezkoa da, baina baita diru-iturri berriak lortzeko estrategien inguruan hausnartzea. Gainera, etxez-etxeko kanpainatik ateratzen duten dirua txikituz doa eta oraindik ondo diharduten arren, geroari begira, alternatiba berriak aurkitzeko etorkizuneko egonkortasuna bermatuko luke baina baita gazteak erakarriko lituzkeen proiektuen ekiteak ere.

### **3.3 Hedapen-Eremua**

Jadanik aipatu bezala, irratiko lehen egoitza Mentako etxaldea zen, Mikel Erramuzperena, *Irulegiko Irratiko* lehen presidentearena. 40. urteurrenean eginiko irratsaio batean azaltzen dutenez, Jojo Bidartek

Baigorriko festetan hitz egin zuen Mikel Erramuzperekir irratia bat sortzearen inguruan. Asko gustatu zitzaion ideia eta Mentara igo zirenean ohartu ziren handik, alde batetik, Baigorriko eta bestetik, Garaziko ibarrak ikusten zirela eta ahal gutxirekin hedapen nahiko zabala izan ahalko zutela (Jojo, 2021ko maiatzak 10). *Radio Adourreko* teknikariak lagundu ziren lehen transmisorea egiten eta bera arduratzen zen ere antenaz, teilatua gainean ezarrita zegoenaz. Handik gutxira, Jojo Bidart Jakes Aurnage kontseilari abertzalearekin batzartu eta euskara galtze prozesuan zegoela oharturik zera esan zion, *“Behar duzue antena gorago ezarri, jende gehiagok entzun dezan”* (Berria, 2020ko otsailak 2) eta horrela, 1987an estudioa Garazira eraman eta antena Jara kaskoan jarri zuten (Jakobe Palazio, 2000) ia Nafarroa Behere osoa estaltzen zuena. Honela dakar gogora une hau Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021), *“etxearen teilatua ezarriak ginuen antena eta orduan hortik eremua, ukitzen ginuen eremua, mugatua zen bainan ikusten zen Baigorriko herria, bere ibarra, herriko partea hasteko, eta Garazi aldea. Gero, zombait urteren buruan, jarri ginuen antena ondoko mendian eta mendi hortaik ikusten da ia Baxe-Nafarroko parte handi bat, Lapurdi barnealdeko parte bat ere eta hor, gure hedapena aixe handiagoa izan zen antena horren bitartez.”*. 2001ean dagoeneko Nafarroa Beherea osoa estaltzen zuen irratia eta baita Lapurdi barnealdeko iparraldea eta B-A-M (Biarritz-Angelu-Miarritze) (Zuberogoitia, 2003) Aiherran, Donapaleun, eta Alduden zituzten errepikagailuei esker.

### **Gaur egun**

Ezin da konparatu ere egin lehenengo urteetako hedapen-eremua gaur egungoarekin. Zinez, haien eragin-eremua Baxe-Nafarroa da baina Lapurdiko kostaldea, Zuberoako parte batzuk, Biarno eta Landesetako parte handi bateraino iristen dira. Bitxikeria moduan, Jone Barnetxeren esanetan (komunikazio pertsonala, 2021) egun batzuetan, Lannemezaneko presondegian (Donibane Garazitik 130 km) dagoen preso batek irratia harrapatzen duela aitortu digu. Bestalde, internet bidez ere entzun daitekeenez irratia, diasporako entzuleak ere dituzte. Itzalgunerik ere bada gaur, Oztibarren esate baterako (Arranbide, komunikazio pertsonala: 2021). Lau 4 frekuentzian emititzen dute leku desberdinetan kokatuta dauden antena nagusia eta hiru errepikagailuren bitartez: Jara Mendian (91,8Mhz) 816m, Adluden Okoro Mendian (100,7Mhz) 531m, Donapaleun (94,2 Mhz) 305m eta Aiherran (97,5Mhz) 183m (CSA).

### **Etorkizuneko erronkak:**

Hedapen eremuari dagokionez, hurbiltasunean irabazi dutenez *Amikuzeko Irratiaren* sortzearekin, Letonak (komunikazio pertsonala, 2021) baikortzat jotzen du Hazparne eskualdean beste irratia edo adar

baten sortzeak, eremua azkartuz horrela. Modu berean, internet sarearen eskaintza hobea izatekotan, horrek diasporako entzule gehiago erakarriko luke. Azkenik, Oztibarreko itzalgunea ezabatuz lurralde ia osoko hedapen-eremua lortuko lukete.

### 3.4. Soslaia

Baxe-Nafarroan oso ezagunak dira irratiko lehen sortzaileen izenak, batik bat, Jojo Bidart, Bernadette Argain, Pantzo Hirigarai, Argitxu Kantero eta Maria Agnes Gorostiaga. Molde honetan mintzo da Barnetxe lehenengo belaunaldikoetaz (komunikazio pertsonala, 2021), *“Irratilaria ezagunak, lehen belaunaldi hortako irratilariak, hemen den-denek ezagutzen zituzten eta dituzte [...] ene ustez entzuleari galdegiten baldin badakozu orain nor ezagutzen duen Irulegiko Irratitik eta nahiz eta erretretan diren, beti aterako ditu Pantzo, Jojo, Bernadette, Argitxu edo Marie Agnès... horiek marka utzi dute eta marka utziko dute”*. Hasierako belaunaldi horretako soslaia erdigunean jarritz, inork ez zeukan irratigintzan ikasketarik, irratian bertan formatu ziren guztiak, hasieran barne formakuntzak eginez eta gero urteekin kanpokoak. Bidarten hitzetan irratia osatu zuten hasierako pertsonak, *“alde batetik, interesatuak bai euskararen presentziagatik eta euskararen tokia zelakotz irratian, gero, komunikabide trena berri bat zelakotz eta tokiko komunikabide parte hartzailea nahi zutelakotz [...] Ziren jende aurrerakoiak, euskaltzaleak gehienak, kasi guztiak, eta militanteak ere franko. Orduan, definitzeko nahi baduzu, egia da, labor erraiteko, bai, abertzaleak ginela baina ez ginuen eta ez dugu irratia egiten abertzaleendako”*. Lan handia burutu behar izan zuen hasierako taldeak, askotan haien orduetatik kanpo lan eginez baina Arranbidek aitortu digunez horrek polibalentagoak izatera bultzatzen zituen, honela dio, *“Lehen denetarik gehiago egiten genuen, orai pixkat profesionalizatu gira eta bakoitzak baditu bere atalak, animazioa egiten dutenak edo kazetaritzan ibiltzen direnak. Hau azken 10 urteetan asko sentitu da, bereizketa hori lehen etzana [...] nahiz eta denetarik egiten jakin behar dugun.”* (komunikazio pertsonala, 2021).

Hainbat aldiz esan bezala, herriko jendeen eta laguntzaileen parte hartzea izan da Irulegiko Irratiaren elementu bereizgarri bat hots, sostengu-kanpainetan, emankizunetan eta administrazio kontseiluan ere. Herritarren parte-hartzea beti egon da erdigunean, sortze unetik. Irulegiko Irratiak 1991an CSA-ri aurkezturiko txostenean adierazita zegoen, *“Boluntarioak funtsezkoak dira irratia funtzionamenduan eta ziurtatzen dugu profesionalizazio handiagora bideraturiko helburuek ez dutela boluntarioen ekimenekin amaituko”* (Cheval, 2000). Hori horrela, harritzekoa da langile kopuruarekin konparatuz zeren besteko boluntario kopurua izan duen urteetan zehar. Hasieran, Bidartek kontatu digunez irratiko

lan guztiak boluntarioen artean egiten zituzten, hasierako emankizunentzat lan taldeetan biltzen ziren eta lan-talde bakoitzak bere saioa prestatzen zuen. 20-30 inguru ziren 7 edo 8 oso inplikatuak .

Lan taldea egonkortuz joan zen eta 1983an edo 1984an bigarren denbora erdiko lanpostu bat sortu zuten eta ondoko urtean beste bat. 1992an 3 soldatapeko (Jojo Bidart, Argitxu Kantero eta Pantzo Hirigarai) eta 40 laguntzaile zituen irratiak, hamarkada bat lehenago baino bi aldiz gehiago (Cheval, 1992). 2001ean bederatzi langile zeukan irratiak, nahiz eta ez denak egon lanaldi osoan, 80 boluntario (Zuberogoitia, 2003), eta ondoko urtean beste langile bat kontratatu zuten<sup>8</sup> (Arranbide, komunikazio pertsonala: 2021). Jadanik aipatuta ere, irratiako lehen presidentea Mikel Erramuzpe izan zen, ostean Peio Zedarri (Erramuzpe eta Zedarri, 2021eko maiatzaren 11a). Datuen arabera, 2013an 9 soldatapeko zeuden (Bidegain et. al., 2013). 2015ean zazpi pertsonak zeukaten soldata, sei denbora osoz eta bat denbora erdiz, 4 emakume eta 3 gizon<sup>9</sup> (Bidegain et. al., 2015). Aipatzekoa da hala ere, 2010etik 2015era ezin izan zutela inolako kontrataziorik egin. Egoera ekonomiko kaxkarra zela eta langile bat *Gure Irratira* bideratu zuten soldata hori aurrezteko. Krisi ekonomiko honek irratiako langileen baldintzetan ere izan zuen eragina aipatutako lan orduz gain geratu beharraz aparte herritarren parte hartzea txikituz eta lan administratiboa kazetarien gain geratuz joan zen (Ibid.).

### **Gaur egun:**

Hasierako lan taldeko gehienak duela gutxi erretiratu dira eta esan daiteke erabateko belaunaldi aldaketa bat egon dela irratian. 2022. urte honetan talde aski egonkorra osatzen dute irratiakoek (Barnetxe, komunikazio pertsonala: 2021), 7 pertsona ari dira orotara lanean, 3 emakume eta 4 gizon, 6 *Irulegiko Irratian* eta 1 *Amikuzeko Irratian*, lanaldi osoan guztiak, helduenak 54 urte ditu eta gazteenak 21. Lanpostuak aipatze aldera 4 animatzaile daude, 2 kazetari eta beste animatzaile bat kazetari lanetan ere aritzen dena (Letona, komunikazio pertsonala: 2021). Gehienak Baxe Nafartarrak badira ere, xiberotar eta iruñear bat ere badaude. Langileen artean ez da kazetaritza ikasketa formalik egin dituenik. *“Ez ditugu diplomak baitaetzpada xekatzen, [...] lekuko gazteak nahi ditugu, lurraldea ezagutzen dutenak eta euskara menperatzen dutenak, holakorik ez ditugu aurkituko kazetaritza edo animatzaile eskola egin dituztenak, ezta, oso gutxi dira. Hemen jada ez da kazetaritza eskolarik, hegoaldean da bakarrik, eta animatzaile eskolarik ere ez da beraz, hara, lekuko jendea nik erran nezake, euskaldunak, lurraldeak*

---

<sup>8</sup> Pantxika Arranbidek ere berresten du sartu zenean 60 boluntariotik gorako kopurua zegoela (komunikazio pertsonala, 2021).

<sup>9</sup> Gainera, Ipar Euskal Herriko Komunikabideetariko bigarren lan-talde handiena zeukaten Ttipi Tappa aldizkariaren atzetik (Ibid.).



*ezagutzen dutenak eta motibatuak izan behar dute eta badira*". (Arranbide, komunikazio pertsonala: 2021). Letonaren hitzetan (komunikazio pertsonala, 2021) egiten duten irratia espektakulu bat bezalakoa da (eta izan da, hasieratik izan baitituzte esperientziak antzerkian, jolasetan eta molde horretako emankizunetan) eta soslai horretako jendea da irratia beste bereizgarrietariko bat. Aitzitik, oraindik ere laguntzaile sare handi bat badute ere – 40 inguru – Arranbideren esanetan kopuru hori murriztuz doa eta zaila zaie laguntzaile berriak aurkitzea, bereziki etxex-etxeko kanpaina aurrera eramateko (komunikazio pertsonala: 2021). Barnetxek zein Arranbidek adierazi legez eta beste arrazoi batzuren artean, hau irratikoen profesionalizazioarekin bat etorri da, bestela esanda, laguntzaileen parte hartzea txikitzen joan dela langileen emendatzearekin eta gaur den egunean musika emankizunak eta kirol zein herrietako berriak ematen dituzte, ez ordea emankizun osoak ez tematikoak (komunikazio pertsonala, 2021). Bestalde, bilatzen duten perfileko jendea aurkitzea errazagoa bada ere, hauek irratian gelditzea zaila dela adierazi dute Barnetxe, Arranbide eta Letonak (komunikazio pertsonala, 2021). Arrazoen artean hurrengoak aipatu izan dituzte: lan baldintza gogorrak (oso goiz hasi beharra edo berandu bukatu beharra, kanpaina egunetan edo bestelako egun garrantzitsuetan orduz kanpo lan egin beharra edota asteburuetakako permanentziak) eta soldata xumeak (1800€ eta 2000€ bitartekoak). Honen harira, Barentxek hurrengoa aldarrikatzen du (komunikazio pertsonala, 2021),

“Beste gauza baikor batzuk behar dira esplikatuta hilabete sariaz gain Irulegiko Irratian lan egiten duzularik. Erran nahi baita, barnekaldean egoiteko posibilitatea, euskaraz murgildua izateko posibilitatea, [...] gauza ainitz balorizatu eta presiatu behar dira eta bigarren maila batian ezarri, karrera haundi bat egiteko ordez [...] Herritarren duzun hurbiltasun hori jendearekin, euskara bizitzeko manera ikaragarria da irratia, informazio gune ikaragarria dela irratia eta kultur gune ikaragarria ere dira hemen eta horiek zinez balorizatu behar diren gauzak direla, ez da bakarrik hilabete saria”.

### **Etorkizuneko erronkak:**

Langile formatuak aurkitzeko edota behin formatuak direlarik hauek irratian bertan lanean jarraitzeko zailtasunak dituzte irratikoek. Hori horrela, irtenbide bat litzake, *Xiberoko Botzakoek* egin legez (Letona, komunikazio pertsonala: 2021), udako langileen lanpostuentzat aurrekontu bat izatea. Horrela izanik, langile berriak edo ordezkapenak egiteko denboran eta errekurtsioetan aurreztuko lukete. Argitu beharra dago baita, laguntzaileen murrizketa ez dela *Irulegiko Irratian* soilik ematen den xehetasuna, baizik eta *Euskal Irrati* guztietan. Horregatik, beharrezkoa suertatzen da denen arteko gogoeta bultzatzea errealitate sozio-demografiko berriei egokitu ahal izateko

### 3.5 Mugarriak

Mugarrien inguruan galdegitean, Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021) gogora ekartzen duen lehena, hastapen-hastapenean sortu ziren zalantzetatik (batzuk pentsatu zuten irratia ez zela legala) eta mesfidantzatik ateratzea (esate baterako egunkari batek Gadafik finantzatzen zituela iradokitzen zuen) izan zela dio gehituz hasierako egoera horrek ez zuela askorik iraun. XX. mende hasiera horretan beste lau aipatzen zituen. Lehenengoa Irulegiko Menta etxealdetik Jara mendi kaskora antenna eramatea, horrela hedapen-eremua esponentzialki zabalduz. Horrekin lotuta bigarrena, Garazira estudioa eramatea jendearengandik hurbilago egon zezaten. Hirugarrena, 1987an etxez-etxeko kanpainaren abiatzea eta azkena 1996an *Piztu* elkartearekin abiatutako *Arrosa* festibala (Zuberogoitia, 2003: 368). Beste batzuk ere aipatu izan dizkigu guri, batik bat, soldatapekoen sartzea, herritarrei gai baten inguruan lurraldean bertan zer nolako ikuspegia dagoen ezagutzera ematea, baita gauzak egin ahal direla bertatik, eta Euskal Irratiak Federazioaren bitartez programazio aberatsago bat eskaintzea Ipar Euskal Herri mailan (komunikazio pertsonala, 2021). Argian argitaraturiko elkarrizketa batean (1.832. zenbakia, 2001eko abenduak 2: 21): *Irulegiko Irratiako* Pantzo Hirigarai esatariaren ustez, irratia beste lorpen bat, luzez belaunaldiei buruan sartuta gero euskara hizkuntza minorizatua zela, baliorik gabea, euskaldunen aurkako estereotipoekin edo “konplexuekin” apurtzea izan da – berdina dio Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021) – euskaraz komunikatu eta bizi ahal dela frogatzean, euskarari “bere ofizialtasuna” ekarri diola irratia. Jakobe Palazioren (2000) lanean ageri denez, “*isolamendu esklerotikorantzko*” joera gutxien zeukan irratia zen *Irulegiko Irratia* Pirinio hegoaldeko irratiei (*Xorroxin Irratia, Euskal Herria Irratia...*) zabaldu zirelako estatu frantses osoko eta eskualdeetako irratien arteko harremanak sortzen, paper garrantzitsua izan zuelako. Mende hasierako urteetan bi proiektu zeukaten zerumugan: Garazin bertan grabaketa-estudio gehiago daukan eraikin batera lekualdatzea eta Donapaleun bulego-estudio txiki bat irekitzea (Zuberogoitia, 2003: 412).

#### Gaur egun

Zerumugan zituzten proiektuak burutzea lortu dute Irulegiko Irratikoek. Alde batetik, Donapaleun ez dute lortu bulego-estudio bat bakarrik izatea baizik eta frekuentzia oso bat Amikuzeko eremu osoa estaltzen duena eta horrekin hurbiltasunean irabazi dute (Barnetxe, komunikazio pertsonala: 2021). Bestalde, Garazin kokatuta dagoen 5-6 estudioko etxe batean daukate irratia, aurrekoak 2 baino ez zituen, eta lan egitea errazagoa zaie (Ibid.). Arranbidek honako hauek aipatzen ditu (komunikazio pertsonala, 2021), “*euskalki desberdinak ezagutaraztea, egunerokotasunean euskaraz bizitzen ahal dela*

*jakinaraztea, ulertaraztea, eta nik uste, podere publikoek ere aldatu dute jokamoldez*". Urrenez urren, zera gehitzen du, *"Atzematen dut profesionalizatu garela emeki-emeki eta zinezko gauza serioak eta interesgarriak proposatu ditugula. Lehen ere baziren, bistan dena, baina kopuruan emendatu ditugu [...] eta bilakatu gira zinezko irratia generalista bat, denendako zerbitzu ematen duen irratia bat eta ez bakarrik jokoak edo abisuak edo jolasak proposatzen dituen irratia bat"* (Ibid.). Azkenik, bai Arranbidek zein Barnetxek diote teknologia berriak heltzearekin bat haien lana zeharo errazagoa dela eta informazioa bilatzea errazagoa bilakatu denez, orain, informazio hori hobeto helarazi lezaketela (komunikazio pertsonalak, 2021).

### **Etorkizuneko erronkak:**

Berebiziko erronka garrantzitsu baten aurrean aurkitzen direla esaten du Bidartek (komunikazio pertsonala, 2021), batik bat, irratia erakargarria egitea gaur egungo gazteentzako, hau da, biharko euskaldunentzako. Horren harira Letonak gehitzen du (komunikazio pertsonala, 2021) hurbileko frantses irratiekin lehiatu ahal izateko, irratia deigarriagoa egiteko gazteentzat, baina ez bakarrik, eta aro berrietara egokitu ahal izateko haien "ikusitatea", komunikazioa eta teknologia berriak hobetu dutela.

### **3.6 MEZUA ETA HELBURUAK**

Bidarten esanetan, sortze unetik irratia ren helburua jendearen esku eta haiengandik hurbil egotea zen, *"Nahi dut atxiki dezan irratia parte hartzailearen estatusa: langileen, laguntzaileen eta entzuleen artekoa [...] herri irratia bat"* (Berria, 2020ko otsailak 2). Komunikazio tresna baten beharra zuten Ipar Euskal Herri barnealdetik eta barnealdearen gainean arituko zena, barnealdeko bizia sustatuko zuena, *"Euskal Herri barnealdea bizi dela erakusteko"*. Beste helburua, nola ez, euskara sustatzea, egoera txarrean baitzegoen eta honi *"merezki duen premiazko tokia eskaintzea komunikabideetan"* (Arrosa, 2006). Euskaraz aritzea izango da helburua, baina ez bakarrik. Horrela, pluralagoa izango zela uste baitzuten, inguruan biltzen ziren askok ez baitzekiten euskaraz eta manera estrategikoan herriko jende eta aktore esanguratsu gehiago barnebildu eta gonbidatu zitezkeen. Azkenik eta jada aipatu bezala, hizkuntzen-kohabitazioa ere jarri zuten erdigunean Euskal Irratien Federazioan bildu zirelarik. Urteek bere bidea egin zuten eta irratikoek hastapeneko oztopoak gaintzea lortu zuten, lantaldeak eratu zituzten gai ezberdinen inguruan hitz egiteko, talde bakoitzak gai bat lantzen zuen arratsaldeetan eta gero eguerdietan gizarte, haur, kultura, kirol eta laborantzazko gaien gainean solasten ziren (Bidart, komunikazio pertsonala: 2021). Kokalekuagatik, *Gure Irratian* baino laborantza emankizun gehiago egiten zuten, entzule baserriar kopuru handiagoa baitzegoen, baina baita entretenimendukoak ere

(NOR ikerketa taldea, 2000: 50). Gainera, *Gure Irratikoek* “adin eta lanbide ezberdinetako” publiko zabalago bati bideratzen ziren bitartean, *Irulegiko Irratiakoek* saioen aniztasunaren bitartez generazio desberdinetako pertsonak erakartzen zituzten; umeentzako hezkuntza-jolasak, genero ezberdinetako musika eta baita memoria kolektiboaren inguruko saioak eta abesti zaharrak jarriz (Cheval, 2002). *Irulegiko Irratiaren* programazioa hiru atalen inguruan antolatu zuten: informazio-programen, irratsaio kulturalen eta sormenezko programen inguruan (Jakobe Palazio, 2000: 30) Ipar Euskal Herrian zentratuz baina ere “*Euskal Herriaren ikuspegi bat ezagutaraztea jendeari, harremanak atxikitzea Nafartarrek, Irulegiko Irratiak beti ainitz obratu du Nafarroaren egunean eta pixka bat Nafar izpiritu hori*” (Arranbide, komunikazio pertsonala: 2021).

### **Gaur egungo egoera:**

Hasierako helburuak eta oraingoak, funtsean, berdinak jarraitzen dutela esaten baieztatu digute irratikoek (Arranbide eta Barnetxe, komunikazio pertsonalak: 2021) besteak beste, tokiko informazioa zabaltzen jarraitzea, edo bestela esanda, denen zerbitzuko den irrati orokorra izatea eta euskalgintzaren zerbitzuko den tresna bat izaten jarraitzea. Hori bai, soldatapekoan presentzia handiagoarekin, kantitatean zein kalitatean irabazi dute (Ibid.). Euskal Irratien Federazioan biltzen direnez Baxe Nafartarrei zuzentzen diren tarteak ez da oso handia, 4 ordu-4 ordu eta erdi bitartekoa Arranbidek azaldu digunez (Ibid.). Tarte horietan, Euskal Irratietatik bereizten dira eta lurraldeko berriak emateaz gain abisuak – laborantza munduari lotuak gehienak – ere emititzen dituzte. Letonak azaldu legez (komunikazio pertsonala, 2021), gaur egun gai “potoloak” *Euskal Irratiek* lantzen dituzte eta saiitzen direlarik gehiegi ez errepikatzen, haien tarteetan beste gai batzuk lantzen dituzte. Esan daiteke ere, arlo sozialak geroz eta esparru handiagoa hartzen joan arren, edukiaren parte inportante bat bideratzen dela baserri edo laborantza munduko entzuleari. Tankera honetan mintzo da Bidart *Irulegiko Irratiko* mezuaz (komunikazio pertsonala, 2021), “«*Geroa gure gain». Eskuetan hartu. Nahi dugu zerbait, nahi dugu, adibidez, eskuara mantendu, nahi dugu gure kultura izan dadin, nahi dugu zerbait berri egin ere, eta izan daiteke ekonomia edo sozial arloan, ba egin dezagun.*” Argi dauka gainera, euskalgintzaren esparruan darabilten ekimenengatik izango ez balitz, euskarak egun bizi duen gainbehera askoz handiagoa izango litzatekeela.

### **Etorkizuneko erronkak:**

Etorkizuneko helburuen artean Arranbidek (komunikazio pertsonala, 2021) bihurtu batean daudela aipatzen du zeren eta gazteek kontsumitzen duten zerbitzuetatik, *Tik Tok*, etab., oraindik urrun

daudelako. Izan ere, egokitzapen prozesu batetan daude, komunikabide sare handien aurrean lehiakortasuna mantendu ahal izateko. Horretarako, irudia sartzearen beharra dagoela ikusi dute irratikoek, baita haien irudiaren hobetzea eta freskatzea horrela jendeari eta hauen eskakizunei egokitu ahal izateko. Bestalde, irratigintzatik kanpo aritzearen beharra ikusi dute, batik bat, sare sozialetan lekua egitea edota irratsaioak beste formatu batean emititzeko beharra.

## 5. ONDORIOAK

Lan hau abiatzean esan dugunez, gure helburu nagusia ikerketa-gaiarekiko hurbilketa orokor bat egitea zen, ondoko ikerketentzat abiapuntu gisa balio lezakeena. Hala, Iparraldeko euskal irratien sorrera eta garapena kartografiatu ditugu, haien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak detektatuz, eta ondotik, Irulegiko Irratiaren historiaz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronken gaineko azterketa xehea egin dugu.

Lehen ondorio gisa, aipatu daiteke, gora-beherak eta krisialdiak izan badituzte ere *Gure Irratia* (1981), *Irulegiko Irratia* (1982) eta *Xiberoko Botza* (1982) – *ostean Antxeta Irratia* (2001) eta gazteena denetatik, *Amikuzeko Irratia* (2019)– tinko eta firme mantendu direla 40 urtetan zehar, eta gaur egun, oraindik, komunikazio tresna garrantzitsuak izaten jarraitzen dutela euskal komunitatearentzat.

Irulegiko Irratiaren kasuan, gure azterketan sei alderdi ikertu ditugu: 1) hizkuntza-hautua, 2) finantzazioa, 3) mugarrak, 4) hedapen-eremua, 5) soslaiak, 6) mezuak eta helburuak, bakoitzean, irratia sortu zenetik gaurdaino eman diren aldaketak eta garapena kontuan hartuz.

Hizkuntza-hautuari dagokionez, Irulegiko Irratiaren esperientziak frogatu du euskararen mesedean jokatu duen elebitasunean jardun daitekeela 40 urtez, erdarari leku testimonial bat eginez ahotsen pluraltasuna bermatzeko, baina haren nagusitasuna saihestuz. Horretaz gain, euskararen erabilera publikoak (ez bakarrik irratian) nolabaiteko ber-duintze bat eman dio irratitari berorren normalizazioaren mesedetan, baina baita botere publikoek hizkuntzarekiko izan dezaketen hurrenkeran.

Egoera finantzarioari dagokionez, irradi aske guztiak bezala ia baliabiderik gabe hasi zen, baina frogatu du gutxirekin zenbat egin daitekeen. Hala ere, irradi honen esistentzia ezin izango litzateke bermatu diru-laguntza publikorik gabe, baina ezta herritarren parte hartze ekonomikorik gabe, oraindino ere erabateko garrantzia baitu. Azken hau, bi ahoko arma bat da, batetik, entzulearekiko nolabaiteko mendekotasuna sortzen duelako, baina bestetik entzuleek irratiarekiko duten atxikimenduaren isla izateaz gain, botere publikoekiko independentzia bermatzen dutelako. Zentzu horretan, Irulegiko Irratiak, bere izaera parte hartzailea gaur egun arte mantentzea lortu du, entzuleak aktore aktibo gisa kokatuz eta laguntzaile sarea mantenduz, baina alderdi horretan, azken urteetan gainbehera izan duela dirudi, eta gizarteko arlo guztietan gertatzen den bezala, laguntzaileak lortzea gero eta zailagoa egiten zaio.

Hedapenari dagokionez, sistema teknologiko berrien erabilerak haien estaldura zeharo hobetu du hasierako urteekin konparatuz eta egun lurralde osoan dira entzungai. Aipagarria da ere Euskal Irratiak federazioko beste irratiekin daramaten kolaborazioaz gain Hego Euskal Herriko Pirinioetako irratiekin

garatu duten harremana, euskara mugaz gaindi barraiatuz, eta Hego eta Ipar Euskal Herriko bailara mugakideetako harremana eta komunikazioa bultzatuz.

Soslaia erdigunean jarriz, iraganeko krisialdiak atzean utzi dute – ekonomikoak eta lehenengo belaunaldi horren partitzeak – eta gaur egun 6 pertsonen (*7 Amikuzeko Irratiarekin*) osatzen duten talde egonkor bat daukate, askotan baldintza txarretan jardun behar badute ere. Halaber, diru publikoaren kantitatea handitzearen aldeko aldarrikapena ere egin beharra dago egun Baxe Nafarroan euskaraz informatzeko eta tokiko informazioak euskaraz entzuteko hedabide bakarra baita, eta interes generaleko euskal irrati bat izaten jarraitu nahi badugu, beharrezkoa da botere publikoek behar bezala erantzutea hauen eskakizunei. Nolanahi, kezkatzekoa da langile formatuak lortzeko Irulegiko Irratiak aurkitzen dituen zailtasunak. Gogoeta egiteko gaia da hauxe, are gehiago kontuan hartuz, urtero EHUen zenbat kazetari gazte berri ateratzen direla eta haietako askok ez dutela lanik aurkitzen.

Bukatzeko, helburuei dagokionez, Irulegiko Irratia sorrerako xedeei fidel mantentzen da: euskararen mantentzea eta biziberritzea, informazio lokalaren zabaltzea eta inguruko jende zein eragileen parte hartzearen bermatzea. Alabaina, bihurtune batean dira. Baliabide faltagatik teknologia berriei eta (honekin lotutako) gizarte aldaketei egokitzeko ezgaitasun eta ezintasun baten aurrean aurkitzen direlarik. Baita belaunaldi gazteengan irratiarekiko interesa pizteko ezintasunagatik. Zentzu horretan, sare sozialak gero eta gehiago eta modu integratuagoan erabiltzeko erronka dauka Irulegiko Irratiak, belaunaldi berriekin konektatu nahi badu.

Laburbilduz, Irulegiko Irratiak, eta oro har, diferentziak diferentzia, Euskal Irratiek, komunikazio tresna garrantzitsua izaten segitzen dute Iparraldeko euskaldunentzat, sortu eta 40 urtera. Alabaina, erronka handiak dituzte aurretik, etorkizunean hala izaten segitzeko. Zentzu horretan, beharrezkoa izango litzateke, bai berrikuntza teknologikoetara egokitze prozesu bat, bai gizartearen aldaketak aintzat hartzea eta bai herritarren eta instituzioen babes ekonomiko eta sozial handiagoa.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Alkorta, L. eta Zuberogoitia, A. (2009). *Masa-komunikaziotik Informazioaren Gizartera. Euskararen bideetan barrena*. Bilbo: UEU
- Arbelbide, X. (2003). Gure irratia eta euskara. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (48), 125-132.
- Arrieta Berriako, M., Bujanda, M., Basterretxea Polo, J. I., González Gorosarri, M., Gutierrez Paz, A., Ramírez de la Piscina Martínez, J. M., Torregarai, I. eta Zuberogoitia, A. (2009). *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Babbie, E. R. (1999). *Fundamentos de la investigación social*. International Thomson.
- Bericat, E. (1998). La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: Significado y medida. Ariel.
- Bidegain, E., Zuberogoitia, A., Egaña, T. eta Iñaga, A. (2015). Euskarazko Komunikabideak Euskal Pirinioetan. *Euskal hedabideen urtekaria 2015*, 41-52.
- Cheval, J. J. (1992). Local radio and regional languages in southwestern France. *Ethnic minority media: An international perspective*, 165-95.
- Cheval, J. J. (1996). Médias audiovisuels français et langues régionales minorisées. *Langues d'Aquitaine: dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique*, 197-242.
- Cheval, J. J. (2002). *L'expérience française des radios locales associatives*. Institut d'Études Politiques de l'Université de Bordeaux III.
- Etxezarreta, L. (2006). Euskara Iparraldeko komunikabideetan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (59), 109-118.
- Gutierrez Paz, A. (2002). *Euskal irratigintzaren historia*. Bilbo: UEU.
- Gutierrez Paz, A. (2004). De las radios libres a las emisoras asociativas. La radiodifusión alternativa en la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra. *Congreso de la Asociación de Historiadores de la Comunicación (AHC): 25 años de libertad de expresión*, 18-19.
- Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Bilbo: UPV/EHU
- Jakobe Palazio, G. (2000). *Irratibidearen barrunbean zehar: harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara*. Udako Euskal Unibertsitatea
- Larzabal, M. (1994). *Ipar Euskal Herriko kazetarien euskaraz*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Bilbo: UPV/EHU
- NOR Ikerketa Taldea (2000). *Hedabideak eta Euskal Herria*. Bilbo: UEU.
- Martinez Pérez, J. (2009). La radio libre española, aquel movimiento social olvidado. *Congreso Internacional Historia de la Transición en España. Sociedad y movimientos sociales. Estudios del Tiempo Presente*, 897-914.



Requena Santos, F. eta Ayuso Sánchez, L. (2018). *Estrategias de investigación en las ciencias sociales: fundamentos para la elaboración de un trabajo de fin de grado o un trabajo de fin de master*.

Zuberogoitia, A. (2003). *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU

## Beste iturriak

Argia (2007ko martxoak 4). “*Irulegiko Irratia diru bilketan*” Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2078/irulegiko-irratia-diru-bilketan> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Arin Larrañaga, I. (2010). “*IPAR EUSKAL HERRIKO EUSKAL IRRATIEN FEDERAZIOA*”, Wordpress [on-line], eskuragarri hemen: [https://kotalaia.files.wordpress.com/2010/05/iparraldeko-irratien-federazioa\\_inge-arin.pdf](https://kotalaia.files.wordpress.com/2010/05/iparraldeko-irratien-federazioa_inge-arin.pdf) [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Argia, otsailak 18 (2016). “*Antxeta Irratiak 15 urte bete ditu "uhinak orrazten*” Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/albiste/antxeta-irratia-15-urte-bete-ditu> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Arrosa (2006). *Irulegiko Irratia*. Eskuragarri hemen: <https://www.arrosasarea.eus/irratia/irulegi-irratia/> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Berria, (2020 otsailak 2). “*Behar bati erantzuten genion eta gure lanak jendea hunkitzen zuen*” Eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1942/038/001/2020-02-02/behar-bati-erantzuten-genion-eta-gure-lanak-jendea-hunkitzen-zuen.htm> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Berria, (2020ko uztailak 5), “*Ofizioan hori dut maite ukan: edozein jenderekin mintzatzea*” eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/2242/042/001/2020-07-05/ofizioan-hori-dut-maite-ukan-edozein-jenderekin-mintzatzea.htm> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Berriapapera, 125. Zenbakia (2002ko azaroa). “*Xiberoko Botza cumple su 20 aniversario*”. Eskuragarri hemen: [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/berriapapera\\_historikoa/es\\_historikoa/djuntos/125cas.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/berriapapera_historikoa/es_historikoa/djuntos/125cas.pdf) [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Bidart, J. (2021eko irailak 9). *Irulegiko irratia 40 urte beteko ditu aurten. Nola piztu zen pindarra?* [irratsaioa]. Irulegiko Irratia. Eskuragarri hemen: <https://www.irulegikoirratia.com/kronikak/irulegiko-irratia-40-urte-irulegiko-irratia-40-urte-beteko-ditu-aurten-nola-piztu-zen-pindarra> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Bidart, J. (2021eko maiatzak 10). *Irulegiko irratia 40 urte: 1981ean irratia Irulegi Mentako ganbaratik hasi zen hedatzen* [irratsaioa]. Irulegiko Irratia. Eskuragarri hemen: <https://www.irulegikoirratia.com/kronikak/irulegiko-irratia-40-urte/irulegiko-irratia-40-urte-1981ean-irratia-irulegi-mentako-ganbaratik-hasi-zen-hedatzen> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

El País (1981). “*El Gobierno francés legaliza las emisoras de radio libres*” *El País*. Azaroaren 12a. Eskuragarri hemen: [https://elpais.com/diario/1981/11/12/radiotv/374367601\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1981/11/12/radiotv/374367601_850215.html) [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

El Salto Diario (2020 otsailak 2). “Hemos llegado donde no entraba un medio en euskera hace 20 años” eskuragarri hemen: <https://www.elsaltodiario.com/la-radio-a-traves-de-la-radio/antxeta-irratia-hemos-llegado-donde-no-entraba-un-medio-en-euskera-hace-20-anos> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Eusko News and Media, 40. zk, (1999). “Xiberoko Botza Orai”. Eskuragarri hemen: <https://www.euskonews.eus/zbk/40/xiberoko-botza-orai/ar-0040004001E/> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Eusko News and Media, 157. zk, (2002). “Gure Irratia: la realidad de Euskal Herria vista desde Lapurdi”. Eskuragarri hemen: <https://www.euskonews.eus/zbk/157/gure-irratia-la-realidad-de-euskal-herria-vista-desde-lapurdi/ar-0157001003C/#> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Erramuzpe M. eta Zedarri P. (2021eko maiatzak 11). *Irulegiko Irratiko lehen presidentak, Mikel Erramuzpe eta Peio Zedarri* [irratsaioa]. Irulegiko Irratia. Eskuragarri hemen: <https://www.irulegikoirratia.com/tokiko-gaiak/irulegiko-irratiko-lehen-presidentak-mikel-erramuzpe-eta-peio-zedarri> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

GARA, (2012 abuztuak 4). “Nahi genuen Xiberoako irratia bat xibereraz funtzionatzen zuena” hemen eskuragarri: <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20120804/355551/eu/Nahi-genuen-Xiberoako-irratia-bat-xibereraz-funtzionatzen-zuena> [Kontsulta eguna: 2022/02/20].

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2009). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2010). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2011). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2012). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2013). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2014). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2015). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2016). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2017). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2018). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2019). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Ministere de la Culture Direction Generale des medias et des industries culturelles. (2020). *Rapport d'activité*. Fonds de soutien à l'expression radiophonique locale

Sustatu, azaroak 15 (2010eko uztailak 15), "Antxeta irratia: entzun, esan, adierazi!" <https://sustatu.eus/1287061253>

## ERANKSINAK

### 1. Belaunaldiko Transkripzioa: JOJO BIDART

### **1. Hasteko kontaiguzu nor zaren eta ze harreman daukazun Irulegiko Irratiarekin?**

Ni naiz Jojo Bidart. Ni naiz gaur egun Irulegiko Irratiko elkartearen lehendakaria eta izan naiz 40 urtez langile Irulegiko Irratian eta hasierako sortzaile taldekoa.

### **2. Non zelan eta noiz jaiotzen da Irulegiko Irratia?**

Irulegiko Irratia beraz 1981ian sortu zen. Orduan, zergatik sortu zen 1981ian? Izan zen gobernu aldaketa bat Frantzia baimendu zuena irrati libreak izaitia. Orduarte irrati piratak ziren, etzen beraz aizu irrati bat izaitia bakarrik zen estatuarena eta orduan, beraz, 81ian izan ziren hauteskundeak. Sozialistak etorri ziren gobernura. Esan zuten aitzinetik, egon baitzen borroka bat aitzineko urteetan irrati piraten inguruan, eta horiek beraz baimenduko zutela. Denbora berian, hemen Eskual Herrian, Iparraldean, bazen borroka bat aspaldidanik ere euskarak presentzia bat ukan dezan komunikabideetan. Izan irratian, izan ere telebistan eta borroka aski luzea izan zen bainan ez zen ondorio handirik ekartzen eta euskararen tokia biziki txikia zen estaduko komunikabideetan eta orduan hor ikusi genuen oportunitate bat irratia sortzeko. Orduan, *Gure Irratia* sortu zen Milafrangan Baiona aldean, *Irulegiko Irratia* sortu zen hemen Baxe-Nafarroan eta urte bat berantago Xiberuan ere *Xiberoko Botza* sortu zen. Denbora berian ere, hemen, Eskual Herri barnealdean, bazen mugimendu bat komunikazio sailean. Kazeta bat sortu zen *Herriz Herri* izenekoa eta hori zen tokiko jendeek xutik ezarri zutena, altxatu zutena, zeren euskararen problematikatik aparte, pentsatzen baitzuten ez zela aski aipatzen, ez zirela aski eta ongi aipatzen tokiko gaiak eta beraz, herritarren eskuetan hartu zuten holako astekari baten sortzia eta mugimendu hortan ere baziren partaideak eta horiek ere interesa antzeman zuten Irratia ere sortzian, beraz bi helburu nagusi genituen. Bat euskararena, euskararena komunikabideetan, eta beraz, sortuko zen irratian. Eta tokiko informazioak. Tokiko komunikazioa egitia tokiko jendeekin, beraz irrati partehartzailea. Hor ziren bi helburu nagusiak.

### **3. Aipatu duzu Herriz Herriko aldizkaria sortzen dela, baina ikus-entzunezkoen eremuan egon ahal zen saiakerarik Irulegiko Irratia baino lehen ?**

Ez irrati eta telebistarik etzen orduan, baterez. Bazan kazeta hori sortu zena jadanik tokiko informazioak eta biltzen zituen eta bazan sare bat sortua horren inguruan, eta jendeek parte hartzen zuten, bainan gero ikus-entzun mailan etzen oraino ezer, hori izan zen beraz, irratiaren bidez, lehen urratsa.

**4. Eta nolako zela esango zenuke zuk garai hartan, Irulegiko Irratia sortzen den garai hartan, euskararen eta euskal kulturaren egoera Baxe-Nafarroan?**

Euskararen egoera Baxe-Nafarroan euskara mintzo zen eta mintzo da, guttiago orain, bainan mintzo zen asko Eskual Herri barnekaldean eta bereziki Baxe-Nafarroan. Beraz, herri euskalduna zen, hiztun asko baziren, bainan ikusten ginuen galtze prozesu batean sartzen ari girela eta gazteak guttiago zakitela euskera, horregatik ere sortu ziren ere ikastolak hamar urte lehenago eta bazen bai Baionan bainan ere Donapaleun lehen ikastoletai bat duela 50 urte, eta beraz ikusten ginuen beharra bazela holako tresna batzuen xutik ezartzia euskararen galtzerat ez uzteko eta hori, euskararen egoeraren aldetik, hori bazen. Eta kulturaren aldetik, bai bada kultur elkarte asko bazirela, adibidez, garai horietan ziren kultur asteak hasi zirenak eta adibidez Nafarroaren Eguna famatua bilakatu dena. Beraz, zonbait urte lehenago sortu ziren eta Baigorri bezala baziren beste herri askotan kultur elkarteak kultur asteak antolatzen zituztenak. Gehien bat herritarren esku ziren gauzak ziren horiek.

**5. Esan nahi duzu herritarrek bultzatuta eta ez erakunde publikoetatik bultzaturiko ekimenak?**

Bai bai, hori bera.

**6. Eta nola gogoratzen dituzu zuk Irulegiko Irratiako lehen saioa haiek?**

Orduan, hasi girelarik oso... nola erran... Ahal guttiko irratia genuen eta orduan, hasieran, lehen hilabeteetan, laguntzaileak ziren saio egileak. Bagenituen taldeak, lan taldeak muntatuak saioa. Bazen saio bat, irratsaio bat, sozial arlokoa eta ekipa bat horren inguruan. Bazen emazteen emankizuna, bazen laborarien emankizuna oso garatu dena eta geroztik beti segitzen duguna zeren eta mugimendu azkar bat bazen laborantza mailean. ELB sindikata ez zen oraino sortua bainan sortuko zuten taldeko ainitz ere baziren Irulegiko Irratitik pasatu zirenak eta horiek ere bazuten laborantza mailan eta gauza asko erraiteko eta beraz irratsaio bat ere bazuten. Gero, bazen kirol saioa, haurren emankizuna... egun bakoitz saio bat eta talde bat horren egiteko eta gero pixkanaka etorri zen berriak ere tratatu behar zirela. Orduan ni liberatua nintzan, ez nuen beste lanik eta unibertsitatetik ateratzen nintzan eta hortan sartu nintzan. Hasieran, ordaindua izan gabe baina lagunek lagundurik eta gero lanpostu erdi bat sortu ginuen eta ondoko urteetan beste kide batzuk ere etorri ziren beste lanpostu berriak sortuz eta hola pixkanaka, baina hasiera-hasieran laguntzaileen arteko irratsaioak eta gero pixkanaka sartu dira langileak.

**7. Eta nola esango zenuke zela hasieran adosturiko hizkuntza hautua eta horien zergaitiak. Esan nahi dut, ze hizkuntzatan hitz egitea adostu zenuten eta zergatik?**

Orduan, argi genuen euskara izan behar zela komunikabide horretako hizkuntz nagusia. Ez bakarria egia erran, zeren eta baziren ere gurekin laguntzaile batzuk euskara etzekitenak eta elkarrizketak egiten genituelarik ere kanpoan, joaten ginelarik jendeak elkarrizketatzera, erran dudan bezala, Baxe-Nafarroan gehienek euskara zakiten, baina batzuek ez, eta batzuekin ere interesgarria aitzematen baikenuen informazio bat tratatzea eta hori frantsesez ere egiten genuen, baina betidanik eta sortu denetik eta luzarat nonbaitan euskararen tokia nagusi-nagusia zen %90 esate baterako euskaraz eta %10 frantsesez gutxi gora behera, ideia bat ukaiteko.

#### **8. Hori hasierako urteetan?**

Bai bai, eta hola segitu dugu. Hala segitu dugu proportzio horretan gutxi gora behera. Ez dakit %10 edo %15 dependitzen du eta horren inguruan proportzio horrekin segitu dugu. Batzuek kritika egiten zuten bederen, *“Uzten baduzue frantsesa sartzerat frantseza nagusituko da eta euskararen kaltetan izango da”*. Baina ez da sekulan arazorik izan alde hortatik. Hor beti euskara nagusi eta aixe nagusi izan da irratian, zeren eta sartu diren langileek eta bistan dena kriterioa zen euskaraz hartzea langile partetik. Laguntzaileak baldin baziren frantsesez ari zirenak nahi bazuten parte hartu parte hartzen zuten ere bai, baina proportzio horretan izan da eta ez alde hortatik arazorik izan.

#### **9. Eta kontrara izan al zenuten ere kritikarik? Izan al zenuten kritikarik euskararen hain proportzio handia izateagatik?**

Bai, bai bai. Izan dira bai, oharrak. Baina guk argi ginuen behar genuela komunikabide tresna horretan lagundu euskara. Lagundu euskara zeren eta ikusten baitginuen beste komunikabide guztietan alderantzizko proportzioa eta ono guttiago zuela tokia euskarak. Beraz, behar zen trena bat orekatzeko, beraz indar gehiago ukanen zuen euskarak. Gero, izan dira momentu berezi batzuetan, hauteskundeetan eta holako gauzetan, presione behar bada geixeago alde hortatik, baina nunbaitan urte batetik bestera proportzio hortan segitu da.

#### **10. Eta nola esango zenuke desberdindu zela Irulegiko Irratiaren hautua garaiko beste irratietatik?**

Hizkuntzaren aldetik desberdintasuna? Gure Irratiarekin ez da diferentzia askorik zeren eta da Nafarro-Lapurterra. Hizkuntza berdintsua da Lapurdin eta Baxe-Nafarroan. Baxe-Nafarroan berian badira desberdintasunak Baigorri, Garazi eta Amikuze artian. Badira gauza ttipi batzuk aldatzen direnak, berdin kostaldera joaten bazira Kaxkarot moduan mintzatzen direnak. Orain gutxi entzuten ditugu, baina badira desberdintasunak. Baina, oro har, Lapurdi Baxe-Nafarroan ez da arazorik batere elkar ulertzeko

eta hizkuntza berdintsua da. Desberdintasun handiagoak dira Xiberuarekin eta hortan da hizkuntzaren aldetik desberdintasuna. Geroxeago behar bada aipatuko dugu, baina kolaborazioa egin dugu eta garatu dugu irratien artean era entzuleek ere usaia behar dute ukan hartu. Batzuei bitxi egin zaie baina pentsatzen ginuen gure helburuetatik bat zela hizkuntzen kohabitazioa eta elkar ulermena eta entzunaraztea eta hala. Hori izan da eta segitzen du funtsean.

**11. Gure Irratiak elebakartasunaren aldeko apustua egin zuen eta Irulegiko Irratiak eta Xiberoko Botzak bestalde egin zenuten elebitasunaren aldeko apustua. Zure ustez nondik etorri daitezke estrategia desberdin hauek hautatzeko arrazoiak?**

Gu joan baitgira hasieran, bai euskararentzat eta euskararekin konpormiso handi bat baginuela bainan ere, erran dudan bezala, hasieratik nahi ginuen tokiko jendeen, Baxe-Nafarroko jendeen, komunikazio tresna bat eta jende horietan baziren euskara etzekitenak eta ikusten baitginuen gauz interesgarriak pasatzen zirela jende batzuekin eta euskaraz ez bazakiten hala ere hori integratzen ginuen, beraz gure hautua gure aldetik hola izan da. Gure Irratia kostaldian, pentsatzen dut e hori da interpretazio bat, bainan nola frantsesaren egoera, hizkuntzaren egoera desberdina izanki, frantsesaren presioa handiagoa izanez, nahi zuten presio handiago horren aitzinean edo parean egin hala orduan apustu bat egin behar dugu eta egin behar dugu osoki euskaraz eta horregatik emntsatzen dut horrelako diferentziak direla.

**12. Eta zure ustez hainbeste urtez lanean arituta gero zein azpimarratuko zenuke dela Irulegiko Irratiak euskalgintzaren eremuan eginiko lanketarik handiena? Hau da, zer eman dio zure ustez Irulegiko Irratiak gehien bat euskarari eta euskal munduari?**

Orduan uste dut, hala ere, entzulego aski zabala dugula euskal irratian partetik eta bereziki barnekaldian. Ezberdina da Baiona-Angela-Miarritze eta kostaldean, erran nahi dut, euskal irratien entzumena ez da berdina toki desberdinetan Iparraldean. Ez da homogenoa. Barnekaldean egia da, eta barne sartzen dut Lapurdi barnekaldea, bada entzulego aski inportantea neurtua dena eta uste dut belaunaldi desberdinetan erreferentzia bezala bilakatu girela eta hori irrati bezala. Euskararentzat, hori ez da neurtua zehatz-zehazki, baina baditugu gure inguruan jende batzuk euskara ez badakite ere irrati entzunez horien entzumena, belarria, egin dutela euskararekiko, beraz da hurbilpen bat eta ez da hain ttipia hala ere. Erran dut ez dela neurtua bainan bai, entzulegoa neurtua izan delarik duela bi urte egin den inkesta batian eta, ageri da entzuleak ez direla bakarrik euskaradunak badira ere euskaldun hartzaileak, beraz, mintzatzen ez direnak bainan ulertzen dutenak, eta ere, hori harrigarriago, ulertzen ez dutenak ere. Hala, hori pixkat bitxia. Bistan dena proposio ttipiangoan, normal, bainan badira. Hori

alde batetik, eta gero berri egiteko, euskara dakitenean artean nik uste dut, ikusi baitugu hainbeste urtez jendeekin lanian ari izanez eta, askotan gertatu izan da gu joaiten ginen, eman dezagun elkarte baten biltzar nagusirat edo ekonomia saileko zerbat bazela, joaiten ginen elkarrizketa egitera eta elkarrizketatuek nahiz eta euskara jakin zioten askotan ba, *“Hori ez da eskuaraz erraiten halixe”* eta *“Eskuaraz mintzo gira ba gure artian, mintzo gira eskuaraz etxean eta hola, laborantza gaietan...”* Bainan gero gauza teknikoetara pasatuz eta esaten zuten, *“Hori zaila da”*. Usaia zuten frantsesez hitz egitea eta guk esaten ginuen, *“Entsaiatu. Entsaiatu eta eginen dugu entsegu bat hiru minutuz eta ikusten baduzu ezinen duzula ba frantsesez eginen dugu”*. Hori askotan-askotan errepikatu da eta jende horiek berak ohartu dira euskaraz egiten ahal zutela eta hori behin egin eta ondoko urtian berriz heldu ziran eta eskuaraz egiten da eta hori usai bat bilakatzen ari da. Alde hortatik, nik uste dut ekarpen inportante bat izan dela irratia. Komunikazio tresna bat dela jendeek entzuteko bainan ere mintzarazteko eta jendea parteharazteko ahozkotasanian, eta uste dut hori ere inportantea izan dela eta dela oraino gaur egun.

**13. Eta bueno gaia aldatuz orain finantzazioaren inguruan galdetuko dizut. Nola gogoratzen duzu zuki izaten zirela hasierako finantzabiderik nabarmenenak. Hau da, nola finantzatzen zineten hasierako urteetan edo hasierako urtean?**

Bai hasierako urtia berezia izan da zeren eta ez ginuen batere dirurik. Gure materiala izan da bigarren eskukoa, bistan izan dena hasieran, eta tokia lagunentzetan eta beste. Hola hasi gira. Lagunen laguntzarekin teknikariak baziren eta, diru mailan konkretuki, ni nintzan lehen langilea, nahi baduzu, edo bederen, hor nintzan egunero lanean hartzeko. Hasieran ordaindua izan gabe bainan ez da errexegia. Baziren *Herri Taldeak* izeneko mugimenduak eta hortan ginen ere. Erran zuten, *“Abiatzen den irratia proiektu hori inportantea da, eta orduan, gure artian dirua emanen dutsugu proiektu horren segitzeko”*. Gero, elkarren arteko diru bilketa horrekin hasi nintzan eta biziki hunkitua izan nintzan eta hola zonbait, hilabete pare bat edo hiru hilabete edo hola, eta gero izan ziren lehen dossierrak lanpostu lagunduak izaitzeko eta istorio, eta gero izan ziren diru ere... ez dakit zuki ezagutzen duzun bainan hilabetero dirua emaiten duten jendeak [harpidetza sistema]. Parte hartze ekonomiko hortan kanpaina bat egin ginuen zabaltzeko, ez bakarrik hastapeneko lagun taldea baizik eta Baxe-Nafarroan eta lagundu nahi zutenak, zeren eta gauza asko ziran abiatu: ikastolak, baziren lurzaindia... asko talde baiziren molde hortan funtzionatzen zutenak eta irratia ere horren bitartez. Badu duela 40 urte diru laguntza hori emaiten zutenak eta gaur egun oraino ematen dutenak. Erran nahi du, 40 urtez eta hilabetero diru laguntza segitzen dute emaiten. Hori hasierakoa, eta gero hala etorri dira gero sustengu kanpaina edo besta



batzuk antolatu eta hola. Hori hasierakoa, eta gero zombait urteren buruan, uste dut 5 edo 6. urtian etorri da ere laguntza bat Frantzia aldetik. 86an uste dut zela, bada frantses estadiak, hori C.S.A. (*Conseil Supérieur de l'Audiovisuel*), hori da kultur ministeritzari lotua den egitura bat, eta horrek emaiten ditu laguntzak irrati elkarteri edo elkarte moduan ibiltzen diren irratiei eta bagira Frantzia guztian 700 da zombait eta diru laguntza hori badago. Gero etorri zen ere, edo urte horietan, sustengu kanpaina bat urtero egiten dena eta geroztik segitzen dena Baxe-Nafarroa guzian. Hor dira jaietako komiteak, festa komiteak herri guztietakoak eta horien artean egiten dute ibilaldia etxez-etxe. Hori otsailean egiten da irratia sustengatzeko. Hori abiatu zen, anekdota bezala erraiteko zergaitik abiatu zen kanpaina molde hori, gure antena, emisorea ebatsia izan zaukun. Egia da, pixka bat, egoera gogorra zela euskal munduaren partetik urte horietan, ikastolak ez zuten bizi errexa, bainan irratia... jenden partetik biziki errexa, baina baziren batzuk, hala ere, kontra zirenak eta gau batez ebatsia izan zaukun gure emisorea eta horri buru egiteko gure ingurian ziren jendeek erran zuten, *“Bainan ez da posible. Behar dugu beste berri bat erosi! Dirurik ez dugu, orduan jendeeri galdeginen dugu. Kanpaina hasiko dugu”* eta hortatik abiatuko zen eta gero batek erran zuen, hori otsailean zen, otsaila beraz inauteri garaia, eta batek erran zuen, *“Egin dezagun lehengo inauterietan bezala etxez etxe ibili dirua galdeiteko eta hor jendeek jakinen dute irratiaentako dela”*. Hala abiatu zen. Gero herri batetik bestera eta gero besta komiteak lotu ziren horri eta horrela abiatu zen, beraz, kanpaina eta segitzen da. Urtero oraino segitzen dugu.

#### **14. Orduan azkenean hobeto irten zizuen antena ebaztea ez ebazteak baino.**

Bai, hori bera hori bera. Ebatzi zuenak ez zuen uste holako iardokitze bat izango zenik eta oso ongi itzuli da afera.

#### **15. Orduan esango zenuke hasierako urteetan herritarren gaineko dependentzia antzeko bat zegoela finantziario aldetik. Esango zenuke gaur egun hori aldatu dela edo tendentzia aldaketarik egon dela?**

Bada, aldaketa bat ere izan da zeren eta herriko etxeek gero eta gehiago ere beren sustengua erakutsi dute, diru mailan ere. Parte ttipi bat da, bainan importantea. Baxe Nafarroako herri ainitzek, hala ere, parte hartzen dute mail ttipi batian, baina parte hartzen dute. Gero, diru mailan aldaketa handi bat ere izan da 96an izan baita Garapen Kontseilua<sup>10</sup>, orduan sortu zen, gero hautetsean kontseilua eta geroztik

---

<sup>10</sup> Hori “bookmark”-etan dako zu. EUROPAR BATASUNA ETA EUSKARAREN ALDEKO HIZKUNTZA POLITIKA IPAR EUSKAL HERRIAN izenpien. 90. Hamarkadatik aurrerako hizkuntza politikek.

sortu da urte ainitzen burua gero elkargoa eta hori. Baina 96an hasi ziren, hautestien artian eta gizarte zibilean, proiektuak aztertzen iparralde maila – ea ze nolango proiektuak behar diren – eta horietan sartu zen beraz Euskal Irratien arteko proiektu bat<sup>11</sup>. Hala sortu zen *Euskal Irratiak Federazioa* eta diruz lagundua izan zen ere molde horretan instituzio horien bidez. Orduan ez zen elkargoa oraino baina bazen departamendua eskualdea eta hala.

**16. Hedapen eremuaren gainean galdeginez, gogoratzen duzu non entzuten zen hasierako saioetan Irulegiko Irratia? Ze eremu estaltzea lortzen zenuten?**

Orduan izenak dion bezala Irulegin sortu ginen. Irulegiko etxalde batian, artzain baten etxian eta bere etxearen teilatuan ezarriak ginuen antena eta orduan hortik eremua, ukitzen ginuen eremua, mugatua zen baina ikusten zen Baigorriko herria, bere ibarra, herriko parte hasteko, eta Garazi aldea. Gero, zombait urteren buruan, jarri ginuen antena ondoko mendian eta mendi hortatik ikusten da ia Baxe-Nafarroko parte handi bat, Lapurdi barnekaldeko parte bat ere eta hor, gure hedapena aixe handiagoa izan zen antena horren bitartez. Gero errepikagailuak ere ezarri ditugu, zeren eta mendigune batian baitgira, bistan dena ez da dena bistan, ez dira herri guztiak bistan, eta orduan errepikagailuak ezarri ginuen lehenik Ahalduen, Ahalduko ibarran: Ahaldu, Urepele, Banka... eskualde horretan entzuteko; gero beste bat Aiherran – hori da Hazparne aldean – eta beste bat Donapaleun, Amikuzen. Beraz, hiru errepikagailu ezarri ditugu eta gure entzun-eremua aski ongi estaltzen dugu.

**17. Eta materiala hasiera batean, lehenen lortu zenuten antena, bigarren eskuko antena bat zen eta zu eta beste kide baten artean bakarrik lortu zenuten antena hori ezartzea, ezta?**

Bai. Bai, bai, bai. Gero laguntza ere ukan ginuen haien ezartzeko. Baita ere behar ziren zimentazko jaiolak egin materiala barnean ezartzeko. Baziren laguntzaileak, baina teknikoki ez nuen asko-asko ezagutzen, estudioak egin nituen elektronikan, baina bereziki bazen beste laguntzaile bat biziki ongi ere ezagutzen zuena. Teknikaria ere errefuxiatua zen eta teknikaria zen *Radio Adour Navarre*-en – hori zen gu sortu baino lehen zen beste irrati bat hasieran irrati pirata zena eta gero sartu zena Baionakaldian – eta harekin haren ezagutza ginuen hor eta haren laguntzarekin beraz sortu genituen gure lehen emisoreak. Gero ere bazen beste teknikari bat Milafrangan, Ernest Irigoien, ari zena ere *Gure Irratiarekin*. Kolaborazioa ere teknikarien aldetik hasieratik izan ginuen.

**18. Eta nolako onarpena eta harrera izan zuen Irulegiko Irratiak entzuleengan hasiera batean?**

---

<sup>11</sup> Honek esan nahi du 1996an hasi zirela hitz egiten emankizun amankomunak sortzeko ideia.

Hasieran... Hastapen-hastapenean, lehen egunetan bazen halako mesfidantza bat. Mesfidantza zeren eta, erran dudan bezala, bazen egoera ez beti erreza, bai euskal militanteen inguruan, abertzaleen inguruan... baina euskararen inguruan ere bai. Erran dudan bezala, ikastolen egiteko sekulako lanak egin behar izan dira, borroka ere eta jende guztiek ez zuen begi onez ikusten beti. Irratia sortu ginuelarik, Baigorri aldetik eta, baziren batzuk, *“Ea zer ote da hori? Gauza berri hori? Zertako egiten dute hori?”* Halako mesfidantza bat. Baina biziki fite hori gaituta izan da. Izan gira, adibidez, kirolaren bitartez pilota segitzeko – pilota partidak – eta kolaboratzaileak izan gira ikusten galdegiteko laguntza edo interesatuak baziren parte hartzeko, batere abertzale ez direnak edo euskal mundutik urrun direnak eta baietz erran zuten eta gauza sinple horien bitartez gauzak erretzen dira biziki fite. Adibide bat emateko, hasieran baiginuen lagun bat Baigorriko herriko etxean langile zena eta ibiltzen zena etxeetan uraren kontagailuaren biltzeko eta ikusteko zer ur kontsumo den etxez-etxe. Beraz, pasatzen zen etxetan eta berak kontatu dauku etxe batian hola sartzen da eta entzuten zuen kanpotik Irulegiko Irratia entzuten zutela eta sartzen delarik berehala itzaltzen dute. Klandestinoak balitz bezala, zeren eta ikusten dute herriko etxeko norbait ofiziala heldu dela eta entzuten dutela gauza bat beharbada debekatua dena. Halako duda batekin ziren eta langilea sartzen da eta erraiten du:

- *“Entzuten duzue Irulegiko Irratia? Ba, nik ere entzuten dut”*.

+ *“A bai! Zuk ere entzuten duzu?”*

Eta gero berriz ere piztu zuten. Adibide modura erraiteko, batzuek bazuten halako duda bat, ia onartua ote zen irratia entzuta edo ez, halako giroa zen. Baina biziki fite, erran dudan bezala. Izan daiteke kirolarengatik edo pasatzen genituen abisuengatik edo ematen genituen informazioengatik... jendeak interesatu dira eta irratien salmenta biziki goratu da irratia entzuteko etxeetan. Badakigu urte hortan eta ondoko urteetan biziki goratu dela eta jendeak etxe batetik bestera pasatu ziren erranez bazela tokiko irratia eta jendeak biziki interesatuta, bai. Integrazioa biziki errezi egin da hastapeneko dudak gaituta.

### **19. Eta antena lapurtzeaz gain beste nolako boikot gehiago bizi izan ahal zenuten edo hori bakarrik?**

Boikota ez. Jenden aldetik boikotarik ez, baterez. Baina presioa bai. Adibidez, izan da artikulua bat... hori Euskal Herritik kanpo Euskal Herrira begira informazioak harritzekoak ziren, nolakoak ziren, eta barne irratia. Artikulu bat izan zen urte batez erranez, irratia horiek kasu eman behar zela zeren eta, *“eskuaraz ari dira”* – Frantziatik hori ikusita mamu handi bat zen eta luzaz egon da eta da batzuentzako oraino –eta erraiten zuten momentu batez artikulua horretan, *“bai eta irratia horiek ez dakit nola finantziatuak diren”* eta berdin *“diru laguntza ukatzen dute Libiatik”* Gadafi baitzen orduan eta Gadafik

xoxa emaiten zuela zeren eta jadanik Italian irrati batian hori gertatu baitzen eta beharbada hor ere gauza bera... holako gauza harritzekoak kontatuak izan dira eta gu auziperatu ginuen. Ez ginuen hola pasatzerat utzi nai. Erraiteko, holako gauzak baziren Euskal Herritik kanpo eta holako beldurra eman nahi zuten batzuek euskaraz ari direlaketz. Beti badira laguntzaile sutsuak.

**20. Eta gogoratzen duzu ze aldizkaritan publikatu zuten hori?**

Bai, berriki horren kopia bat ikusi dugu gure istoria aipatzen ginelarik berrogei urteak eta hori irratan zen batek berriz ekarri digu artikulua.

**21. Eta zutaz aparte, nortzuk gehiago hasi zineten irratan eta hortik aurrera zenbatek egin zenuten bidea?**

Orduan, hasieran... kopurua ez dut burian baina biltzen ginelarik proiektua zutik ezartzeko, gero laster lantaldiak ere montatu baitziren, ez dakit, hogeit bat edo hola ginen zenbaki bat emaiteko, pentsatzen dut. Bazen ekipa bat, nahi baduzu, 7-8 ginen oso inplikatuak hortan eta gero fite laguntzaileak ere etorri baitziren eta lan taldeetan hartzeko 20-30 izan behar ginen... talde horiek hasieran.

**Zu izan zinen lehen soldatapeko langilea, eta nolakoa izan zen alde horretatik soldatapekoen garapena eta bestetik kolaboratzaileen garapena? Nola gogoratzen duzu zuk?**

Orduan, pixkanaka emendatu dira langileak. Soldatapean ziren jendeen kopurua... ni lehen urtean, gero, ondoko urtean edo bi urteren buruan, beste bat etorri zen eta gero hirugarren bat, laugarren bat... Hasieran denbora erdiz ordainduak ginen ezpaiginuen ahal gehiagokorik eta gero pixkanaka etorri da denbora osora pasatu. Erran nahi du, hasieran lan gehien gehiena zen laguntzaileena langile erdi batek ez baitu programazio handi bat egiten ahal irratan eta orduan laguntzaileak ziren nagusiki ari eta urtetik urtera langileen kopurua emendatu den bezala laguntzaile gutixago ere izan dira. Izan da holako transferentzia bat bainan laguntzaileak badira beti irratan, beraz kolaboratzen dutenak molde batian edo bestian, bainan egia da langileen presentzia gero eta handiagoa bilakatu dela irratiatan.

**22. Esan didazu hasieran denbora erdiz egin zenutela lan, bainan hala ere lan denbora erdia baino gehiago egiten zenuten?**

Ah bai, bai bai, hori segur. Hor ginen osoki lanean aritzeko bai. Beraz, langile bezala denbora erdiz eta beste denbora laguntzaile bezala besteak bezala. Hori beste laguntzaile guztiak bezala hori hola izan da.

Gero lanpostu osoak ere etorri dira 4-5 urteren buruan eta gero hala langileen presentzia hori gero eta handiagoa izan da bai.

**23. Eta kolaboratzaileen eta soldatapekoen perfilari dagokionez esango zenuke hasiera batean aniztasuna zegoela irratia barruan?**

Bai aniztasuna bai. Gero denak ziren, hala ere, interesatuak halako proiektu batekin. Hala ere, behar zen edo etorri ziren jendeek ziren, alde batetik, interesatuak bai euskararen presentziagatik eta euskararen tokia zelakotz irratian, gero, komunikabide trena berri bat zelakotz eta tokiko komunikabide parte hartzailea nahi zutelakotz. Beraz, elementu horiek diran hor interesatuak diren jendeak. Etziren eskuin muturreko jendeak hori segur. Ziren jende aurrerakoiak, euskaltzaleak gehienak, kasi guztiak eta militanteak ere franko. Ez bakarrik, baziren, oroitzen naiz, musikaz edo musika saio batetaz biziki interesatuak eta hortarako etortzen zirenak eta besterik ez, baina gero besteekin mintzatuz, proiektuan sartzen dira eta orokorki ikusten dute, ez dute bakarrik horien emankizuna ikusten. Orduan, definitzeko nahi baduzu, egia da, labur erraiteko, bai, abertzaleak ginela baina ez ginuen eta ez dugu irratia egiten abertzaleendako, da herritarrentzat eta baldin badira abertzale ez direnak horiek ere interesatuak baldin badira, hortaz, eta nahi badute egin, egiten dute baina nik jada, hastapenean abiatu dugularik gu ginen gehienak, abertzaleak, baina ez abertzale tendentziakoek ere bazeuden eta egin dugu elkarrekin eta segitzen da.

**24. Esango zenuke hasiera batean irratia batean sortu zenuten perfileko pertsonok eta gaur egungoak oso desberdinak direla edo tendentzia berdintsukoak segitu dutela lan egiten eta kolaboratzen irratian?**

Pentsatzen dut tendentzia berdintsukoak direla. Erran nahi du, euskarari buruz konpromisoa hartzen dutenak, biziki interesatuak dira eta senditzen dute garrantzia baduela hemengo irratia sail horretan eta hortarako uste dut lehentasuna hori dela, bai. Lehentasuna, euskararekiko atxikimendu hori badela denen partetik eta gero, interesatuak direnak, tokiko informazioak pasatzeko izan dadin herrietako kolaboratzaileak edo kirolan ari girenak edo musika emankizunen egiterat etortzen direnak badira oraino.

**25. Eta esan didazu hasiera batean bi helbururekin sortu zinetela. Helburu horiek aldatu egin dira urteetan zehar edo mantendu dira?**

Helburu nagusi horiek beti egon dira eta horren beharra, bada. Bai, eskuararen aldetik gauzak ez dira biziki hobetu Baxe-Nafarroan. 40 urteren buruan, eskualdunen proportzioa ttipitu da eta ttipitzen ari da oraino Baxe-Nafarroan nahiz eta ikastolak badiren, eta beharrik ikastolak izan dira bestelaz gainbehera biziki handiagoa izanen zen, eta hor pixka bat mantentze hein baterat zalantzakorra da oraino bada ikastolei esker eta eginak diren eta inguruan eginak diren indar guziei esker eta helburu hori eskuararena baitaezpadakoa beti hor da. Baina tokiko komunikazioarena ere. Zeren eta badira komunikabide tresnak, gero eta gehiago geroztik sortu direnak, bai interneten bidez bai whatsapp edo hori guzia, sortu da ere *Kanaldude*... Baina sartzen dira ere beste irrati ainitz eta ainitz, hartzen ahal dira hemen Baxe-Nafarroatik edo nonbaitik ez dakit telebista, ez dakit zenbat kate, 40 edo gehiago, eta informazioa heldu da jendeentzat trumilka-trumilka, baina tokiko informazioa tokiko jendeen artian eta jakitia zer pasatzen den eta zer pentsatzen duten herriko jendeek horren beharra ere bada eta pentsatzen dut hasierako helburu horiek present direla eta beharrak badirela bi sail horietan.

**26. Eta helburu berririk edo aipatuko zenuke edo bi horietan mantendu da?**

Bi horietan nagusiki, bi horietan mantentzen da. Gero, aldatzen dena da teknika eta egia da komunikabideetan, hor irratiarekin, irudia sartu behar dela, baitaezpadakoa da. Ikusten dugu, webguneak ere baititugu, eta argazkia izan edo ez izan desberdina da, ez da berdina entzuna izaten, bideo ttipi bat baldin bada, aixe gehiago. Hori da gertatzen dena, eta beraz, hortan present izan behar dugu edo gutxienez prestatu hori begira eta pentsatu zerbait egitia alde hortatik. Hobetzea hasteko.

**27. Eta tokiko albisteak zabaltzeaz gain eta euskararen alde egiteaz gain sortu zinetenean zein esango zenuke zela irratia bidez zabaltzeko nahi zenuten mezua? Ze mezurekin jaiotzen da Irulegiko Irratia?**

Mezua, aja! Eztakit, ez dut soberan pentsatu, baina berehala heldu zaitena bururat da: "*Geroa gure gain*". Eskuetan hartu. Nahi dugu zerbait, nahi dugu, adibidez, eskuara mantendu, nahi dugu gure kultura izan dadin, nahi dugu zerbait berri egin ere, eta izan daiteke ekonomia edo sozial arloan, ba egin dezagun. Egin dezagun eta mezua guk bederen jakinaraziko dugu, baina tresna xutik ezarri baitugu ere gure parte xumean egin dugu eta hori ere ikusten da. Hala mezua, "*geroa gure gain*" har dezagun.

**28. Gogoratzen zara zeintzuk ziren hasieran mintzo zineten gaiak?**

Hori erran dauzut. Irratsaioak hasteko baziren sozial arlokoak, haurren saioak eta haurren emankizunak – baitziren irakasleak gure artian – laborariaren emankizunak bistan dena, laborantzako gaiak. Bazen kirola... eta holako gaiak banatzen genituen eta orain ere, funtsean, berdinak dira.

**29. Nola uste duzu desberdintzen zirela hastapeneko gaien aukeraketa eta gaur egun?**

Ez dakit. Hor beharbada, nola langile gehiago baden, informazio gehiago bilatzen dugula. Erran nahi dut, gai bat tratatzerakoan informazio bilketa gehiago hasieran baino, pentsatzen dut, eta gero ez dut ikusten, funtsez, holako diferentzia handirik baizik eta denbora gehiago sartzen dugula informazio desberdinen biltzeko eta hori. Gero, tratamenduan ez dut ikusten desberdintasunik, espezializatu gara gehiago langileetan, nahi baduzu, badira gehiago ariko direnak kultur arloko gaien banatzen, gero, beste batzuk sozial, ekonomiko-politikoak eta holakoak, eta gero, orain hastapen-hastapenean etzen bainan orain bada gehiago eta badira kolaboratzaileak mahai inguruen egiteko badugu sare handiago bat, hala ere, gauzen tratatzeko, informazioa biltzeko alda batetik, eta gero, gauzak tratatzeko irratian.

**30. Hizkuntzataz aparte, zeintzuk dira Irulegiko Irratiaren lorpen nagusiak?**

Hori biziki zaila da neurtzea. Ez dakit, beharbada erakustea gauzak egiten ahal direla hemendik beretik. Hori erantzuna frantses komunikabideeri eta, hala ere, erraiten nuen komunikabide gero eta gehiago, Frantziatik heldu diren komunikabide gero eta gehiago izanez, bada tendentzia bat, arazo bat da eta Pariseri begira itzuliko gira ea Frantziak arazo hori konpontzen duen edo beste. Guk ekarri duguna da, hala ere, jakinaraztea zer nolako ikusmoldeak badiren hemen berian eta zer nolako jokamoldeak ere xutik ezarriak diren hemen berian arazo ezberdineri buru egiteko. Erran nahi dut, hemendik beretik zer? Zer diogu eta zer pentsatzen dugu eta zer xutik ezarria izan da? Hori da behar bada soziologikoki edo politikoki, behar bada, izaiten ahal duen ekarpena. Maite dut hori pentsatzea segur.

**31. Eta bukatzeko azkeneko galdera botako dizut. 40 urte hauetan egon diren mugarrien gainena pentsatuz gero zeintzuk aipatuko zenituzke zuk hau da, zein fase desberdin egon dira iratiaren ibilbidean eta zeintzuk azpimarratuko zenituzke zuk?**

Faseak izan dira hastapen-hastapenian eta duda eta mesfidantza egoeratik ateratzea, erran nahi du, toki normal batian ezartzia euskara eta euskarazko komunikabide bat. Hori hastapen-hastapenian eta errexki lortu da hori. Gero faseak izan dira; garatzekoak teknikoki antenak ezarriz, tokiz aldatuz, hedapena eta

langileak sartuz eta hori guztia. Gero beste fasea izan da elkarlanarena Euskal Irratiaren Federazioaren bitartez Iparraldean proposatzeko, elkarrekin, irrati programazio aberatsago bat.

### **32. Ze urtetan da hori?**

Hori 1996-1997 inguru hortan. Hala eta orain, pixka bat desafio bezala da, gazteri edo gazte munduan sartzeko balioak edo apustua eta interesgarriak izatea gaurko gazteendako eta, erran nahi du ,biharko euskaldunentzat. Hori da oraingo fasea eta ez da ttipia.

### **33. Eta nola sortzen da nola bideratzen da Euskal Irratiak Federazioa sortzearen ideia eta hastapeneko urteak?**

Hori sortu zen, beraz, 96an. Erran bezala, aipatzen bainuen bildu zirela *Euskal Garapen Kontseilua* eta *Hautetsien Kontseilua*, orduan bildu baitziren hautetsiak ikusteko eta zutik ezartzeko proiektuak, Ipar Euskal Herrian etzan ez baitzen egiturarik orduarte eta geroztik sortu da *Euskal Elkargoa* bainan aitzinetik fase hori guztia izan da, eta fase horretan galde eintzauguten, "*Bueno guk ez dugu lagunduko irrati bat edo beste guk lagunduko dugu proiektu bat zuok elkarren artian xutik ezarriko duzuen*" eta horrela sortu da beraz *Euskal Irratiak Federazioa*, eta orduan, hor sortu ginuen irrati emankizun batzuk elkarrekin egiteko, eta elkarrekin izaiteko orduak eta gero eta handiagoak izan dira. Gero, formakuntza batzuk ere elkarrekin egiteko eta gero material batzuk edo amankomunian izaiteko. Horixe ziren hiru ardatz nagusiak beraz *Euskal Irratien Federazioa* sortzeko *Xiberoko Botza*, *Gure Irratia* eta *Irulegiko Irratiaren* artean. Manera horretan sortu zen.

### **34. Zuk positiboki baloratzen duzu proiektu hori amankomunean izatea Ipar Euskal Herriko euskarazko irratigintzaren panoramerako?**

Bai, uste dut bai. Bainan bi ardatz horiek atxikiz. Erran nahi du, bai elkarrekin eta amankomunian proiektu bat ahal bezain zabala proposatzeko Iparraldeko entzulegoeri, bainan atxikiz tokian tokiko hurbiltasuna eta beraz bi zango horien gainean izanezs. Elkarrekin amankomunean, bainan ere tokian tokikoa. Bi zango horiek baitaezpadakoak dira eta horrekin segitzen dugu.



## 2. Belaunaldiko Transkripzioa: PANTXIKA ARRANBIDE

### 1. Hasteko kontaiguzu nor zaren eta ze harreman daukazu Irulegiko Irratiarekin?

Beraz, ni Pantxika Arranbide, 42 urte eta nire bizitzaren erdia Irulegiko Irratian pasatu dut lanian. Hasieran, animatzaile gisara eta pixkanaka-pixkanaka kazetari bilakatu naiz, eta erran nezake azken 15 urteak kazetaritzan pasatu ditudala eta baita azken 5 urteak pixkat kudeatzaile karguan, koordinatzaile karguan.

### 2. Hautzaroan entzuten zenuen Irulegiko Irratia? Zer zen zure etxean Irulegiko Irratia haurra zinenean?

Bai. Bai, bai. Ni Urepelen bizi izan naiz, 5-6 urte arte hor txiki-txikitan eta Urepelen Irulegiko Irratia besterik ez zen entzuten. Etxeko irratia zen. Laborari etxe bat zen, beraz, bai arditegian bai sukaldean Irulegiko Irratia besterik etzen entzuten eta txikitan gustatzen zitzaizkidan ainitz haurrendako jokoak gero nire lankideak bilakatu direnek ematen zituzten joko haueetan parte hartzen ginuen. Beraz, arrunt etxeko irratia zen Irulegiko Irratia, bai.

### 3. Eta zein izan zen zure motibazioa irratian sartzeko ?

Buff... ba hasiera batean ez nuen batere pentsatua. Garaian Irulegiko Irratiko presidentea eta administrazio kontseiluko kide bat etorri zitzaizkidan *Euskal Herria Zuzenean* laguntzaile nintzalako eta sekatzan zituzten gazteak, nik 20 urte nituen eta dispositiboak baziren garaian, gazte enpleguak deitzen zirenak, laguntzak baziren estadotik formatzeko eta lanean hartzeko beraz, nola ezagutu ninduten eta, ez dakit, preziatu ninduten, agian, proposatu zidaten nire burua aurkeztea. Enuen batere pentsatua irratian lan egingo nuenik egun batean, zinez, eta joan nintzen, saiatu nintzen eta hartu ninduten eta gero 20 urte pasatu ditut irratian, hara.

### 4. Eta sartu zinenean formaziorik ukan zenuen?

Bai, irratikoek formatu ninduten. Enuen... antzinetik enuen formakuntza berezirik. Euskal filologia egin nuen bi urtez bainan ez zitzaidan gustatzen eta, horregatik, irratian sartu, gero euskara maila banuen beraz, irratikoek naute formatu eta gero pixkanaka-pixkanaka etorri dira beste formakuntza batzuk baina beti barnekoak. Kanpoko kazetariak emandako formakuntzak eta gero autodidaktiko ainitz. Bakarrik ainitz-ainitz ere ikasten da, esperientziak aintz ekartzen du, ez da dudarik.

**5. Eta zu sartu zinenean nolakoa zen irratia? Zenbat langile zeuden eta ze lan egiteko modu?**

Hasieran, animazioa egiten nuen. Teknikako maila atxiki, kantu eskaintzak, abisuak eta holako animazio zerbait egin. Horrekin hasten gira hasiberriak beti Irratian, jakin behar da mahai bat erabiltzen eta ahoskera lantzen, jendeari hitz egiten mikroaren atzetik... eta hortan lehen hilabeteak, eta pixkanaka-pixkanaka garatuz joan da nire bidea, kazetaritzan jarri naute eta azkenean berezitu naiz kazetaritzara, animazioa alde baterat utzi eta gehiago kazetaritzan ibili naiz. Baina irratian jakin behar da polibalenteak girela, denetarik egiten jakin behar da ez bakarrik berri aurkezle edo erreportalari, animazioa ere jakin behar da egiten eta denetarik egiten dugu, ordezka anitz bada norbait falta denean eta pixkat polibalenteak bilakatzen gira.

**6. Gogoratzen duzu zenbat langile zineten sartu zinenean irratian?**

Bai, 10 ginen, 10.

**7. Lan egiteko moduak oso desberdinak ziren sartu zinenean gaur egungoarekin konparatuz?**

Batere-batere. Arras desberdina zen. Jadanik teknologia mailan beste lan mota bat zen. Ni sartu nintzenean orduan hasiak ziren minidiskoekin lan egiten. Beraz, hori minidiskak manipulatzeko, soinuak mozten minidiskan eta... horrekin egiten genuen eta MP3a agertu zenean han bizitza aldatu zitzaigun. Askoz fiteago lan egiten ahal genuen, musika moldaketak egin eta... askoz ere rustikoagoa zen garaiko irratia, benetan. Baina polita zen ere.

**8. Eta ze harreman zeukan garai hartan Irulegiko Irratiak beste Euskal Irratiekin?**

Jadanik elkarrekin berri sailak egiten genituen ni sartu nintzenean. Berri sail edo erredakzioa erranen dugu partekatzen genuela baina harremanak jadanik baziren eta aski aintzinakoak ziren eta Euskal Irratiak aski fite eraiki edo sortu ziren. Ni sartu naizenean harremanak bidean ziren jada.

**9. Berri sailetatik aparte gauza gehiago zenuten amankomunean?**

Ba gauza gutti, egia erran, berri sailak eta emankizun batzuk, gauetako emankizun amankomun batzuk bagenituen, baina bestela bakoitzak bere programazioa bazuen.

**10. Gogoratzen duzu zenbat ordu partekatzen zenuten gutxi gora-behera?**

Hori ez naiz gogoratzen. Etzen hainbestekoa. Ez da gaur egungoa adibidez. Askoz gutxiago zen eta beharbada, ez dakit, teknologiaren aldetik ere desberdina zen beraz zuzenezko gutxiago bagenuen ere orain baino.

### **11. Zein zen euskarazko irratigintzaren egoera Ipar Euskal Herrian sartu zinenean?**

Nire ustez irrati entzunak ziren, eragina bazuten, osagarri mailan ere nahiko ongi ziren duela 20 urte. Ez, ez, bazen dinamika oso ona, elkarlanerako gogo handi bat eta entzunak ginen ere bai. Ainitz entzunak, bereziki Irulegiko Irratian, nik hori sentitzen nuen, Baxe-Nafarroan euskaldun gehiago denez irratia tresna garrantzitsu bat zen. Hori sartu nintzenetik sentitu dut, hori biziki azkar jendeak beharra bazuela, irratia beharra, laguntza estimatzen zuela. Gero garaian oraindikoz egia da irrati gutxi entzuten zela gure eremuan etzen mila hautu. Irrati frantses handiak ez ziren oraindik sartuak. Pixka bat erreferenteak ginen. Kostaldean Gure Irratia beharbada gutxiago, Xiberoko Botza [...] Errexago zela barnealdeko irratientzat, beraz, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza euskaldunen aldetik kopuruan entzule gehiago genuen, euskaldun gehiago zelako gure eremuetan. Gure Irratiarentzat zailago baina erreferentziak baziren Euskal Irrati gisara ere Lapurdin.

### **12. Gogoratzen duzu 2000. urte hasiera hortan euskalgintzaren inguruan zeuden lanketak Baxe-Nafarroan edota Ipar Euskal Herrian?**

Ba euskalgintza... Ba nik duela 20 urte berdin ziren ikastolak ainitz, ikastolak garatzen ari ziren kopuruan azkarki emendatzen hasi ziren AEK ere, ez dakit AEK-ko bulegoa Garazin ez den pixka bat beranduago sortu baina, hor, 2000 urteetan izan da, eta jadanik baziren Euskal Kultur Erakundea eta... nola erran... nire ustez hemen Baxe-Nafarroan ere Herriko bestetan eta ainitz komunikatzen zen euskaraz fitxak elebidunak ziren, soinu deiak euskaraz egiten zituzten irratian eta bazen kulturalki ere euskaraz egiteko ohitura hasia zen, hor hasi da pixka bat zinez konplexurik gabe euskara agertzen, erranen dugu. Ni baino lehenagokoek zailago izan dute, ez da dudarik.

### **13. Irratian une horretan euskararen inguruan zer moduko lanketak egoten ziren?**

Ba guk dena euskaraz egiten genuen, beraz, ez dakit, ni euskaraz murgildua izan naiz lanbidean, irratian, jendearekin harremanetan... beti euskaldunengana joaten ginen euskaraz ez bazakiten. Egiten genituen

elkarrizketak frantsesez baina itzulpenak eginez gainera, baina euskaraz aritzea derrigorrezkoa zen eta jendeak ongi bizi zuen eta ongi bizi du oraindik. Ez dakit hori zen zure galderaren zentzua.

**14. Eta sartu zinenetik gaur egunera zeintzuk izan dira aldaketarik nabarmenenak irratia barruan?**

Teknologiak aldatu digu lan egiteko molde guzira eta profesionalizatu gura ere urteekin. Pixka bat hasieran... nola erran, ez dugu formakuntza berezirik, ez ditugu kazetari eskolak egin edo animatzaile eskolak egin, baina emeki-emeki, hala ere, gure lana hobetzen aritu gura, esperientziarekin eta atzematen dut profesionalizatu gure emeki-emeki eta zinezko gauza serioak eta interesgarriak proposatu ditugula. Lehen ere baziren, bistan dena, baina kopuruan emendatu ditugu eta hobetu dugu eta bilakatu gura zinezko irratia generalista bat, bakizu, denendako zerbitzu ematen duen irratia bat eta ez bakarrik jokoak edo abisuak edo jolasak proposatzen dituen irratia bat. Benetako informazio irratia bat. Lehen ere baziren e, adibidez hauteskunde gauak irratietan biziki entzunak ziren, politika sailean hauteskundeak beti segitu izan dira, gero teknologia berriekin askoz hobeki egin dugu, internet guneak eta hobetu ditugu, sarean eta entzuleekin interakzioa hobetu da edo garatu da azken urteetan.

**15. Eta zeintzuk izan dira hizkuntzaren arloan irratian egon diren aldaketarik handienak?**

Bai, hala ere, nik ikusten dut gero eta nekeago edo zailago dela euskaldunak atzemateko. Biziki zail da.

**16. Langileetatik edo entzuleetatik ari zara?**

Ez, ez... jendea., populakuntzara joanez. Erran nahi dizut gauza bat, iruditzen zait jendeak konplexu bat hartu duela joaten ginenean elkarrizketak egiterat, *“Bai, bainan nik ez dut zure euskara, nik etxekoa dut, ez dakit hain ongi euskaraz...”* oso ongi dakitenean. Bainan pixka bat konplexu bat bezala eta ausardia falta bat, ez dakit... eta gero euskaldun kopurua apalduz ere joan da, gero badira ikastoletako haurrak orai lan mundu desberdinetan eta ari direnak eta errexa zaigu euskaldunak atzematea, bainan beti berdina dira. Zailtasunak baditugu batzutan gai batzuen barnatzeko ba euskaldunak atzemateko.

**17. Esango zenuke horrek eragina duela irratian erabiltzen den euskararen proportzioaren inguruan?**

Ez. Nahiz eta Irulegiko Irratian ez gara Gure Irratian bezala. Gure Irratian osoki euskaraz hedatzen dute dena. Guk, Irulegiko Irratian, ba zailtasun hauen aurrean eta hautetsi garrantzitsu batzuek euskara etzakitelatzen edo ba partaide batzuek euskara etzakitelatzen edo, erabaki genuen tarte txikiak frantsesez onartzea. Beraz, gero zailtasuna izan da beti, ez gehiegi, frantsesez egitea edo orekatzea euskarazko elkarrizketak, egun batean euskaraz bada biharamunean frantsesez edo ahal den zenbait [...] bost

egunetarik hiru euskaraz izan daitezen nahi baduzu [...] frantsesezko elkarrizketek ez dezaten leku gehiago... hara, jakinez tarte txikiak direla frantsesez proposatzen ditugunak Irulegiko Irratian, gehien-gehienak Euskal Irratiekin egiten dugu, programazioaren %80a Euskal Irratietan da beraz, gelditzen den %20 hortan onartzen ditugu frantsesezko elkarrizketa batzuk baina saiatzen gira, hala ere, frantsesezkoei soberan leku ez uzten.

#### **18. Mozturak egon direnez errepikatuko zenidake hautuarena?**

Ba depenitzen du baikenituen ba hautesi, edo auzapez, edo herri elkargoko arduradun edo... euskara etzakitenak eta lurraldearen garapenarentzat informazio garrantzitsuak zituztenak eta hauek ez zabaltzea, euskaraz etzekitelako ezinezkoa zitzaigun beraz, horregatik guretzako inportanta da deneri hitza ematea eta frantsesez bada ere bai, baina beti zainduz euskarak ere bere lekua izan dezan eta elkarrizketa gehienak euskaraz izan ditezen.

#### **19. Ez da edukiaren araberako hautua orduan?**

Beti saiatzen gara... elkarte bat deitzen dugunean edo hautetsi batengana goazenean, beti eskatzen dugu lehenik euskaraz, nahi dugula elkarrizketa euskaraz egin ea baduten pertsona bat euskaraz egiteko gaia sakontzeko. Ez baldin bada, ba orduan frantsesez hartuko dugu baina bestela beti lehenbiziko galdera da euskaraz nahi dugula egin eta badakite. Batzuk moldatzen dira, beste batzuk ez eta orduan frantsesez egitera behartuak gira, hara.

#### **20. Zure ustez zein da euskalgintzaren ignuruan Irulegiko Irratiak historikoki eginiko lanketarik azpimarragarrienak?**

Eztakit. Eztakit. Nire ustez Irulegiko Irratiak sartu ditu euskara batuaren hitzak, pixkat Euskal Herriaren ezagupen bat ere. Ez bakarrik gure lurraldearena edo Euskal Herriaren ezagupen bat eta euskara mota desberdinak ere, Xiberutarra entzuten baita edo Antxeta Irratikoekin Gipuzkera entzuten baita, Nafartarrak ere baditugu gure artean edo Bizkaitarra ere noizbehinka... pixka bat euskara mota guziak ezagutu eta, adibidez, erran nahi dizut, txikitatik Urepelen “ados” errateko “accord” erraiten zen eta ikastolen bidez edo irratiaren bidez edo, holako hitzak orokortu dira, gaurkotu dira, eta denek erabiltzen

ditugu eta denek ezagutzen ditugu, hara, eta uste dut Irulegiko Irratiak hortan laguntzen duen ere pixka bat euskararen hiztegia aberasten eta euskalki mota desberdinak ezagutarazten.

### **21. Eta gaur egun zein da egiten duen ekarpenik handiena hizkuntzaren arloan?**

Beti hau eta euskaraz aritzea. Lehen gauza euskaraz aritzea, euskara entzutea eta... ezpaita hain errex. Gure eremuetan euskara biziartzen du, da euskal komunikabide, entzunezko komunikabide bakarra beraz, bere tokia behar-beharrezkoa da Baxe-Nafarroan. Ez laike euskara entzungo irrati bidez ez baldin bazen Irulegiko Irratiarik Baxe-Nafarroan beraz, komunikazio eta euskararen ezagutarazteko tresna hoberena da.

### **22. Finantziarioari dagokionez nola deskribatuko zenuke Irulegiko Irratiako egoera ekonomikoa?**

Zaila. Zaila zeren laguntza publikoak badira, baina ez nahiko, ez nahikoak nire irudiko. Gure lanpostuak atxiki ahal izateko eta bereziki teknologia aldetik oraindik garatu nahi badugu edo lan sakonagoa egin, langile gehiago behar ginateke nire irudiko eta laguntza publikoek ez dute nahikorik ekartzen, eta gero beste esparru bat bada ere, Irulegiko Irratiak aspaldi danik etxez-etxe kanpaina bat egiten du entzuleek dirua ematen dute eta herriko gazteek herrietan etxez-etxe ibiltzen dira dirua biltzen. Badugu zantza aski ongi ibiltzen delako oraindik, baina gero eta zailagoa zaigu herri bakoitzean jendea atzematen kanpaina egiteko. Oso, oso, oso zaila da. Gero, da gizartearen aldaketa ere, gazteak ez dira lehen bezala, orain sare sozialekin eta ez dute, beharbada, lehen bezala etxez-etxe ibiltzeko beharrik beraz, hori sentitzen dugu. Egiten dute oraindik, hein batean uste dut, 40.000 € bildu genituen iaz pandemia garaian, ez da gaizki baina zaila da guretzako gibeletik ibili behar baitgira eta diru hori behar beharrezkoa dugu, hau gabe funtzionamendua hankaz gora joan litaike edo langile gutxiagoarekin ibili beharko genuke. Beraz, beti bada hori, zailtasun ekonomikoek arrastak ematen dizkigute nahi ditugun proiektuak ez baititugu eramaten langile eskasagatik bereziki.

### **23. Orudan zeintzuk dira finantzabide iturri nagusiak?**

Beraz, kanpaina alde batetik, kasik laurden bat edo heren bat eta gero laguntza publikoak. Orduan, egiten dugu... nahi baduzu, ez dakit esplikatuz dizute, txosten bat egiten dugu *F.S.E.R* deitzen dena Frantziako Kultura Ministeritzak aztertzen dituen. Frantzia mailan bada horrelako sistema bat irrati

haundiek, komertzialek, publizitate anitz egiten duten irratiek zerga bat ordaintzen diote Kultura Ministeritzari eta zerga horren bidez ministeritzak dirua banatzen die irratilibreei edo elkarte libreei, gu bezalako irratiei, eta txostenak egin behar dira eta hauen bidez notatua da eta notaren arabera gure lana justifikatu behar dugu, urte guzian egin den lana eta nota atertzen baldin bada notaren arabera diru laguntzak. Eta *F.S.E.R* horrekin diru laguntza polita da beste laurden bat erran nezake eta gero beste parte bat da *Euskal Erakunde Publikoak* ematen duena hor konplikatuagoa da zeren eta EEP-ek *Euskal Irratiei* ematen die eta *Euskal Irratietan* banatua da irratilibreei guzian artean eta parte gero eta txikiagoa da. Beren parte haunditu behar laike, erran nezake. *Euskal Kultur Erakundeak* ez du gehiago ematen, Euskal Erakunde Publikoak ematen die Euskal Irratiei eta gero [beste] irratietarat geratzen den dirua zeren eta Euskal Irratietan badira langileak ere: bada erredakotxe burua, animazio arduraduna eta koordinatzaile ekonomiko bat, beraz lanpostu hauek ordaintzen dira eta gero gelditzen dena banatzen da irratietan. Urte guzian aldatzen da, beraz ez da oso handia EEP-eren ekarpena. Enizuke zozokeririk erran nahi baina %5 edo horrelako zerbait izan behar da, eta gero, azkenik, badira iragarkiak eta publizitateak, hauek ere baditugu, iragarki eta publizitateak oso merke direnak irratian, baina parte bat ematen digute.

#### **24. Zenbat esango zenuke?**

Ez dakit %10 edo holako zerbait. Pena da, baditut irratian grafiko batzuk pixka bat diru laguntzak nola bideratuak diren... igortzen ahal dizkizut. Pasa naiteke irratirak edo handik bildu igortzeko zuri nahi baduzu.

#### **25. Zuek prestatzen duzue dokumentua eta gero hori FSER-eri bidaltzen diozue eta haiek kudeatzen dute Kultura Ministeritzarekin?**

Bai, Kultur Ministeri... Hori da *F.S.E.R*, lehen erran, dizudana hori da Frantziako estatotik heltzen den laguntzatik hori da Kultura Ministeritzak zabaltzen duen laguntza elkarte irratilibreei dira 700 eta piko Frantzian.

#### **26. Nola baloratzen duzu diru laguntza hori?**

Ba, beharrezkoa. Irrati elkarte baten bizitzea beharrezkoa du. Ez gira irratilibreei komertzialak, beraz ez badugu diru laguntza publikorik ezin dugu aintzina joan edo beste gisa batetarako irratilibreei eginez. Hor ezin da atxiki egunean hamalau edo hamasei orduko programazio bat ez baldin bada diru laguntza publikorik estatotik langileak pagatzeko, hori segur da. Ez gara irratilibreei komertziala, beraz ez dugu dirurik egiten

komertzio bidez, ez da gure helburua, gure helburua da irrati orokorra izatea denen zerbitzuko. Baditugu zerbitzu batzuk ordainduz direnak, baina merke. Beraz, bizitzeko beharrezkoak ditugu diru laguntzak interes publikokoak baitgira, interes publiko bat osatzen dugu.

### **27. Eta zenbat diru laguntza mota jasotzen duzue F.S.E.R-etik?**

Oso konplexua da. Izaiten ari dira bat baino gehiago. Bat bada funtzionamenduareztat edo aldaketa teknikoak ere egin behar ditugunean hor ere bada beste laguntza bat beti F.S.E.R deitzen da baina bada beste laguntza bat bost urte guziz tresnerian berrikuntzak egin nahi baditugu laguntzak ematen ahal dizkigute edo materialaren parte bat ordaintzen ahal digute bost urte guziz egiten den laguntza bat.

### **28. Zu sartu zinenean finantzabide iturriak desberdinak ziren gaur egunoeekin konparatuz? Etxez-etxe gehiago lortzen zenuten duela 20 urte?**

Aldatu dena ez da entzuleek atxikimen gutxiago diotela irratitari, da etxez-etxe ibiltzeko laguntzaileak atzemateko zailtasunak ditugula. Hori da gehiago. Lehen, herriko bestetan bezala, badira besta komiteak, bestak antolatzen dituzten komiteak, eta hoiak festak antolatzeko etxez-etxe diru bilketa egiten dute eta ohitura zuten ere otsailean irratientzat gauza bera egiten. Orai, desberdinki antolatuak dira gazteak, komiteak ez dira ibiltzen etxez-etxe lehen bezala eta ondorioak baditu ere irratia kanpaina eta zailago zaigu atzemate dinamika hori. Ainitzek deitzen gaituzte, *“Inor ez da pasa nire etxetik”* eta Amikuzeko eskualdean ere hutsune ainitz-ainitz ditugu. Garazi Baigorri eta Ostibarren ongi estaliak gira baina Amikuzen ez ditugu lortzen kanpaina egileak. Lehen ere hola zen, Amikuze apur bat gehiago frantsestua da, irratia gutxiago ezagutua baina ez dugu lortu aldatzen hori, hori segur.

### **29. Diru publiko gehiago eskuratzen duzue gaur egun?**

Nire ustez bai, baina duela 20 urte ez nintzen batere interesatzen irratia egoera ekonomikoaz. Erran nezake, askoz beranduago hasi naiz begiratzen, zinez. Orduan, pentsatzen dut baietz. Gero, sartu nintzenean bagenuen beste diru iturri bat ere, festibalaren antolatzaile ginen, *Euskal Herria Zuzenean* festibala. Irulegiko Irratia eta Piztu elkarteak sortu zuten eta hasieran Irulegiko Irratia laguntzaile sare handi bat ekartzen zuen eta trukean festibalak langile bat ordaintzen zigun. Iraun du zenbait urtez baina memento batean festibalak bere bidea hartu du eta langile postu hori ez zen gehiago... ez genuen lehengo ekarpena egiten, beraz galdu genuen finantzaketa hori, normala dena. Festibalak bere langileak eta batzituak eta ez zuten gehiago Irulegiko Irratiaren beharrik lehen bezala.

### **30. Gaur egun non entzuten da Irulegiko Irratia? Ze entzute-eremu estaltzen duzue?**



Baxe-Nafarroa osoa, Xiberuan parte batean ere entzun daiteke eta Lapurdiko parte batean ere bai.

**31. Sartu zinenean eremu berdina estaltzen zenuten edo zabalduz joan da?**

Hori nik ezin nezake erran baina berdintsu erran nezake, berdintsu.

**32. Zeintzuk dira egun lanean dihardutenak eta zeintzuk dira haien perfilak?**

Bai, orain dela hiru hilabete utzi dut. 7 langile dira. Hauetarik bat Amikuzeko Irratian denbora osoz, antenna bat baitugu Donapaleun Amikuze eskualdean edo eskualdeari dedikatua. Irulegiko Irratiaren menpeko antenna da edo lotua, nahi baduzu, baina han langile bat eta Irulegiko Irratian 6 eta guztiak denbora osoz.

**33. Zenbat kolaboratzaile daude gutxi gora-behera?**

Anitz badira, nik esango nuke 40 bat. Sartu nintzenean ere berdintsu. Behar bada pixka bat gehiago garaian. Berriketari gehiago genuen, beharbada gehiago, laguntzaile gehiago genuen lehen. Irratsaioak egiten zituztenak gehiago baziren. Lehen 60tik gora zen, galdu ditugu kolaboratzaileak pixkat, bai. Jojo Bidartek hobeki errango dizu, nire ustez, presidenteak, baina gehixago bazen, gehixago bazen.

**34. Sartu zinenean berriketarien perfilak anitzak zirela esango zenuke?**

Sartu naizenean jadanik baziren historiko batzuk, langile historikoak, Pantxo, Bernadette, Jojo, Marie Agnès... Horiek irratia oinarria dira aspalditik, beti entzuten genituen ahotsak. Gero emeki-emeki langile berriak sartu dira, beste batzuk joan, beste batzuk itzuli... hara, ez dakit... Perfila denetarik da, hor hartuak izan diren gazteak perfil polita dute, kazetaritza gustokoa dute, animatzaileak baditugu jada... Hori da, lehen erraten nizuna, lehen denetarik gehiago egiten genuen, orai pixkat profesionalizatu gira eta bakoitzak baditu bere atalak, animazioa egiten dutenak edo kazetaritzan ibiltzen direnak. Hau azken 10 urteetan asko sentitu da, bereizketa hori lehen etzana. Lehen ez zen bereziketarik egiten eta orain bai, nahiz eta denetarik egiten jakin behar dugun.

**35. Orduan esango zenuke gaur egun erraz aurkitzen direla kazetariak eta langileak?**

Bai. Bai, bai. Perfila bai, gero, hartzen ditugun sekatzan direlarik langileak ez ditugu diplomak baitaezpada sekatzan, dena den lekuko gazteak nahi ditugu, lurraldea ezagutzen dutenak eta euskara

menperatzen dutenak, holakorik ez ditugu aurkituko kazetaritza edo animatzaile eskola egin dituztenak, ezta, oso gutxi dira. Hemen jada ez da kazetaritza eskolarik, hegoaldean da bakarrik eta animatzaile eskolarik ere ez da beraz, hara, lekuko jendea nik erran nezake, euskaldunak, lurraldeak ezagutzen dutenak eta motibatuak izan behar dute eta badira.

**36. Erraztasunak dituzue orduan langileak aurkitzerakoan?**

Ez, ez, zaila da. Ez da errexa eta, nola erran, lan baldintzak ere ez dira errexak irratan. Berri aurkezle zirenean edo goizeko saioak dituzunean oso goizik hasten zara lanean. Gero, bestela, berandu bukatzen duzu, beranduagoa hasi baina berandu bukatzen ere gauean. Asteburuetan ere permanentziak badira eta horrelakoak, beraz gazte... gaur egungo gazteetan ez dira hainbeste erakarriak horrelako bizimodu bati. Pixkat militantzia parte bat ere bada, e, irratan lanean aritzen, eta militantzia parte hori zaila da batzuentzat. Guk bizi izan dugu betidanik eta gogotik egin izan dugu, baina gaur egun pixka bat orduak kondatzen dira eta hori guzia, baina ez da errex gure erritmoari jarraitzea eta ez ditugu irrati frantses handietako hilabete sari berdinak ere orduan... elkarte gira beraz, baldintzen aldetik motibatua izan behar da irratan lan egiteko, maitatu behar da irratigintza eta euskara.

**37. Hasi zinenean zeintzuk ziren irratiaren helburuak?**

Nik uste beti izan da kalitatea hobetzea eta entzulearekin hurbiltasuna atxikitzea. Badugu irratiaren entzuleekin harreman berezi bat, nere ustez. Estimaten gaituzte zerbitzuak ekartzen diegulako eta horiek ere laguntzen gaituzte trukean kanpainarentzat [dirua ematen], beraz hurbiltasun hori entzulearekiko, hurbil izate hori beti izan da gure helburua eta hau atxikitzen saiatu gira urte luze hauetan.

**38. Orduan ez dira helburuak aldatu?**

Ez dut uste. Ez, ez. Beti berdina da, hurbiltasuna, euskara biziaraztea, euskara entzunaraztea eta entzuleetarik hurbil izatea, nik uste gure helburu nagusiak diren eta betidanik halakoak izanen dira. Gero, hobetu. Beti... gure dozut, denentzat gauza bera dela hobetzea ahal den heinean, beti helburuetan izan da kalitatea azkartu, eskaintza berriak egin, asmatu... bai, hori komunikabide baten lana da eta helburua beti.

**39. Zein da gaur egungo zuen programazioaren edukia?**

Orduan, lehen erraten nizuna, ainitz *Euskal Irratiekin* partekatzen dugu. Orai, erredakzio taldea eta animazioko parte haundi batzuk ere *Euskal Irratiekin* amankomunean eginak dira. Beraz, *Irulegiko Irratiaren* parte, erran nezake, dela 4 ordukoa edo 4 ordu t'erdi egunean. Autonomia osoan egiten dugu programazioan beraz, erran nezake dela pixka bat gure lurraldeari egokitua den programazio bat, erran nahi baitu Baxe-Nafarroko herrien berriak, gure abisuak... orai jakin behar da laborantza munduan abisuak bereziak direla, izan daiteke saltzeko ardi tropa bat edo ba deizteko makina bat edo belarra saltzeko edo sekatzeko dela xerri bat hasteko... dira zinez laborantza munduari lotutako abisuak, autoak ere tartean baina gehien bat biziki... hara, baserri munduko entzule bati ari gira. Kantagintzan ere nahiago dituzte lekuko kantariak, lehengoak, Erramun Martikorena edo holako bakizu... biziki euskal kantuar baina garai batetakoak, gero gazte nahiago dituzte gazte musikak, hori segur, baina denentzat egin behar baita eta saiatzen gira ekletikoak izaiten eta gero gure tokikoan, Irulegiko programazioan, dira ere Baxe-Nafarroako erreportaiak, Baxe-Nafarroako elkarleen berriak edo zinez gure eremuari lotutako informazioak ez direnak baitaezpada zinez interesgarriak Gure Irratiko entzule batentzat edo Xiberoko entzule batentzat, dira gehiago lokalak, lekuko jendeari zuzenduak.

#### **40. Eduki aldetik orduan nola desberditzan da Gure Irratiatik eta Xiberoko Botzatik?**

Ez da hainbeste desberdintasun. Kronikalariak, adibidez, desberdinak dira baina bestela bakoitzak egiten ditu bere lekuko erreportaiak, bakoitzak baditu bere abisuak... pixka bat sistema berdina dugu baina bakoitzak bere lekuan egokitua, ez da desberdintasun ainitzik.

#### **41. Esan didazu Irulegiko Irratia dagoela bideratuta gehiago baserri mundura, orduan uste duzu Gure Irratian kaletarra den publikoari dagoela gehiago bideratuta programazioa?**

Programazioa ez, baitaezpada, abisuak bai, abisuak desberdinak dira. Gero, baserri mundu bati mintzo gira, baina baditugu laborari emankizunak. Laborarien emanaldi bat badugu astean behin, hau Euskal Irratietan pasatzen da. Laborariak badaude Lapurdin eta ainitz ere Xiberon, da gehiago entzuten gaituen publikoari egokitzen gara eta abisuak edo kantu mota desberdinak desberdina izan daitekeela probintzietan, Xiberon Xiberotar ainitz pasako dute, kantu xiberotarrak... Guk pixkat denetarik. Gure irratian ere bai, baina, bakoitzak badugu gure... ez dakit, filosofia edo gure egiteko manera. Eduki aldetik ez da hainbeste desberdintasunik, da nortasunaren aldetik erran nezake, edo mintzo giren publikoaren aldetik. Gero denek ber printzipioak ditugu: elkartea ezagutarazi, lekuko berriak eman... eta manera berdinen egiten dugu nahiz eta *Gure Irratian* osoki euskaraz egiten duten eta guk *Irulegin* eta *Xiberoko Botzean* ere parte bat frantsesez onartzen dugu, parte txiki bat.

**42. Zure ikustekoi eran aldaketarik egon da programazioan zuk lan egin duzun urteetan zehar?**

Bai, bai. Izan da, bai. Egituratu gira gehiago, *Euskal Irratiekin* lan parte handi bat garatu dugu elkarrekin eta sortu ditugu ba goizetako saioak, goiz berri, eguerdiko saioak, erredakzio amankomuna... eta horrek aldaketa ainitz ekarri du gure lan egiteko moldeetan, pentsatzeko moldeetan ere. Hara, pixka bat Iparraldea gehiago osoki hartzen dugu, gutxiago lekukoari interesatzen gira, baina zinez Iparraldea eta ahal denean Euskal Herria osotasunean agertzen dugu. Lehen ere bazen, baina modu desberdinean. Hor zinez *Euskal Irratiek* leku garrantzitsu bat hartu dute baina *Euskal Irratiek* sortu ziren ere langile gutxiago baigenuen eta gauzak partekatze beharra baigenuen. Garaian adibidez, adibide bat emango dizut, hautetsi batekin edo kargudun batekin elkarrizketa bat egin behar genuenean hiru irrati ginen eta hiruek bakoitzak bere aldetik egingo zuen elkarrizketa eta memento batean konturatu gira etzuela zentzurik, publiko berdina dugu, euskalduneri ari gira beraz, hiruek lan hori egiteko, hiru kazetarik lan hori egiteko ordez, batek egiten du eta partekatzen da irrati guzien artean eta horrela dira sortu saio amankomunak.

**43. Gaur egungo gaiak eta orain dela 20 urtekoak aldatu dira? Hau da, gaien aukeraketa aldatu da?**

Bai, bai. Aktualitatearen arabera aldatu diren gaiak dira. Azken bi urteetan pandemia asko aipatu dugu, hori baino lehenago bake prozesuarekin egon gara ainitz lanean, bake prozesua baino lehen zen gehiago gatazka politikoa eta presoen inguruan eta hainbat gai. Gero betikoa, herriaren politika, guk ezagutu dugu *Euskal Elkargoaren* sorrera – Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) – sorrera hori hurbiletik ere segitu dugu. Aktualitateari arrunt egokitu gira gure animazio tarteetan beti. Duela 20 urte, ez ginen gauza beretaz ari medikuntza, osagarria behar bada gutxiago lantzen genuen, laborantza gehiago eta orain sozial parteak saiatzen gira soziala gehiago garatzen, gure lurraldeari lotutako bilakaerak aztertzen... ez ditugu gai berdinak tratatu 20 urte eta egun, hori segur da.

**44. Duela 20 urte, zein zen irrati bidez zabaldu nahi zen mezua?**

Nire ustez beti euskararen babestea, euskaraz mintzaraztea, entzutea, euskara zabaltzea, hori segur, baina ere Euskal Herriaren ikuspegi bat ezagutaraztea jendeari, harremanak atxikitzea Nafartarrekin, Irulegiko Irratiak beti ainitz obratu du Nafarroaren egunean eta pixka bat Nafar ispiritu hori, eta beti izan ditugu harremanak *Xorroxin Irratia*-rekin edo *Euskal Herria Irratia*-rekin, hara, lurraldetasuna inportanta izan da beti guretzat zenta gure entzuleak ez dira denak abertzaleak, ez dira denak euskaltzaleak. Hala ere, guk beti asumitu izan dugu euskal herritarrak ginela denok eta Euskal Herri mailan pentsatzen

genuela eta Euskal Herri mailan begiratzeko genuela aktualitatea, ez bakarrik gure xokoa baizik eta osoki Euskal Herria aipatzeko, hara.

#### **45. Gaur egun irratia bidez zabaldu nahi duzuen mezua berdina da edo aldatu da?**

Ez, berdina. Berdina da. Berdina da baina egia da, iduritzen zait neri, e, pertsonala da, pixka bat mugak berriro jarri direla azken urteetan. Zergaitik? Nire ustez Euskal Hirigunearen sorrerarekin, pixka bat, antolaketa politiko berri bat ezagutzen dugu eta pixka bat Iparraldeari zentratu gira gu. Bake prozesuari begira ere Iparraldean ere dira ainitz urratsak eman eta pixka bat, Nafarroan edo EAE-n gertatzen dena, pixka bat utzi dugu, ez dakit, naturalki eginga, gutxiago aipatzen dugu, aipatzen dugu baina ez lehen bezain bat. Harremanak gutxitu dira, ez dakit zergaitik, horrela da. Gero baditugu beti, kolaborazioak egiten ditugu ainitz Berria egunkariko kazetariekin, hegoaldeko komunikabideetako kazetariekin kolaborazioak baditugu ainitz eta saiatzen gira pixka bat lantzen hori, baina zentratu gira gehiago Iparraldean, egoiten gira gehiago Iparraldeari buruz garai hauetan.

#### **46. Irratiaren historian, zeintzuk izan dira mugarrak edo momenturik azpimarragarriak?**

Ez dakit zer erran, ainitz izan dira. Amikuzeko antenaren sortzea, hori segur, belaunaldi baten joatea ere berriki, Pantxoa, Bernadette... erretretara joan dira, Jojo... historikoak ziren beraz, belaunaldi aldaketa bat bada hor, Irulegiko Irratian, azken lau urteetan, hiru urteetan... eta pixkat beldur egiten dut eta denbora berean, beharrezkoa da. Lehenagotik, erran nahi nuke, saretzea *Euskal Irratiekin*, hori izan da aldaketa haundi bat, lehen erran dizudana ere, emeki-emeki profesionalizatzea eta gero momentu haundiak bizi izan ditugu beti. Nik erran nezake urte guziz edo bi urtetarik Nafarroaren eguna egoten da, momentu azkar bat, *Herri Urrats*, *Korrika* garaiak... eta horiek dira bizi ditugun, urte guziz bizi ditugun, momentu haundiak eta beti... beti bezain hunkigarriak, erran nezake. Adibidez, *Korrika* Urepeletik abiatu zenean, historikoa izan zen guretzat, oso ongi pasa genuen eta biziki memento haundi bat izan zen. Hala, holakoak nik gogoan atxikiko ditut beti, *Korrika* Urepeletik zoragarria izantzan eta antenan ere irratia erantzuten ere bai gertakari handia zen. Nafarroaren eguna urte guziz ere gertakari handi bat da guretzat, hala, ez dakit.

#### **47. Eta lorpenik handienak?**

Nik erran nezake zuzenean egin ditugun horrelako saioak, *Korrika* edo hauteskundeak bezala. Hauteskundeetan ere entzunak ginen e, beti herriz-herriz ematen ditugu emaitzak, baina azken urte hauetan Berriarekin lan eginez emaitzak internet bidez zabaltzen ditugu interes ainitz sortzen dugu,

ainitz-ainitz eta lorpen polita da. Ikusten dugu holakoetan puntualki zenbat entzunak garen eta zenbat inportanteak garen jendearentzat eta horrek plazer egiten du. Lortzen dugu, lortzen dugu. Gure profesionalizatzen egin dugun indar hori entzuleek itzultzen digute, estimatzen dugu eta hegoaldean ere ezagutzen gaituzte, *Euskal Irratiak* ezagunak bilakatu dira, eredu ere batzutan eta egiten dugun lana ez da debaldetakoa, azkenean. Ederra da. Batzuetan barnetik zaila zaigu ikustea kalitatea egiten dugula, baina kanpotik erraten digute eta erakusten digute ba bai, lan polita egiten da beraz, hori lorpen handia da.

#### **48. Zer ekarri dio Irulegiko Irratiak Baxe-Nafarroari, Iparraldeari eta oro har Euskal Herriari?**

Ba euskara mantentzea jadanik, eta euskararen ezagupen polita ukaitea. Lehen erran dizudan bezala, euskalki desberdinak ezagutaraztea, hori, egunerokotasunean euskaraz bizitzen ahal dela jakinaraztea, ulertaraztea, eta nik uste podere publikoek ere aldatu dute jokamoldez. *Euskal Elkargoan* euskara teknikariak sortu dira eta abar. Nahi dut erran, *Euskal Irratiak* ez bagina hor ikastolekin batera eta ez baldin bazen kontzientzia hori sortu euskara biziartzeko, euskaraz hitz egin behar direla eta itzulpenak egin behar direla eta euskarari leku bat utzi behar ziola esparru publikoan ere euskara desagertua izanen zen, beraz paper garrantzitsu bat badugu alde hortarik, nire ustez, eta euskaldun berriek entzuten gaituzte, guri esker euskara hobetzen dute, euskarak espazio bat baldin badu leku publikoan, parte handi batean irratitari esker da, nere ustez hortan badugu rol kapitala.

#### **49. Azkeneko galdera orain bukatzeko, zeintzuk uste duzu direla etorkizunera begira dauden erronkarik handienak?**

Irautea, erran nezake, beste 40 urtez. Irulegiko Irratiak 40 urte ospatzen ditu ondoko egunetan, urtebetetzea oraingoa da, eta 81ean sortu zen urtarrila edo otsaila hor fite 40 urte betetzen dira. Irautea eta ez desagertzea mapatik, erran nahi dizut zergaitik, jendeak aldatzen baitituzte beren ohiturak konturatzen gira gazteek irratia gutxiago entzuten dute, podcast-ekin ari dira edo musikak telekargatzen dituzte edo bideogintzan ari dira askoz gehiago, bideoak begiratzen eta irratia beste manera batez kontsumitzen da. Autoan edo holako... eta hori konplikatua da irratientzat bizitzea eta ez bakarrik guretzat irratia guzientzat gauza bera da eta horregatik beharko dugu guk ere egokitu, internet sarea hobetu, sare sozialetan gure lana hobeki erakutsi... pixka bat gizartearen molde berrieri egokitu eta horretarako ahalak eskasak ditugu, formakuntza eskas dugu, baina beharko dugu zentzu hortara joan bestela irratia desagertuko dira. Hor dira, hor izango da beti zerbait, baina gaur egun ematen dugun heina atxikitzeko ahal gehiago beharko da beraz... baina hor erraten dizudana da nik gehiago da

gizartearen aldaketak dit beldur egiten, irratia ez da lehen bezala kontsumitzen, ez da sukaldean irratia pizten lehen bezala, hara, ez da gauza bera, hala ere. Bideo gehiago bada, etxeko gazteek, nire haurrek irratia ez dute hainbeste entzuten orain, autoan bainan bestela, pfft! Bost axola! Eta hori etorkizunari begira ez dakit zer emango duen horrek.

## 2. Belaunaldiko Transkripzioa: JONE BARNETXE

### 1. Hasteko kontaguzu nor zaren eta ze harreman daukazu Irulegiko Irratiarekin?

Ados. Beraz, ni Jone deitzen naiz. Sartu niz irratian duela orain aspaldi. Etzen lehen belaunaldia bainan aski fite sartu ini, duela 22 urte irratian ari naizela. Holaz irratian sartu nintzan, beste lan batzuk egin nituen aitzin eta gero aukera bat ukan nuen. Beraz, lan deialdi bat egin zuten orduan Donibane Garazin Irulegiko Irratian lan egiteko eta, ni, ikastolako haurra. Lehen haurretan Seaskan eta euskarari biziki atxikia, Irulegiko Irratia ikusten nuen anitz gauza jorratzen zirela, hemengo aktualitatea bainan ere musika, kultura... ainitz biziki leku egokia edo interesanta izanen zitzautala, beraz, ene izena eman nuen eta sartu nintzan diela 22 urte Irulegiko Irratian eta geroztik hemen, langile bezala.

### 2. Haurtzaroan entzuten zenuen Irulegiko Irratia? Zer zen zure etxean Irulegiko Irratia haurra zinenean?

Irulegiko Irratia, bai. Betidanik ez dakit, bainan irratia etxean entzuten ginuen, bai, eta Irulegiko Irratia entzuten ginuen. Hor zen piztua egun guzian eta enentako ez zen beste irratirik ere, ez nuen sekulan aita amekin bizi nintzelarik bederen. Gero, egia, frantses eskolan sartu nintzalarik gehiago *Ciud Radio* edo *Energy* eta holakoak entzuten nituela besteak bezala egiteko hemengo kantuak eta guk holakoak ez baitziren kolegioan entzuten, gehiago frantses barietate hori. Gero, moztura bat egin nuen Irulegiko Irratiarekin bainan gero, hara, berriz hurbildu, bistan dena.

### 3. Sartu zinenean formaziorik ukan zenuen ?

Formakuntza irratigintzan batere. Batere, batere. Nik segitu dut laborantza formakuntza bat *basotik-landa* eta ere kudeantzan edo gestio ikasketak egin, eta batere ez nuen irratigintzan formakuntzarik. Bainan gero hastapen hortan, egia hartzen zirela hemen irratian sartzeko, galdegin ahal diren gaitasunetan diploma edo kazetaritza ikasketak eginak baldin badituzu hainbat hobere, bainan bestelaz gehiago da euskara maila ona ukaitea, kultur arloan ezagutza ukaitea, hemengo egituretaz zerbait jakitea, hemengo aktualitatea segitzea... eta hori dena, aski naturalki egiten nituen eta egiten ditut oraino gaur egun. Hara, gero egia hastapen hortan formakuntzarik ez, bainan formakuntzak eskaini dira hemen, nahi baduzu, langileek kotizatzen dugu formakuntza jarraiki baten segitzeko, eta ukaiten ditugun formakuntzak irratia antolatzen dituenak, edo kanpoan edo barnean, bainan soinu montaketetan, kazetaritzan, sare sozialetan eta hortan barne formakuntza ona ukaiten dugu denek hemen.

#### **4. Eta zu sartu zinenean nolakoa zen irratia? Zein langile zeuden eta ze lan egiteko modu?**

Orduan zonbat langile ez dakit, bainan, nola erran, baziren hor irratilari ezagunak, lehen belaunaldi hortako irratilariak, hemen den-denek ezagutzen zituzten eta dituzte. Gu gehiago itzalpean... horien itzalpean edo egon gira. Horiek sortzaileak eta ainitz ekarri dute beren marka, Pantxo Irigarai, Jojo Bidart, Bernadette Argain, gero Argitxu Kantero ere, Marie Agnès nahiz eta oraino ari den eta pixka bat gazteagoa den, biziki gazte sartu da Irulegiko Irratian beraz berak ere bere hatza utzi du eta uzten du oraino. Gu sartu girelarik beste zerbait zen, ez dakit, ene ustez entzuleari galdegiten baldin badakozu orain nor ezagutzen duen Irulegiko Irratitik nahiz eta erretretan diren beti aterako ditu Pantxo, Jojo, Bernadette edo Marie Agnès... horiek marka utzi dute eta marka utziko dute. Nik ibilbide biziki xumea egin dut horien ondoan. Nik ez dut, baitezpada, emankizun berezirik egin, edo, nik egin dut ibilbide xume bat, ene lana gehiago animazioan, beharbada, gehiago haurrekin ere bainan haurren saioak edo irratia direlako hortan bainan ez dut holako hatza utzi edo utziko. Ene ibilbide xumea egiten dut langile bezala.

#### **5. Eta lan egiteko modua zer nolakoa zen egungoarekin konparatuta?**

Ez da konparatzen ahal ere hastapen hori eta gaur egungoa. Ezin da konparatu. Iduri du beste mendeko edo beste garaiko lan bat egiten ginuela. Ez da deuse berdina, deuse-deuse. Mahaitik hasita, soinua lantzeko manera... orain ordenagailuz ari gira, lehen kazeta, berrigintza... Gero egin zirelarik mini diskak behar bada hasi ginen gehiago soinu montaketak egiten bainan aitzin zen biziki...nola erran... Berriak ukaiteko ere beste bide batzuk, sare sozialak edo internet etzela orduan gehiago harremantzen kanpoarekin eta behar bada entzuleak ere beren abisu edo berrien emaitako manera bakarrenetan



zuten irratia, beraz, errekiago ere urretzen ziren irratirat. Gaur egun, gehiago, gu joan behar gira haienganat beren informazioaren ukaiteko. Nahiz eta hurbiltasuna atxikitzen dugun, bainan ez da berdin, ez da konparatzeko ere. Informazio ainitzez gehiago dugu orain, bainan jendeekin harremana, behar bada urrundu da pixka bat hala ere, nahiz eta hurbileko irratia joaiten ginen, hori ez da... Jendeek galdegiten daugute telefono zenbaki bat edo ez dakit zer eta irratia baino haratago joaiten da oraino irratia, bainan hastapen horrekin konparatuz deus ikustekorik, hala ere. Hastapen hortan ere, langile batzuk baziren bainan ondoan zen animazioko ekipa, laguntzaile ekipa. Orain, ainitzez gehiago profesionalizatu gira, beraz, laguntzaileak behar bada guttiago dira, nahiz eta herri guzietan baditugun berriketariak eta hola, bainan ez dute gehiago baitaezpada emankizunak egiten. Lehen laborarien emankizuna, edo sozial emankizuna edo presoan oihartzuna edo holako emankizunak denak-denak laguntzaileak egiten zituzten. Orai, petto gutxiago da, amateur edo ez dakit nola esan behar den. Gehiago profesionalizatu gira eta behar bada laguntzaileentzako leku guttiago ere dugu. Musika emankizunak badira oraino, eta kirol berriketari edo herrietako berriketari, bainan emankizun osoak, tematikoak edo, guttiago dira, hala ere, laguntzaileek eskaintzen dituztenak. Beste garai bat. Gauza batzutan irabazi dugu eta beste batzutan galdu edo... kalitatean erran nahi dut.

#### **6. Eta nola gogoratzen duzu zuk sartu zinenean Irulegiko Irratiaren harremana Iparraldeko beste Euskal Irratiekin?**

Jadanik egina zen harremana. Saretze bat bazen irratien artean. Baionan bazen Gure Irratia eta Xiberuan Xiberoko Botza eta ni sartu nintzanean, jadanik sare hori egina zen eta berri-sailak elkarrekin egiten ziren. Euskalkien nahasketa bazen eta euskalkien nahasketa hori biziki aberatsa, gainera. Bainan Lapurditik Xiberuarat jadanik harremanak eginak ziren eta nik biziki natural hatzeman dut eta biziki aberasgarria gainera eskuara desberdin horiek entzuteak. Hitz ainitz ikasi ditugu guk ere irratian, nola erraiten diren adibidez *Kattalin gorria* [marigorringoa] Xiberuan edo *Lege Xuria* polizia erraiteko eta hala... aberastasun bat euskalkien nahasketa hori. Ene ustez ez da beste irratirik holako euskalki dibertsitatea eskaintzen duenik Euskal Herrian.

#### **7. Berri sailetaz aparte ze beste eduki edo emankizun ematen zenuten amankomunean?**

Amankomunean hastapen horretan? Ez dakit, ez naiz soberan oroitzen. Bakotzak bere emankizun ekarpena egiten zuen, hori dudarik gabe. Musika emankizunak, laborarien emankizunak ere. Batek ekoiztu eta besteak hedatu bere mementuan, ez dakit zer egiten zen xuxen. Emankizun tematikoak ziren gehien bat trukutzen eta gero, tokikoak, orain bezalaxe. Orain ere gehiena amankomunean dugu bainan tarteak tokikoak atxikitzen ditugu. Adibidez, goizetan 8:15-10:00ak artean tokikoa dugu, erran nahi du,

bakoitzak berea egiten duela eta hor gehiago gure eremuko, Baxe-Nafarroako, berriak emaiten ditugu, erran nahi baita, aldizkatuz egun guziz herrietako berrikeriak. Baditugu bizpahiru egun guziz ba teletatik edo herrietako berriak... Gero baditugu tokiko gaiak euskal irratien berrigintzan pasatzen ez direnak, gehiago lokalak direnak, eta gero baditugu ere abisuak. Ordian, hori da abisuena da, nola erran, salerospenak. Orduan bakotzak bere kolorea badu, irrati bakotzak, bainan gu gehiago laborantzako abisuak ditugu edo xakur galdu bat edo sasoi hontan urde gizenak saltzeko – urdearen sasoina baita – edo autoak edo belarrak, edo bazkak... holako anitz baditugu, beraz horiek gure tokiko programazioan pasatzen ditugu, eta gero artetik, hemengo hitzorduak. Elkarte batek zerbait antolatzen badu, Donapaleun edo Donibane Garazin, tarte horretan erranen dugu eta hemengo komertzantzen publizitateak ere bai. Hor gehiago lokala da, nahi baduzu. Beste diferentzia ttipi bat ere Irulegiko Irratian frantses pixka bat onartzen dugula. Beraz, euskal irratietan dena euskaraz da eta frantsesdun bat mintzatzen baldin bada itzulpena egiten daukagu euskaraz gaineratik. Bikoizten dugu. Irulegiko Irratian tolerantzia ttipi bat badugu, bistan dena, lehenesten ditugula euskalakariak bainan, hala ere, tolerantzia ttipi horrekilan onartzen ditugu frantsesdun edo frantsesez egin diren elkarrizketa batzuk. Hala baita egoera hemen. Denetarik bada. Denek ez dira euskalakariak eta gai guzietan... gai ainitzek merezi dute irratian aipatzia, aipatua izaitia.

**8. Orduan zeren arabera egiten da hizkuntza bat edo beste egiteko hautua? Hau da, ze eduki egiten dituzue euskaraz eta zeintzuk beste hizkuntza batean?**

Galdera zabala. Eztakit, elkarte batek zerbait antolatzen baldin baitu Baxe-Nafarroan eta elkarte hortako nehor ez baldin bada euskalakaria eta gaiak merezi baldin badu ba, hala ere, egingen dugu frantsesez, bainan ez dakit etsenplu baten emaiteko. Ez dakit ze etsenplu eman egia erraiteko. Usu dira gai bereziak, ez dakit, heritasun bati buruz edo adituak batzutan euskaldunak falta direla edo badakizu? Gaiak merezi du bainan ez da euskaldunik, beraz, nola egiten dugu? Hori da frantsesez onartzen duguna eta frantsesez onartzen dugularik ezin duzu bikoiztu gai bat 5 minuta irauten duena. Ezin duzu bikoiztu 5 minutaz, ez da entzungarria, beraz, uzten dugu den bezala. Batzutan hala ere, barnekoak ikusten dezan euskara biziki garrantzitsua dela guretako, galdera guziak euskaraz egiten ditugu zuzenean pertsonak ulertu dezan ere euskararen garrantzia Irulegiko Irratian, beraz, galdera euskaraz eta erantzuna frantsesez baldin bada eta gero, ez baldin bada soberan luzeaz berak erraiten duena laburbiltzen dugula euskaraz ere bainan ez da eta gainera ez dugu ahalik holako elkarrizketen bikoizteko. Hori biziki lan haundia da. Orenak behar litaizke gehiago guk gaiak egiterakoan eta gu xumeki ari gira. Bikoizketa lanak lan gehingarrienat galdegiten gautu, beraz, entsaiatzen gira euskaraz egiten, entsaiatzen gira bikoizketa

lanak egiten bainan ezin delarik, ez da. Gero, nahi baduzu, ez dugu ez “linea editorial”. Baxe-Nafarroan gertatzen delarik zerbait eta zerbait hori interesa baldin bazaugu, nahiz eta euskaldunik ez izan, gaia lantzen dugu, bainan hori langileen arteko aste guziz egiten dugun bilkuran aipatzen dugu gaiak merezi duen edo ez langileen artean. Ez dugu edozein, gai ekartzen ere ez. Ez dugu linea editorial delakorik bainan irriatiak badu kolore bat, beraz, ezin dugu edozein gai, nola erran..., zentsura egiten dugu edo ez dakit nola erran behar den, gure mugak ere baditugu, filtro batzuk ditugu. Orduan, langileen artean denak ez ditugu behar filtroak bainan orokorki kolorea erakusten dugu irratian. Langile batetik bestera ez dira arras berdinak bainan hala ere langileen bilkuran, aste guziz egiten dugu langileen arteko bilkuran, nork zer lantzen duen eta hor, beraz, eztabaidatzen gai batek merezi duen edo ez. Gero ez da eztabaida handirik, erran nahi dut, aski naturalki egiten dela selekzioa.

#### **9. Zu sartu zinenean nola deskribatuko zenuke euskal irratigintzaren egoera Nafarroa Beherean eta oro har Ipar Euskal Herrian?**

Sartu nintzalarik, egia erraiteko, gazte nintzan eta enintzan baitaezpada ohartzen. Ez dakit, nik plazer nuen lan hortan bainan ez nuen baitaezpada neurtzen arras irriatiak ukaiten ahal zuen eragina, zeren eta zinezko eragina duela, hala ere, hizkuntzan edo kulturaren edo euskalgintzan, nahi baduzu. Orain gehiago neurtzen dut, orduan ez dakit neurtzen nuen, ez dakit. Behar bada orain baino... nahiz eta ez dakit ene inpresioa da... orain eta lehen ez da batere berdina, hori argi da, bainan iruditzen zait lehen beharbada lan haundiagoa egin behar zen euskara gure paisaietan sarrarazteko. Iruditzen zait garaiak errezoagoak zirela orduan. Bazen egiazko saretze bat edo hor zen irriati bakarra zen, nahi baduzu, Irulegiko Irratia Baxe-Nafarroan eta den-denek entzuten zuten. Gaur egun gehiago joan behar da finantzen, hori segur da. Diru aldetik neke da eta, ez dakit, orain ikusten dut irratia entzuleen atxikitzeke indar handia egin behar dela. Lehenago ez zen deus egitekorik, hor ziren entzuleak. Gaur ez da hori hainbeste. Egiteko manerak edo entzuteko manerak ere biziki aldatu dira. Lehen, irriati bakar bat zen eta frekuentzia ez zen sekulan aldatzen. Gaur egun, zapatzen da irriati batetik besterat eta gazteek ez dute irratirik entzuten. Ez dute gehiago irratirik ez dute gehiago entzuten ere, orain interneten dira edo. Beraz, beti behar da egokitu, hori bai, ez dakit, iruditzen zait. Lehen, hara, bai, hor ziren entzulea, edozein gauza emaiten zitunean, irriati bakar bat zuten, euskal musika entzuteko manera bakarra, berriak hemen entzuteko manera bakarra zuten irratia irratia gaur egun duzu hainbeste duzu posibilitate ez duzula irratitari baitaezpada pentsatzen. Autoan entzuten dute behar bada pixka bat eta ono, bainan gero, behar bada, behar da lan egin gauza interesanten proposatzeko.

**10. Sartu zinenean duela 20 urte zeintzuk ziren euskalgintzaren inguruan ziharduten lanketak irratian bainan baita irratitik kanpo?**

Euskalgintza nolakoa zen? Ez naiz oroitzen egiazki, ikastolak, bistan dena, ikastolen inguruan bazen mugimendu dinamika eta gero baziren kultur elkarteak; Baigorri Basaizea, Haziberri, bazen ere kultur etxea Izuran, Donapaleun ere ikastolaren inguruan bazen dinamika... eta irratia hortzen, paisai hortan euskal elkarte bezala ere ezagutua edo. Ez dakit zer erantzun horri. Denak baliatzen zuten, nahi baduzu, tresna bezala baliatzen zuten irratia komunikatzeko eta tresna bat zen euskararen zerbitzuko. Euskalgintzako elkarteak hor dira beti, Bazhaizea zabalik, indartsu dira eta irratia baliatzen dute bainan, ez dakit.

**11. Irratiaren baitan ze lanketa gogoratzen dituzu irratiaren barruan? Programa bereziak edo euskara eskolak...?**

Behar nuen pixka bat prestatu zeren, egiazki, eniz soberan oroitzen zer egiten zen denboran. Musika emankizunak eta, bistan dena. Pasatzen zena animazioa zen. Animazioa zuzenean bi orenez, kantariak pasatzen genituen eta gero emankizun bezala, ez dakit, egiazki ez dakit ez niz oroitzen ene ustez ez da biziki... ez dakit, zer izaiten ahal zen. Euskalgintzako... ez dakit. Baziren lehen egiten zirenak, emankizun batzuk "*Gau Izar*" deitzen zena adibidez. Hori badakit arrakastatsua zela. "*Gau Izar*" beraz zen, gomitatzen zuten Pantxo eta Marie Agnèsen norbait ezaguna eta haren inguruan egiten zuten gaualdi bat, ez baitaiezpada irratian bainan irratian zuzenean pasaten zena herriko gela batean publikoarekin eta hor, nahi baduzu, sorpresak egiten zituzten pertsona horri. Izaiten ahal zen Andoni Egaña, Itxaro Borda edo... ez dakit nor pasatu den... Daniel Landa... anitz izan dira, beraz, pertsona horren, artista horren gomitaketak. Bazituzten sorpresak, bertsoak, anekdotak, irri istorioak... hori badakit bazela, *Gau Izar*. Gero zer izan da? Soka tira ere izan da luzaz eta oraino batzutan egiten dugu udan. Erran nahi du, bi herri desafiatzen direla. Bi herri, beraz, Baxe-Nafarroako bi herri ziren eta bi herri horietako herritarrek nahi baduzu desafiatzen ziren irratian egiten ziren joko bidez. Beraz, denak euskaraz ziren, joko guziak, beraz, horrek ere sortzen zuen giro bat Euskal Herriko herrietan. Hori ere irratitari esker sartu da herrietan, soka tira aipatzen delarik badakite zer dan irratiko joko hori. Holako gauzak izan dira, egia erraiteko sobera-sobera ez naiz oroitzen zer egiten zen lehen.

**12. Eta zeintzuk izan dira hizkuntzaren arloan irratian egon diren aldaketarik handienak?**

Ostean erraiten nauzun onartzen dugun frantsesezko parte hori zeren eta egoera pairatzen dugu. Ere batzutan, elkarrizketa euskaraz egiteko ezin da ezpaita jende aski euskaldunik gure ingurian ere ez eta

bereziki elkarrizketa teknikoak baldin badira jendeak ez du bate senditzen hori. Medikuntzan edo holako hitz teknikoak baldin badira errexki esaten dute “Ez, ez, ez, ez dut aski menperatzen”. Hori ez da. Guk kanpoko edo gure inguruko edo euskararen egoera hori pairatzen dugu, nahi baduzu. Hautuak egin behar dira batzutan, gaia aipatu ezpaita euskaraz ez aipatu ezpaita euskaraz edo gaia aipatu, baina frantsesez. Hori da pixka bat balantza egun guzietakoa.

### **13. Orduan zure ustetan zein da Irulegiko Irratiak euskalgintzari eginiko ekarpenik handiena?**

Irratigintza biziki orokorra da. Berrigintzan edo jendearen informatzen ekarpen handia izan da, jendeari kultur berritasunen ekartzen berri handia izan da, musikagintzan ekarpen handia izan da, euskal musikagintza... zerbitzua egin dugu eta oraino egiten, abisuak eta holakoak. Beraz, ekarpena bai, egun guzietako bizian, edo orokorki ekarpen handiena bat emateko ez dakit, ez dut erran. Batzuetan izanen da berri sailak eta beste batzuetan kantu baten entzulia. Orduan ez dakit, ez dakit.

### **14. Finantzabideari dagokionez nola deskribatuko zenuke zuk Irulegiko Irratia egoera ekonomikoa?**

Zaila. Zaila zeren eta, nola erran, beti kasu egin behar da. Hemen badakigu ekipo haundiagoa baldin baginu gauza gehiago egin ginezkiela baina diru aldetik mugatuak baikira ezin ditugu egin eta hori pixka bat justagarria da. Eta gero, irratiari sartzen zirelarik da ikastolan haurra sartzen duzularik bezala, badakizu langile zarela, baina langile militantea. Erran nahi du, zure ordutegia baduzula baina ordutegia baino haratago joan beharko zirela ere, beraz, irratiak beharrezkoa duen diru horren bila joan behar girela ere langileak. Erran nahi baita, urte guziz kanpaina bat antolatzen dugula, otsailean etxe-etxe deitu behar direla herrietan jendeak beren herriko etxeetan joateko, kontzertuak antolatu behar direla, animazioak badira antolatu eta hori, beraz, diruarentzat eta haratago ere, presentzia erakusteko hurbiltasun horren atxikitze eta nunbait entzuleek atxikitze eta gero kanpaina denboran ere eman dezaten diru pixka bat irratiari egiten direlarik horrelako hitzordu handiak gure orenetarik kanpo joan behar dira. Adibidez, *Nafarroaren Eguna* segitu, *Herri Urrats*, dibertimenduak... hemen anitz dira orain Baxe-Nafarroan horiek segitu behar baitira, beraz, parte batez irrati langileak militante dira ere. Maite dugu eta sinesten dugu gure Irulegiko Irrati baina, baina batzutan, pisu da. Eta diruaren arrangura izaitia lanaz gain... Baina ahal gehiago baginu, erreztasun gehiago baldin baginu, ez gintaizke gaizkiago. Ez dira gaizki Irulegiko Irrati. Gure kontuak orekatzen ditugu baina xuhur bizi dira. Erran nahi dut, material aldetik edo langile aldetik beti kasu eginez eta zehurtiaz jokatu dugu beti ikusten dugularik beste irrati publiko jendeak nola ibiltzen diren erreportaien egiteko. Guk hemen animazio sail bat dugularik zuzenean irratiari egiten du teknika, egiten du kantuaren hautaketa, egiten du kantuaren

aurkezpena, egiten du telefonoaren hartzea, egiten du abisuaren hartzea... Dena egiten du, bakarrik da bere antenan. Irrati publiko batean baduzu bat teknika egiteko, baduzu norbait mikroan mintzatzeko, beste norbait kantua hautatuko duzuna eta hori beharki duzuna pasautu... guk hiru diren leku batian bakar bat gira, beraz, horrek emaiten dautzu sekulako libertatea antenan eta zuk nahi duzuna egiten duzu. Zuk nahi duzuna edo, zure kontzientziarekin, bainan egiten duzu, bainan aldi berian batzutan izerditan finitzen duzu.

#### **15. Zeintzuk dira finantzabide iturri nagusiak?**

Hemen irrati libre elkarte baitgira, beraz, diru parte haundiena heldu zauku hala ere frantses estatutik... irrati komertzialek, Frantzia mailako irrati komertzialek, osatzen duten irrati horiek badute tasa bat, urte guztiz izurtzen duten, pasatzen duten publizitatearen gainean, eta tasa hori irrati komertzial guziek emaiten dute eta egiten dute diru sama bat gero estatuak egiten duzun dossier baten arabera banatzen duena irrati elkarte ttipiei. Dossiera potoloa da, biziki potoloa eta urte guziz egin behar dena ez da urte batetik besterat segur ukanen duzula bainan hala ere guk badakigu huntza egiten eta orduan urte guziz ukaiten dugu beraz diru iturri hori ukaiten dugu frantses kultur ministeritzatik. Hori, diru laguntza baitaezpadakoa, bainan guretzat importantzia duen diru ekarpena da entzuleena ere. Entzuleenganat joaten gira. Otsaileko kanpaina hortan Baxe-Nafarroako herri guztietatik atxematen dugu norbait bere herrian pasatuko dena etxez-etxe irratiaren alde diruaren biltzeko eta hor diru parte polit bat gure entzuleengatik ukana eta hori biziki-biziki ederra da, lana da bainan biziki ederra da, hala ere, eta baitezpadakoa ere diru hau ainitzina joaiteko.

#### **16. Harpidetza sistema bat ere baduzue ezta?**

Bai, bai. Pixka bat diru sartze erraza da, diru izurketa bat egiten dute gutxi gora-behera 7 eurotarik 20 eurotara hilabete guziz pertsona batzuek. Hilabete guziz ematen diote irratiari eta hori diru sartze segura da hilabete guziz. Emaitza bat egiten duzularik irratiari gu gara kontsideratuak "d'interes general" inposetan, emaiten duzunaren %60 edo %66a, 10 euroren gainean errealki 6 euro kentzen ahal dituzu eta 4 euro gelditzen zaizkizu zure sakeletik emaiteko. Hori aitzinean ezarriz, gure ingurian nork emaiten ahal zuen diru pixkat gure irratiari. Gero erranen dautzut egia, hemen elkarte mundua heri da. Heri eta gaizki. Denek behar dituzte diru laguntzak, denek behar dute huntza [...] Elkarte mundia heri ze diru gutti [...] Denek behar dute edozein elkarte izan kirol, kultur edo [...] Hori erraiten nauzun, elkarteek anitz diru behar zutela, gaizki zirelakoan, bizirauten zuten bainan bizirauten, bakarrik. Hor dira kenka txarrean diru aldetik, beraz, ez da bakarrik Irulegiko Irratiarena. Zaila da jendeari dirua galdegitea elkarte

guz-guziek galdegiten baitute dirua. Elkarre mundua zinez gaizki da eta beti behar da jendea galdegiteko dirua eta jendeek ezin dute denetan eman. Guk badugu hilabete guziz, eztaikit zenbat, pertsonak emaiten dauken sosa bainan ez da errexa kopurua emendatzea nahiz eta diru sartze segura izan, bainan zaila da. Hautuak egin behar dira, egin izan dadin ikastolarentzat edo presoentzat, *Herrigora* kanpainarentzat edo *Herri Urratsentzat...* denek galdegiten dute sosa, beraz, zaila da jendea galdegitea guk baditugu batzuk bainan horien emendatzea zaila zauku.

### **17. Orduan esango zenuke joerak finantza aldetik hoberantz edo txarrerantz egin duela urteetan zehar?**

Ene ustez txarrerantz. Duela zombait urte finantza aldetik Irulegiko Irratia gaizki zen eta horren... pixka bat zilo horren, nola erran, betetzeko edo... langileak joaiten zirelarik ez ziren ordezkutzen beraz ekipa ere pixka bat murriztu dugu azken urte hauetan. Behar bada egoera normalago batetarat heltzen gira, bainan lehen, nahi baduzu, Irulegiko Irratia hastapen hortan *EHZ* – Euskal Herria Zuzenean – festibala Arrosan egiten zelarik, Irulegiko Irratia antolatzaileetan zen eta hor baginuen ere diru sartze polita *EHZ* festibalarekin. Gero festibala joan da, ez da gehiago Baxe-Nafarroan egin eta ginuen diru sartze hori ainitz elkarten artean banatu da eta normala da, ez gira bakarrak elkarre mundu hortan, beraz, normala da dirua banatzea, bainan guretako izan da diru iturri murrizketa festibal hori gabe. Eta gero, egia ziloak diru aldetik ukan ditugu bizpahiru urtez segidan eta horren estaltzeko bezala partitzen ziren langileak ez dira ordezkatu eta hori ez da zinez marka ona. Eskaintza ez ginuen berdina egiten ahal eta irratian [...] erretreta hartun dute Bernadette, Pantxo, Jojo... eta gero izan da guretako beste momentu gogor bat horien partitzearekin langile gazteen aitzemateko, lehenik bat, gero bi, bainan irratiak ez du baitaezpada erakartzen edo, eta formatu ondoan gero batzuk partitu, beraz, guretako aski garai berezia izan da. Hor, egia erraiteko, 2021eko irailean egin dugularik sartzea uste dut azkenian talde aski egonkorra atzeman dugula, hiru gazte sartu dira eta hori baikorra da biziki. Pixkat diru egoerari lotua da, lanpostu bereziak dira horiek, diruari pixka bat lotua da, guk baldin baginu paga interesantagoa eta orenak behar bada finkoagoak ere, beharbada gazteak gehiago erakargarri giniezazke ere. Hemen lan baldintzak batzutan torpeak dira, asteburutan batzutan izan behar da lanian. Hilabete sariak ere ez dira biziki gora hemen Irulegiko Irratian, nahi baduzu, 20 edo 22 urtea izana ondoan Irulegiko Irratian, beti 2000 euroz behetik gira, 1800 euro hortan gira, beraz, ez da biziki erakargarria gazte batentzat. Ez dakit, kazetaria zirelarik edo esperientzia, beste gauza baikor batzuk behar dira esplikatu hilabete sariaz gain Irulegiko Irratian lan egiten duzularik. Erran nahi baita, barnekaldean egoiteko posibilitatea, euskaraz murgildua izaiteko posibilitatea, jende [...] gure ingurian [...] gauza ainitz balorizatu eta presiatu behar dira eta bigarren

maila batian ezarri, karrera haundi bat egiteko orde. Behar dira beste guziak balorizatu. [...] Herritarren duzun hurbiltasun hori jendearekin, euskara bizitzeko manera ikaragarria da irratia, informazio gune ikaragarria dela irratia eta kultur gune ikaragarria ere denen ... dira hemen eta horiek zinez balorizatu behar diren gauzak direla, ez da bakarrik hilabete saria, gauza horiek denak balorizatu behar dira ere eta erran behar da, hala ere, Irulegiko Irratian badela eta ekipa ona dugula ere lankide onak eta denak uste dut den-denak. Lankide batzuk baino gehiago gira.

#### **18. Erraza edo zaila da langileak eta kazetariak aurkitzea?**

Zaila da. Oztopo nagusia soldata. Lan baldintzak ere, nahiz eta hobetu diren. Hala ere, asteburuetan batzuetan lan egin behar...batzuetan edo erregulariki lan egin behar...orenak ez beti finko-finkoak bainan horrez gain, neure ustez, lehen lan batian sartzen zinen eta hor egoiten zinen. Gaur egun gazteek, eta arrazoi dute, mugitzen dira gehiago. Ez dira... irratian sartzen den gazte bat ez da egonen edo ez da... eginen du beharbada urte bat, bi, hiru bainan gero, beharbada, bidaian joanen da edo beharbada beste lan bat sartuko du... Gehiago mugitzen dira eta guretarako hori... gelditzen direnerako pixka bat konplikatu da. Bai, pixkat bat konplikatu da ze formatzen duzu eta irratigintzako lana, formakuntza, ez da baitezpada errexa, luzea da, praktika behar da pixka bat, beraz, formatzen duzu eta formatua delarik, pikoan delarik, ale-hop! Eta hori fua... gogorra da. Baina hola in behar da, hola da...

#### **19. Lan talde ainitza duzuela esango zenuke?**

Bai, bai biziki ainitza. Bakoitzak badu bere nortasuna eta biziki ainitza da. Ainitza adinaren aldetik eta ainitza gero... ainitza politikoki edo ez nezake hainbeste erran bainan ainitza, bai. Ez dakit ze aldetik nola erran behar dauzutan hori, bainan bai, desberdinak gira, bainan ekipa ona da, hala ere. Gazteenak badu 20 urte eta zaharrenak badu 54 urte.

#### **20. Zu izan zinen lehen soldatapeko langilea, eta nolakoa izan zen alde horretatik soldatapekoen garapena eta bestetik kolaboratzaileen garapena? Nola gogoratzen duzu zuk?**

Hori ez dakit, erran nezake Baxe-Nafarroa dela gure hedapen-eremu nagusia, bainan gero beti harritzen niz kantu eskaintzak edo egiten baditugu edo norbaitek deitzen gaituelarik, batzutan mailez ere ukaiten ditugu, egun hortan ameriketatik edo diasporatik edo internetez entzuten du ere jende batek irratia, beraz. Erran nezake hala ere, gure eremua Baxe-Nafarroa dela. Gero ez dakit, inkestak eginak izan dira eta Jok badaki ni baino gehiago non giren eta ze entzule mota dugun, zonbat denboraz egoiten den entzulea frekuentzian, zer entzuten duen... nik zenbaki horiek ez ditut. Hemen, Baxe-Nafarroan beraz,



mendigune batian gira, beraz, Baxe-Nafarroan berian badira zona batzuk irratia ezpaitugu hartzen ahal, Oztibarren, adibidez, itzalgune ttipi bat bada, bainan gero antenaren indarra nolakoa den ezin deizut soberan erraiten ahal Lapurdiraino joaiten gira eta badakit Lapurdi kostaldean entzulea ditugula. Badakit Xiberuan baditugula entzule batzuk ere. Gehiena Baxe-Nafarroan dugu bainan badakit Landesetan adibidez... Landesak biziki xahalak dira eta biziki gure frekuentzia joaiten ahal da Landesetaraino. Batzuek erraiten zuten aski urrun joaiten zela eta entzuten gintuztela. Gero, zonbait diren entzule horiek, ez dakit, ez doitsut erraiten ahal. Badakit Lannemezaneko presondegian zen preso batek ere irratia batzutan, egun batzutan, kaptatzen zuela, bainan horiek dira zinez salbuespeneko entzuleak. Gure eremua, hala ere, Baxe-Nafarroa da. Gero, bakotzak bere berezitasuna badu. Ipar Euskal Herrian *Gure Irratiak* gehiago Lapurdiko entzuleari ari da, *Xiberuko Botza* [Xiberoko Botza] gehiago Xiberuako entzuleari ari da, gu gehiago hemengo berriak ditugu, Baxe-Nafarroakoak, bainan gero, erran nezake, gure tokiko programazioa, guk bakarrik, Irulegiko Irratia, aski ttipia dugula: goizez bi orenez eta atsaldez oren batez, gainateko guzia *Xiberuko Botza* eta Gure Irratiarekin egiten dugula. Beraz, programazio amankomun hortan nork zer entzuten duen, *Irulegiko Irratia*, *Xiberuko Botza* edota *Gure Irratia*, ez dakit. Errepikagailuak badira Hazparnen bat, Alduden bat, Amikuzen bat eta Amikuzeko errepikagailu hortan egin dugu frekuentzia oso bat. Amikuzeko irratia sortu ginuen Amikuzeko eremu hori hobeki estaltzeko, beraz, Baxe-Nafarroan bada Amikuzeko Irratia eta Irulegiko Irratia, bi irradi gira. Ber etxea da, nahi baduzu, bainan bi irradi, sortu berria dena Amikuzen, eta ez galdegin ze ondorio ukan duen irradi berri horrek Amikuzen, ez baitakit. Orain entzuleak irabazi ditugun Amikuzen? Pentsatzen dut baietz, hango berri gehiago jorratzen baita Amikuzeko Irratia sortu dugunetik. Herriko kontseiluko bilkuretara joaiten gira, herri elkargoko bilkuretara joaiten gira, hango elkarte guziak mintzarazten ditugu, hango komertzantak ere, beraz, han Amikuzen gehiago sartuak gira, beraz, pentsatzekoa da entzuleak ere irabazi ditu, alde hortaik. Dena den, hurbiltasunean irabazi dugu. Gero, neurtzeko, zenbatzeko ez galdegin, ez dakit batere.

## **21. Hasi zinenean zeintzuk ziren Irulegiko Irratiako helburuak?**

Pentsatzen dut egungo helburuak hastapeneko ber helburuak direla. Baxe-Nafarroako berrien emititzea eta berri horiek euskaraz izan ditezen. Tresna bat dela irratia euskalgintzako zerbitzuan, nahi baduzu, eta Baxe-Nafarroaren zerbitzuko dena. Zentsu hortan litaike. Ez dakit, ez dut baitaezpada hori ere gogoetatu. Hitzekin erraiteko, ez dakit.

**22. Eta gaur egun tratazen dituzuen gaien artean eta duela hogeitun urte tratatzen zenituen gaien artean desberdintasunik nabarmentzen duzu?**

Aktualitatea ez da batere berdina diela 20 edo 25 urte eta gaur egungoa, batere, batere. Giroa ere ez da batere berdina, ez dakit. Hautaketan gero, ez dakit... egoera horri lotua da ere duela 20 edo 25 urte gehiago atxilotze bazen, gehiago pertzekuzione bazen, beraz, ez dakit, bistan dena aldatu dela aktualitatea, ere aldatu da egoeragatik nahi baduzu aktualitatea ez baita batere berdina gero hautaketan ez dakit...

**23. Eta Irulegiko Irratian historian zehar egon diren momenturik garrantzitsuenak?**

Irulegitik, Irulegiko herrian... hori behar zenuen zaharragoei galdegin. Irulegi herrian ireki zen irratia, gero joan zen Donibane Garazirat eta lehen Donibane Garaziko lokal hortarik jin gira dugun etxe huntarat eta egia da, nola erran... estudio mailan eta material mailan anitz irabazi dugula eta hor beharbada bihurtune batian izan girela. Han baziren bi studio bakarrik lehengo egoitzan. Hemen, badira bost edo sei eta egia gehiago, errekiago, lan egiten dugula. Gero, ez dakit leku aldaketek duten irratia markatu edo gehiago emankizunek. Adibidez, *“Antxon eta Maria”*. Hori zen irratia antzerki bat egiten zutena Marie Agnès eta Pantxok, hori edozein Baxe-Nafarroari aipatzen diozu eta denek ezagutzen dute Antxon eta Mariaren istorioak [...] langileentzat segur azure aipatzen baduzu irratia markatu duen gauzak dira gehiago irratia egin dituen ekoizpenak eta horien artean. Adibidez, *Antxon eta Maria* irratia antzerkia. Dira bi pertsona, senar-emazteak, hemen irratilari batek asmatua eta antzerki maneran emana, irratia antzerki maneran emana, eta hor, pertsona ainitzekin eta denek ere laguntzaileak eta denak ere antzerkilariak eta holako irratia antzerki batek irratia ekoiztu duena nahi baduzu eta irratiko langileekin hemen zinez markatu duen gauza bat izan da. Denek hemen, salbu beharbada hurrek eta nerabeak bainan *Antxon eta Mariaren* istorioak denek ezagutzen dituzte.

**24. Beste programarik aipatuko zenuke horretaz aparte?**

Irratiko bizian markatu duena? Bai. Holako sorkuntzak egiten ziren denboran, orain, beharbada, ez dugu gehiago holako ekoizpenen egiteko denborarik edo ahalik bainan irratian markatu dutenak, bai. Hori izaiten ahal da *“Gezur Flash”*, aktualitateari egiten zen parodia bat bezalakoa. Baziren emankizun tematikoak ere markatu dutenak *“Aitzur”* eta *“Jorra”* laborarien emankizunak edo Jokok egiten zituen eta egiten dituen oraino mintzalekuak ere biziki garrantzitsuak dira. Umorea euskaraz eta irratian, hori biziki preziatua izan da. Hori berritasuna zen.

**25. Eta bukatzeko zer uste duzu zuk ekarri diola Irulegiko Irratiak Baxe-Nafarroari, Iparraldeari eta oro har Euskal Herriari?**

Anitz, ene ustez ainitz. Ez dakit erantzuten ahal dut bainan nola anitz bainan anitz bai euskarari bai hemen izan diren borroker bai diren borroker oraino badira lurraren espekulazioaren kontra eta ene ustez irratiak beti hor izan dira borroketan informazioa hedatzen eta gero eskuararentzat ere ene ustez tresna ikaragarria hori eskuara entzutia hola irratian horrek anitz ekarri du. Gero, ez dakit zer erran holako galdera handi bati. Ni biziki argumentatzaile biziki txarra niz. Jojok badu ni baino usaia gehiago holako galderak erantzuneteko ni txarra niz hortako. Badakizu gu hemen irratiat heldu girelarik heldu gira lanerat badakigu zer egin behar dugun bainan holako galdera handier ez dugu baitaezpada gogoetatzen guk gure lana egiten dugu eta ez dakit nola erran, automatikoki ez dugu baitaezpada pentsatzen hori egiten baldin badugu zer ekarriko du horrek Baxe-Nafarroari edo eztugu holako galdera handirik egiten gure buruari.

**26. Erronkei begira zure ustez langile modura ze erronka uste duzu daudela etorkizunari begira datozen urteei begira?**

Erronka irratiarentzat? Erronka nagusia da uste dut behar girela jendearteari egokitu eta jendearteak galdegiten daugunari egokitu pixka bat nahi baldin badugu guk ere hor segitu. Erran nahi du irrati gintzaz kanpo behar girela zinez arranguratu sare sozialetan sartzea eta beste manera batez gure informazioaren emititzea ere ez bakarrik irrati gintzat ez irrati bidez edo irrati uhin bidez ikjusten dugularik gazte guziek tik tok eta holakoan begiratzen dituztela edo gu oraino hortarik biziki urrun gira eta hor uste dut bihurtune batian girela.

### 3. Belaunaldiko Transkripzioa: ARTZEN LETONA

#### 1. Hasteko kontaguzu nor zaren eta ze harreman daukazu *Irulegiko Irratiarekin*?

Artzen, 35 urte eta ikasketetaz irratigintzatik kanpo. Nik lorazaintzako ikasketak eginak eta gero, Xiberotarra naiz, beraz, Xiberoan bizi izanki eta *Xiberoko Botzakin* harremanak ukanda gaztedanik, ba ukan nituen aukerak udarako lanak egitea *Xiberoko Botzan*, beraz, bi udaz bi hilabetez lan egin nuen *Xiberoko Botzan* eta gero proposatu zidaten lanpostua, beraz, *Xiberoko Botzan* hasi nintzan, 5 urte pasatu ditut *Xiberoko Botzan*, irratian lanean, eta irratigintza eta kazetaritza ikasi dut eta gero handik *Xiberoko Botza* utzi nuen eta *France Bleu*-k sortu zuen programa bat Europear Fondoekin “Zubiak” deitzen zena Euskadi Irratiakin eta hor ibili nintzen bi urtez, eta gero *Amikuzeko Irratiaren* proiektua sortu zelarik ba interesatu zitzaidan gauza berri bat sortu lurralde berri batean eta proiektu horretan sartu nintzen eta *Amikuzeko Irratian* hartua izatearekin ba *Irulegiko Irratiako* taldean sartu nintzen eta han pastu nituen 3 urte eta *Irulegiko Irratiako* zuzendariak utzi zun, koordinatzaileak, beraz, bere postua hartu nun eta horrekin *Irulegiko Irratia* sartu naiz, beraz, egiten du hiruzpalau, pixkat gehiago... burua ez dut matematiketan baina 4-5 hilabete *Irulegiko Irratian* ari naizela lanean. Nahi dut esan *Irulegiko Irratian*, lehen nengoan *Amikuzeko Irratian*.

## **2. Eta ze urtetan sartzen zara lehen aldiz irratigintzan?**

Duela hamar urte, 2012an.

## **3. Txikitan orduan, zu xiberotarra izanik, ez zenuen Irulegiko Irratirik kontsumitzen, ezta?**

Ez, nik *Xiberoko Botza* entzuten nuen, baina gero *Euskal Irratiaken* sarean gaudenez ba *Irulegiko Irratiako* langileek ez dira inoiz izan arrotzak, beti entzun izan ditu programa desberdinetan, beraz, ezagutzen nuen.

## **4. Eta zer ziren zure gaztaroan eta haurtzaroan Euskal Irratiak?**

Etxean gurasoek entzuten zuten irratia. Haiek jartzen zuten, beraz, haiek jarrita. Gero, nahi dut esan, Xiberoan ez dugu irratia anitz entzuteko aukera beraz, zen irratia edo musika.

## **5. Nolakoa izan da langileen garapena irratian sartu zinetetik gaur egunera?**

Ez da izanen garapen handirik. Zantza ukan dugu garaian garaiko langileek lan haundia eraman zutela langileek ahal bezain baldintza hobek ukaiteko, hobek beti lortzen ahal dira baina ez det uste perspektiba horretan gaudenik, edo daudenez beste hainbeste gauza eta ez gaudenez txarto ere, beraz, ez dira aurrean jartzen diren zalantzak. Beraz, garapen aldetik, ni sartu naizenetik eztago gauza handirik hor. Formakuntzak ditugu, dira adaptatu beharrak baina adaptatzean denbora. Denbora eskasan gaude beti, ba hori, elkarte munduan izanki eta edozer ba oso estu gabiltzala, baina bestela, gustora eta adibidez ni nagoenetik... Baina langile berriak sartuz ere formakuntza sailak saiatu, landu, baina beti zail edo, bai, zail ez garelakotz agian ohituta edo ondorioak daudelakotz ere, gero ba langile artian egiten baduzu formakuntza beste batek ordezkatu behar dizu eta antizipazio horretan ez hain onak.

## **6. Zein izan zen zure motibazioa irratian sartzeko?**

Galdera ona. Zer zen nire motibazioa? Motibazioa gaztetan hor 16,17 edo 18 eztaikit zenbat urtetan ba hori, udako lan beharra eta gaztetxea genuelarik Maulen ere irratia tailerrak egin genitun eta hortik ba pixkat ezagutu. Ezuen ematen lan zaila zena eta polita zen ba hori musikalki, musika pastea, hitz egitea eta nahiz eta hastapeneko estres hori dagoen. Gero lanantzat ba zen Xiberora itzultzeko aukera, lana ukaiteko aukera, eta gero irratia esker ba, Xiberoaren ezagutza. Aitortu behar dut ni enaizela... Xiberotarra nahiz baina asko ibili naiz kanpoan, heziketa Xiberoan eta irratia esker Xiberoa ezagutu eta ohartu munduko lanik politena dela irratigintza. Zenta *Amikuzeko Irratian...* ez dakit loturarik duen baina

interesa zaukan baina botatzen ditut, Amikuze edo Donapaleu niretzat ez nuen ezagutzen, niretzat zen Mauletik Baionara juteko zeharkatzen genuen herria eta, sin más, nik ez nekien ezer Amikuzez eta bost axola ere, ni zen edo Xiberuan egiten dut bizia edo kostaldean edo hegoaldean baina Amikuzera enintzen juten ezta... Eta orduan hori zen interesgarria, irratitari esker Amikuze ezagutu modu desberdinetan eta sorpresa polita atera zait Amikuzetik. Orain *Irulegiko Irratira* etorritz espero berdina gertatzea Garazi-Baigorri eskualdeakin.

## **7. Zein da Euskal Irratiekin duzuen harremana?**

Ez dakit nola esan, baina hori kritiko jungo da seguraski eta gero zure ikerketaren emaitzak ikustean belarriak tiratuko dizkidate baina, ez dut esango leku pribilegiatua, baina leku azkarra du hala ere *Euskal Irrati* mailan *Xiberoko Botzari* konparatuz. Esango dueno beste, baina euskalkiaren aldetik ere pixkat... Hori, erdi batuan, neutralitate horretan dagoelakotz eta Baxenafarrrtar batzuk ere, zenbakia ematekotan, baina hiru *Gure Irratian* ari dira ere lanean. Beraz, hori, Baxenafarrrtarrentzat ez du egiten halako desberdintasunik *Gure Irratiko* aurkezle batzuekin beraz *Irulegiko Irratia* leku ona dauka, inportanea *Euskal Irratiak* mailan, garaian pixka gehio ukan du baina, hala ere, tarte nagusi batzutan hor dago, eguerdiko tarte bezala, aste bukaerak bere gain izatez, larunbatak eta orain igandeak. Beraz, antena aldetik ba bai, lekua badauka, handiagoa ikusten genun eta espero genun izango zela berri aurkezle gorako apustua baigenuen langile berria baina, azkenean ezta hola egin eta hori irailetik aurrera ikusiko dugu eta gu ere ibiliko gara hor fitxak jartzen eta beste, baina hori, ekipo ona daukagu. Beraz, hasten gara 6.30tatik 8.15arte deitzen da "*Goiz Berr*" tarte duguna, hori partekatua astelehenetik-ostegunera, *Gure Irratiaren* esku dena baina ostiraletan *Irulegiko Irratiak* segurtatzen duena. Gero, 8.15etatik 10.00etara *Irulegiko* eta *Amikuzeko Irratia* batera gabiltza Baxenafarrrtarrei eskeintzen diegun programazio batean. 10.00etatik 11.30tara kantu eskeintzen tarte da *Xiberoko Botzak* egiten duena baina Ximun Uthurralt sortzez Baxenafarrrtarra dena, gero *Xiberoko Botzan* izatez xiberotarrez ari da, baina badu lotura Baxe-Nafarroakin, beraz, gurekin. Gero, 11.30tatik eguerditara berriro Baxe-Nafarroako irratiei zuzentzen gara *Irulegiko* eta *Amikuzeko Irratian* eta 12tatik 13tara "*On Daiziela*", non *Irulegiko Irratiak* ekoizten duen *Euskal Irratientzat* eguerdiko magazina. Gero, musika, atsaldean berriro hartzerakoan, hor aldaketak izan dira, bada 17.00-18.00 tarte hori deitzen dena *Euskal Irratietan*, ba *Irulegiko Irratiak* hartu du berriz bere gain. Gero, atsaldeko tarte hori, 18.00-19.00 hor *Irulegiko Irratia* bere aldetik ari da eta *Amikuzeko Irratia* bere aldetik amikuztarrei. Hori da gure programazioa beraz tarte... Hara, berriro hartu dugu 17.00-18.00 tarte hori *Euskal Irratietan* dena eta gustatuko litzaiguke kantu eskeintzen tarte ere hartzea.

## **8. Orduan zeintzuk dira amankomunean dituzuen tartea, horrela labur?**

Ba hori esan dizut "Goiz Berri", 6.30tatik 8.15arte. Kantu eskeintzak 10tatik 11.30ak, arte, "On Daiziela" 12.00tatik 13.00tara eta "Gaur Zer Berri" 17.00etatik-18.00etara. Horiek dira amankomunean ditugunak baina, hori irrati bakoitzak ekoizten duna. "Goiz Berri" Gure Irratitik da, ezik ostiraletan hemendik, kantu eskeintzak Xiberoko Botzatik, "On Daiziela" Irulegitik, "Gaur Zer Berri", 17.00-18.00ko magazin hori Irulegitik, eta gero 19.00tatik aurrerako programazioa ere amankomunean dugu, partekatzen dugu.

## **9. Eta esan didazu zure ustez Irulegiko Irratiak daukala tarte zabalago bat beste Euskal Irratiak baino?**

Bai. Gero, depenitzen du. Xiberoko Botzaren kasuan haiek "Goiz Berri" ez dute hartzen, baina "Goiz Berri"-ren kasua aipatzekotan hori da, da Gure Irratitik "Goiz Berri" baina badute Olatz Idoate astelehenetik asteartera baina asteartetik asteazkenera Arantza Egieder da, eta Arantza Egieder Baxenafarritarra da sortzez. Beraz, hori, jendeak ere fijatzen badu, ba Baxenafarritar bezala kontsideratzen du horregatik esaten dut baditugula abantail batzuk. Hori da... ez dut esango gerla, baina euskalkien inguruan edo lurraldearekiko dagoen desberdintasuna Xiberotarrak xiberotarrez ari dira. Hemen, daukagu euskara batu bat, baina ger, adibidez, Amikuzeko Irratiaren kasuan Hendaian, ba haiek daukate hegoaldeko euskalkia edo batu hori. Nei pixkat arrotz egiten da, hemen ere eta, horregatik. Nahi dut esan, entzulegoarekiko entzulea ez da bortxaz ohartzen ze irrati entzuten duen noiz, Baxe-Nafarroan nahi dut esan, euskalkiarena ez du esaten Euskal Irratiak ari naiz, edo Irulegiko Irratia naiz entzuten, ez. Berak pizten du Irulegiko Irratia eta gero badaki tarte batzuk daudela Euskal Irratietan baina hori, euskalkien aldetik ez bada arrotzegi ez dio larregi arazorik sortzen.

## **10. Eta hizkuntzatar ari zarela, zeintzuk dira entzun daitezkeen hizkuntzak eta zer neurritan?**

Irulegiko Irratian entzuten den hizkuntza ba euskara da gehien bat eta gero elkarrizketan frantsesa. Baditugu... nahi dut esan, gure bizkarhezurra, edo hori, egina da bi gauza ezberdinetan, baina daukagu eguneko gaiak eta gero kronikak eta kronika horiek euskara hutsean. Gero, eguneko gaiak eta aktualitateari lotutako gaiak, ba jendearen arabera. Hori da barne eztabaida handia duguna ere eta adibidez, Gure Irratia aipatzeko, haiek euskara bakarrik sartzen dute, Irulegiko Irratian frantses pixkat sartzen da, Xiberoko Botzan pixkat gehio eta Amikuzeko Irratian Xiberoko Botzan bezala. Ni han ibili naiz eta hori da barne eztabaida duguna. Baduzu bi aukera, baduzu tipo bat euskara dakina baina mami gutxi duna edo baduzu tipo bat frantsesa, non gaia menperatzen duena eta mamia daukan eta ber gaiak hitz

egiteko ber... eta lurraldeko jendearekin ere, beraz hor da erabaki bat hartu behar dena eta hor, nik nahiago dut ba mamia entzutea. Gero, nik martxan jarri dudana eta *Xiberoko Botzan* ere hola hasi zirena; eta *Amikuzeko Irratian* ere hola egiten dena; eta hemen langile berriak ere hasi direnak, zaharrak ez dute “txip” hori, baina da animatzailea euskaraz aritzea beti. Nahi dut esan, frantsesa sartzen dugu, baina ni ez nauzu frantsesetz entzungo irratian eta da beste ariketa bat edo lan bat baina nik elkarriketa egiterakoan ,edozein pertsona, izan dadin politikari famatu bat edo beste, ni juten naiz eta esaten diot, “*Kaixo Irulegiko Irratiko...*”, frantsesetz esaten diot ez dakienez euskaraz, “*Irulegiko Irratiko kazetaria naiz, gure irratia euskaraz den hedabidea da eta itzulpena egingo dizut eta zuk erantzuna hasi frantsesetz*” eta orduan egiten dudana da, grabaketan eta gero montaketan nire frantsesetzko galderak ateratzen ditut eta orduan entzuten da nire galdera euskaraz frantsesetz erantzuten. Gero, gertatu izan zait batzuetan denborarekin, berrientzat edo korte bat bi minutukoa dugularik ba, horren gainean itzulpena egin, baina lana eskatzen duenez ba [...] baina bestela hori zen, frantsesa ba bai, tamalez, eta errealitatea hala da ere, erdaldunak hor dira. Gero, egiten badugu dena euskaraz ere ba azkenean gertatzen da beti ber jendearen inguruan gelditzen garela eta interesa dauka ere ba beste ikuspegi batzuk eta beste jende batzuen entzutea. Gero, hizkuntzaren aldetik ere hori, musikalki ere, euskarak du lehentasuna musika pasterakoan, baina gure ordenagailu programazioan ere, hori da, daukagu gaueko musika ordenagailuan programatuta, baina dira bi euskal kantu atzerritar bat, atzerritarra da ingeles, frantses edo espainolez edo beste hizkuntza batean. Antenan gaudelarik ere, ba saiatzen dugu *Euskal Irratietan* gaudelarik daukagun musika zabalagoa ziur aski, edo bestela Irulegin gaudelarik, ba nik ere saiatzen dut Baxenafarrrtar artista gehiago pastea, hurbiltasun hori mantentzeko eta gero... Musika aipatzen nuen, ahaztu zait hor. Euskararekin egiten dugu “*Badok*”-ekin bezala. Nahi dut esan, azken urteetan... niretza *Badok* da azken urteetan sortu den tresnarik hoberena, zenta euskal taldeen berrikuntza guztiak agertzen dira, kriston lana egiten dute eta horrek ere guri. Gaur egun diskak... garai batean diskak jasotzen genitun irratian, asko. Orain, geroz eta gutxiago jasotzen ditugu eta orduan *Badokek* egiten duten lan numerizazio hortan eta beste ba interesgarria da guretzat ere. Horrek erakusten du entzuleei aniztasuna eta dauden talde guztiak, estiloa gustatu edo ez gustatu baina, hori da. Goizean bezala. Goizean nik naukan hor ordezkatuta kantu eskeintzen programa hori, eta musikalki esateko zelako eklektikoak garen ba pasatu ditugu “*Menditarrak*” taldea, hemen Bankako gizon talde bat, abesbatz bat, eta gero, pasatu dut “*Anestesia*” *Ultra-Komunikatzen* eta gero berriro pasatu naiz “*Kaxiano*”-ra *Zorionak* eta gero, pastu dut “*En Tol Sarmiento*” eta hola, bakizu? Orduan, aniztasun hori daukagu eta jendeak kritika, batzuk kritika edo beste batzuk aberastasuna, baina hori da, hor jendeak du eskatzen, baina hor denetarik pasatzen da eta, hori.



### **11. Ze kritika jasotzen dituzue eta ze goraipen ?**

Ez, musikan aldetik ba batzuk, ironiaz esaten dut, atsegin dutela *Euskal Irratiak* entzutea zenta ez dakizu nolako musika aterako den ondoko kantutik. Nahi dut esan, ari zara autoan lasai-lasai entzuten, ba zu *Anestesiarekin* gustora zaude, eta gero Erramun Martikorena pasatzen da bat-batean eta esatenzu, “*Buff, Erramun orain? Aldatzen dut irratiz*”. Baina hori uste dut, hori ere gertatzen da irradi libre askotan edo, depenitzen du baina hor ere asteburu honetan Baztanera hurbildu naiz eta “*Xorroxin Irratia*” entzuten egon naiz, eta aldatu dut irratiz. Musika zen, baina zen hori, zen ez dakit zer eta ez, “*momentu hontan ez dut entzun nahi*”. Goiz honetan ere, entzun dut beste irradi bat Nafarroan, “*Eztanda Irratia*” eta zen erdi punki-rockero, hor goizeko 8tan, da ni gustora, baina hori da, esaten duzu “hori jartzen dut hemen eta....” Baina hemen eskaintzarik ez dagoenez, ba konplikatu da denei plazerra ekartzea.

### **12. Lehen aipatu duzu *Euskal Irratitan* entzuten den euskara irradi batetik bestera desberdintzen dela.**

#### **Nola esango zenuke desberdintzen dela *Irulegiko Irratia* beste irratietatik hizkuntza arloan?**

Nahi dut esan, hitzetan. Baliatzen ditugun hitzak, nahi dut esan, gure *Batua* edo, ezta *Batua* baina, Baxe-Nafarroan ere hemen lankide batzuek *Xuka* hitz egiten dute, *Xuka* dakite, baina antenan ez dute *Xuka* hitz egiten. Hitz egiten dute *Batua* baina ez da, *Batua-Batua* ofiziala hor Euskaltzaindiakoa, da *Batua* hemen baliatzen dugun hori, ez denez xuka ez eta hori ba senditzen da. Nahi dut esan, zurekin daukadan hitz egiteko modua ere daukat pixkat hegoalde nire euskalkia. Bestela, hitz egingo nuen hara “*Egunon. Irulegiko Irratian zizte, huntsa zirezte, alkarrekin gira...*” eta, ikusten duzu desberdintasuna?

### **13. Euskararen proportzioa orduan desberdina da irradi batetik bestera?**

Beitu, proportzioa nik esango dizut sinpleki, baina proportzioa eremua duk egiten. *Gure Irratiak* dauka Lapurdiko eremua, beraz, ikusten baduzu Lapurdiko eremua nolakoa den ba kristona da. Konparaketak eta ateratzen badugu baina hori, Lapurdin euskaldunak aurkitzea errexia da, ez dakit zenbat herri dauden, ez dakit zenbat ikastola dagoen, badituzte hiru kolegio, lizeo bat eta horien artetik aparte ere elebidun sailak eta beste. Hemen, Garazin, *Irulegiko Irratiaren* buruan bai, badugu *Arberoa*, badugu *Baigorri*, hor ikastola berria, baina Amikuzeren kasuan, hor ikastola bakarra dago, beraz, zailagoa da. *Xiberoko Botzaren* kasua hartzen badut, biztanlegoa ere, Xiberuan 10.000 biztanle daudela uste dut, uste dut dela...ez dut esango Hendaiako biztanlegoa ez dakit zenbatetan dauden baina... Horregatik eremuak ere egiten du desberdintasuna, Xiberuan 15.000 eta *Antxetak* herri bakar batean dauka kasi

10.000 biztanle eta *Antxeta* Irun eta Hondarrabiaruntz asko jotzen du orduan, horiek dira gure desberdintasunak.

#### **14. Orduan zein da irradi bakoitzean erabiltzen den proportzioa?**

*Irulegiko Irratian* gehiago entzuten da, ez dakit proportzioa, konplikatu da. Berdintsu esango nuke. Ez dago proportziorik, nahi dut esan, *Gure Irratian* haiek argi eta garbi euskara bakarrik pasten dute, beraz, 100% euskaraz da. *Irulegiko Irratian* euskara gehio dago *Amikuzen* baino, esango nuke. *Amikuzen* frantsesa gehio sartzen da baina, gero ere lurraldea ez dut esango nolakoa den, baina lurraldea ere txikiagoa da *Amikuze* eta gero, nahi dut esan, lurralde horretan bai, gaiak harrapatu behar dira eta hori, eta aniztasuna eta gauzak ukaiteko hori da bestela esaten nuna, gelditzen bagara euskararen gelditzen gara betiko ber, jendea ber, ikuspegia ber gauza. Horrek ekartzen duna da erdaldunak ere elkarrizketatuz eta besteei ere atea irekiz eta ikusiz, ba haiek ere bakite hor daudela. *Amikuzen* gertatu dena baina nik *Amikuzen* kritikak jaso ditut ere zenta *Amikuzen* daude ere departamenduko *Laborantza Ganbara*, *Lur Berri* kooperatiba haundia, bastante eskuindarra da *Amikuzen* ere lurralde bezala baina, hori. Orduan, ni juten naiz jende guzian gana informazioa hartutaik baita lurralde bateko dinamismoa, orduan niri berdin zait nor daukadan nire parean, nik nire galderak egiten diot, kritikitzen dut ere, baina hitza ematen diot. Niri batzutan oharrak esaten zidaten, zenta hemen dago Euskal Herriko laborantza ganbara alternatibo hori dagoena, gure irratiekin harreman handiak dituzten, ez dakit argi izan naizen. Baina esan dudana, hori da. Orduan hitza emaiten duzularik, ba aniztasuna bila juterakoan, ba Donapaleuko herrian bezala, Donapaleuko herrian aldaketak izan ziren herriko etxean eta hor hartu zutena zen abertzale eta beste herritar batzuen arteko batuketa batek, beraz, alkatea erdalduna da, baina alkateari eskatu diot, herriko plenoak jarraitzen ditut eta, zinegotzi batekin egitea euskaraz bilduma eta ez du arazorik ikusten, baina aldiz, gai batzuk ba alkateak du hitz egin behar orduan alkateari, hola delakotz ere, egiten dizkiot elkarrizketak eta frantsesez dira. Gero hori da [...] saiatzen dugu euskaldun bat bada, ba euskaldun batekin egitea, baina esaten dudana aurreko adibidea hartuta da beti, mamiaren aldetik ere jun behar gara gauza baten bila, baldin badugu bat euskaraz, ez badugu beste munduko gauzarik, kontatzen ongi da, bai, euskara entzun dugu, euskaraz da, baina informatzeko gaude hor.

#### **15. Esango zenuke aldaketarik dagoela aurreikusita hizkuntza arloan edo ba ahal dituzue helburu batzuk etorkizunari begira hizkuntzaren arloan?**

Ez ditugu helburu edo gauza finkorik hitz eginak. Gero, ikusten dugu errealitatea nola den, euskaldunekiko ere, geroz eta zailagoa dela, baina erronka hori da. Gero, ez dugu erronken artean gauza finkaturik, baina hori, euskaldunak gutxiago baldin badira behintzat gutxienez kazetari bezala, animatzaile bezala, ez hizkuntza horiek baliatzea. Hori nire ikuspuntua. Nahi dut esan, gu euskaraz aritzea beti eta antenaz gain ere, esaten dutana askotan, jendeari ere, inportantea dauku, zenta Irulegiko Irratia, da irrati bakarra hemen, baina inportantea da parean dugunari erakustea “*Eh! Euskal Herrian gaude, hizkuntza bat daukagu eta gure hizkuntza euskara da*”. Ez da deseroso jartzeko bestea, baina hala da.

#### **16. Zeintzuk uste dituzu direla oztopo nagusiak?**

Ba baikor egongo gara, baina gertatu dena iparralde mailan da ikusten dudala da generazio batek salto egin duela. Badugu adin bateko jendek euskara badakiena, nahiz eta ez duen transmisioa egin, daude generazio hori, dituztena gaur egun 40 urtetik gorakoak euskara etzutenak ikasi, gurasoak ez dietenak transmisioa egin, gurasoek badakite baina ez diote transmisiorik egin, beraz, horiek direla laster izango direnak aktore lurralde honetan eta haiek izango ditugula interlokutore, baina pertsona horiek damutuz eta kontzientziatuz pixka batekin haien umeei euskara irakasten ari dira, beraz, bada hutsune bat baina etorkizunean euskara berriz piztu edo aurrera jungo dela. Beraz hori, eta beti euskaldunen atzean jutea, ez bada euskaldunik ba saiatzea eta gu euskaraz aritzea beti.

#### **17. Etorkizunari begira zein da aurreikuspena euskarazko irratigintzaren eremuan ipar euskal herrian?**

Hor jarraituko dugula euskaraz hitz egiten. Gero, kazetaritzan eta elkarrizketa arloan ba ikusi beharko. Frantsesa hein batera pasatzen hasten bada ba ziur aski hasi beharko gara, ba orain esaten bada kazteriak euskaraz nahi ditugu, beraz bihurtik aurrera itzulpena gehituko dugu automatikoki. Hori izaten ahal da beste alternatiba bat.

#### **18. Finantzabideari dagokionez zein da Irulegiko Irratiako egoera ekonomikoa eta nola ikusten duzu etorkizuneko panorama?**

*Irulegiko Irratiak* aurtun 40 urte betetzen ditu eta ibilbidea ikusita ba izan ditu gora-behera batzuk baina, oro har, ongi gaudela esango nuke. Gero hori da, bai, diru parte handi bat estatutik heldu da, beraz, estatuak ba... horrekin arazoak izaten ahal dira baina guk arazoak baldin baditugu izango dira beste 1000 irrati izango ditzutenak, beraz, zaila ikusten dugu. Gero, guk *Irulegiko Irratian* egiten dugu kanpaina etxez-etxe. Herriko gazteak juten dira dirua eskatzen, hori sartze inportantea da. Hor ere gora-beherak

daude eta hor bai, zaila. Zaila zenta herri batzutan jendearegana juten bazara dirua ematen dizute baina ez bazara juten ez dizute bidaltzen dirua, orduan kanpainarekin, baina *Xiberoko Botzan* egon naizenez eta ondo ezagutzen dudanez, hori da buruhauste handi bat, kanpainaren kudeaketa hori, baina inportanta *Irulegiko Irratian* bezala. Ez dakit zenbat biltzen den baina bastante biltzen da eta hori bai, erronka zaila eta inprotantea. Gero, ekonomiki badaude beste ardatz batzuk hartzeko baina ez gaudena larrei ohituak edo eta gero hori da, kanpainarena, beste irratiek ez dute, adibidez *Gure Irratiak* eta *Antxeta Irratiak* baina kanpainaren lotura horrek ere badu menpekotasun bat entzulearekiko, esango nuke. Nahiz eta jende batzuk 20 euro eman ba dauka indarraz gehi 20, gehi 20, gehi 20 ba asko egiten duelako bukaeran, baina ez dakit nola esan. Ni bastante hotza naizelakotz, baina hemen *Irulegiko Irratian* jotzen du goizeko 8.00tatik gauzeko 19.00ak arte gelditu gabe. Jendeak deitzen du edozein gauzentzat ta nik ya egiten bazaut ba emazte batek deitu eta *“bai ari naiz bilatzen Kanaldude-n telefono zenbakia”* eta nik *“bai, ba juten zara internetera eta aurkituko duzu hor zenbakia”* eta nire lankideak entzunzun hori esaten eta kriston bronka eman zidan, *“Hori eskatzen badizu da hor gaudelakotz, ezekilakotz larrei nola egin eta zuri ez zaizu deus kostatzen, ordenagailu aurrean zaude ikusten duzu eta...”* eta gero hori da, generazio aldaketa, ibiltzeko ohitura aldaketak...

### **19. Ze desberdintasun nabarmen ikusten dugu generazio bat eta bestearen artean?**

Adibide tonto bat emango dut, baina paperarena. Niri ez zait gustatzen inprimatzea. Nahi dut esan, ordenagailuan idatzia badugu ez dugu inprimatuko ba ordenagailuaren egin ahal dugu, ba generazio zaharrekoek dena inprimatzen dute eta gazteek ez dute ezer inprimatzen. Tontokeri bat da ziur aski, baina detaile bat da. Eztakit, gero zaharrak hemen, ba eman dute haien indar guziak, beraz, indar eta dinamika aldetik ba hor desberdintasunak badaude. Lan egiteko moduan ez dakit aldatzen diren, zaharrak ere ari dira teknologia berri horiek, sare sozial, gauzak... Horiek denak sartuta daude pixkat. Eta gero, hori da ere galdera bat etorkizunerako nik askotan pausatzen dudana, sare sozialetan sartu behar gara edo ez? Ea behar ditugun sare sozialak.

### **20. Iritzi desberdinak daude belaunaldi desberdinen artean?**

Ez, ez nik botatzen dudan galdera bat da askotan. Sare sozial bezala, amorrua ematen didana da askotan jartzen duzu gai interesgarri bat eta inork ez dio kasurik egiten eta gero jartzen dugu paisaje baten argazkia, *“Beitu ze eguraldi politakin esnatzen garen Baxe-Nafarroan”* eta hor daukazu 100 “like” eta horrek amorrua ematen dit niri.

**21. Finantzazioara itzuliz esan didazu finantza iturririk handiena dela estatutik jasotzen duzuen laguntza eta ze beste laguntza edo diru sarrera mota dituzue?**

Ba estatutik hori, *F.S.E.R* deitzen dena funtsean; gero, daukagu kanpaina, etxez-etxe juten garena; *Euskal Irratiekin* daukagun partaidetza, *Euskal Erakunde Publikoak* ematen du diru kopuru bat *Euskal Irratiei* eta *Euskal Irrati* hoietatik diru bat zatitzen da irratika eta hor ere garaian zen irratikoek ekarritakoaren arabera *Euskal Irratikoei*. Esan nahi dut, ba guk *Irulegiko Irratian* kasuaren bezala asko ekartzen diegu *Euskal Irratiei* ze kalkuluak egiten baitut, esan bezala, aste bukakerak daukagu, larunbatetan langile bat, igandeetan beste langile bat, kazetari bat dago bat *Euskal Irratietan* ari dena lanean, "*On Daiziela*" saioa egun guziz antolatzen duguna, beraz, asko eskeintzen diogu, beraz, hortik ere dirua sartzen da. Gero, herriko etxeak, publizitateak eta *Irulegiko Irratiaren* berezitasuna beste irratiei konparatuz da publizitate asko dagoela eta soinu deiak ere.

**22. Zer dira soinu deiak?**

Iragarkiak baina desberdintasuna egiten dugu, iragarkiak enpresena eta gero ekitaldien berri, ba "*eztaikit non antolatzen dugu bertso afaria eta...*". Hoiiek asko daude *Irulegiko Irratian*, eta hor ere da 40 urteko lana eta ibilmoldea baina hurbiltasun hori ere jendearekiko, lotura hori, eta lortu izan duna mantentzen, baina geroztik galtzen hasi dena. Hor ohartzen hasi dira, adibidez, gazteak lehen herriko jaientzat etortzen ziren egiten soinu dei bat eta gaur egun eztira kasik hurbiltzen eta esateute "*Bai, sare sozialekin egin dezagun*" eta hori diru sartze inportante bat da ere. Harreman hori gordetzea inportantea da.

**23. Zein uste duzu dela erronkarik handiena orduan arlo ekonomikoan?**

Ba etxez-etxe kanpainaren ziurtatze eta alternatiba bat aurkitzea etxez-etxeko kanpaina egin gabe ber dirua lortzea baina hori, uau! Oso zaila da. Irulegin, edo hemen eskualdean ere, diru aldetik edo juten ahal zara enpresen ikusten, baina hemengo enpresa guztiak txikiak dira, ez dago enpresa handi-handirik hemen.

**24. Inoiz hitz egin duzue alternatiba posible batetaz?**

Ez, orai artekoa martxan da, beraz, ondo dabilena ez dugu gogoetarik eraman behar eta esan bezela alternatiba bat aurkitzen ahal da, baina etxez-etxe kanpaina biltzen den diruaren alternatiba aurkitzen bada ba... Hori da hor aipatzen ditugun... zenta azken urtetan estable dira gauza guziak estatutko

sratzeak, *Euskal Irratiak* sartzeak, kanpainako sartzean.... nahi dut esan, orekatua dago, egitura eta lurralde batean gaude, beraz, holan da bueno ba hortan segi.

## **25. Noraino zabaltzen da Irulegiko Irratia?**

Baxe Nafarroan, Lapurdi barnekaldea eta hortxe.

## **26. Zuberoako parte batean eta Landesetako hegoaldean entzun daiteke?**

Bai, bai, Zuberoan pixkat eta Landesetan eta Biarnon. Biarnon hor justu. Gero zabaltzen gara. Nahi dut esan, internet sortu dugunetik jendeak ere internetetik entzuten gaitu. Gero gauza da, ez gara, bueno... web gunea[rekin] ez gaudenak pozik, beraz, etorkizuneko erronkak hoiiek dira, teknologia berri hoiiek nola hobetu, komunikazioa nola hobetu... hortan ari gara pentsatzen. Gure ikusitate hori ere pixkat hobetzea, zenta dauakgun eztabaida gero barruan, ditugun barne eztabaidak, gauza da hori, da *Irulegiko Irratian* gara pixkat jendeak ezagutzen... gara mubleak bezala, zure etxeko gauzak bezala, hor daude eta hor daudela eta *Irulegiko Irratia* hola da. Baxe-Nafarroan gaude eta hor gaude eta ezer eskatu gabe ba hor egongo gara eta, aldiz, beste irrati batzuk hartzeko *France Bleu* ganera ez gara konkurrenteak, desberdinak, baina haiek daukaten indarra da hori, komunikazioan. Juten garela ekitaldi batzutan, *Garusseko Feria*, *Garusseko Feria* guk aipatzen dugu aurretik, zuzeneko bat eskeintzen dugu, ondotik pil lana egiten, ba gure lana hori da baina ez dugu komunikatzen haiekin eta zu juten zarelarik Garrusera ba denetan ikusten duzu *France Bleu*-[re]n bandrerolak, eta orduan amorru pixkat ematen dizu, hortan dugu gure lantzeko eta erronkarik handiena. Gero hori da, komunikazioan eztabaida handiak eta sakonak ari gara hortan baina behintzat pixkat gehiago ikusi irratian ere, pixkat ba hori, irratia hortan ere berriro freskatu dugu barrua, kanpoa freskatu behar dugu gure ikuskitasun hori azkartu baina gero hori da, entzuleek badakite non dagoen *Irulegiko Irratia* eta bakite zein den gure frekuentzia. Gero, entzule berriak biltzeko, baina entzule berriak gure kasuan ezta hainbeste biztanlego, erdalduak kostaldean daudelakotz, eztakit, eta gero, garapenarentzat esaten nizun internet daukagu hor, hobetzeko daukagu, baina interneten bidez ere entzuten ahal gaituzte eta hor behar da... ez dugu aski lantzen baina balio du lantzea ere, ikustea ere nondik datozen entzuleak eta beste, eta gero hor dago numerikoa, pasten dela irratia numerikora eta numerikora pasatuz badauka on eta txarrik zenta hor sortuko den barnekaldeko eremua izango da Xiberua eta Baxe-Nafarroa batera. Esan nahi du, ondo da guretzat Xiberotar batek *Irulegiko Irratia* entzuten ahal duelakotz, baina Baxenafarritar batek entzuten ahalko du ere *Xiberoko Botza* ezik Xiberuan dagoela ere "*Mendililia [Irratia]*", frantsesez den hurbileko irratia, eta da Xiberoko irrati entzunena, kalitatean eskasak dira baina eskeintzen duten zerbitzua da hurbileko informazioa

frantsesez, ba jendeak entzuten du eta euskaldun askok entzuten dute ere *Mendililia*. Hori orduan izaten ahalko zen beldur bat. Gero ez dut pentsatzen *Mendililia* garatzeko eta ikuspegian bizi osorik daukan. *Mendililia* bat jartzen bazen numerizazio horrekin, ba erabakitzen badu, “*Bihar sartzen dugu antena bat Donibane Garazin*” ba hor sartzen dira konkurrentzia zuzenean eta entzulego asko hartuko digute, baina horrek ona dauka, konkurrentziarekin ere, nahi du esan, zu ere behar zarela hobetu eta behar zarela lanean aritu, baina hori, esperientzia ikusiz *Xiberoko Botzan* ere egindakoa, *Mendiliak* dauka aurrerapen bat, ba hori, hizkuntzarekiko dena eta jendeak bezala, jendeak ba esaten du, generazio hoiek zaharrak euskara dakitenak, bigarren generazio hori, ba hoiek euskara utzi dutenak ba nahiago dute frantsesa entzutea eta frantsesa gelditzea eta orduan ba...zaila. Baina bueno, heldu den teknologia bat da, sartu behar gara eta aurrera egin behar dugu.

## **27. Komentatu didazunataz aparte baduzue handitzeko/zabaltzeko proiekturik etorkizunerako?**

[...] Antena eremuak eta, gure ingurian zabaltzea, hori C.S.A.-arekin daukagun negoziaketak dira eta gu garenez hurbileko irratia, Baxe-Nafarroako irratia garenez, eremua hartua da. *Amikuzeko Irratian* gertatzen ahal da eta nik aipatua diet *Amikuzeko Irratia* uhinen bidez pixkat zabaltzea, zenta *Amikuzeko Irratiko* uhinak, hango uhinak, oso motzak dira eta entzuten dira bakarrik Amikuzen. Ba pixkat zabaltzea eta gero da hori, sortu zen *Amikuzeko Irratia*, Amikuzen ere hurbiltasun bat izateko, eta, esan behar da, Amikuze da Baxe-Nafarroako lehen hiria biztanlegoakin, gero da Baigorri eta gero Garazi baina Donapaleun eta Amikuzen bada, 10.000 biztanle daude ere, beraz, [...] baina izango zen hangoa azkartu ere eta *Irulegiko Irratia* azkartuz, bi irratia azkarrekin, ba eremua azkartzea. Gerozta... nik hola botatzen ahal dizut ere, baina bai *Amikuzeko Irratia* sortu den bezala balioko zuen Hazparnen ere sortzea. Hazparne esaten dut Hazparne hiri nagusia delakotz baina hortan daude, mugan, Hazparne dago mugan, Baxe-Nafarroa eta Lapurdi artean, orduan hor dago Arberoa eskualdea, Aiherra, Izturitze, Donamartiri gero daude ere Lekorne, Makea eta gune hortan, zona zona hortan merezi du ere hurbileko irratia baten sortzea. Egin daitekeena baina hori da beste [kontu bat].

## **28. Horren gainean hitz egin duzue edo hori zure iritzi bat da?**

Hitz egin... aipatuak izanak, izan dira, baina ez, ez, ez da landua. Nik eremua hola, Baxe-Nafarroa nahi dut esan hartzen badugu konpasa, ulertzen duzu zer den konpasa? Borobilak egiteko makil hori? Ba *Irulegiko Irratia*, Garazin dagoena, beraz horrek hartzen du Garazi, Ortaize, Irauldiko eskualde bat eta gero daukazu Amikuzekoak. Amikuzek hartzen du Bidaxune, Amikuze, Donaizti edo Ortzibarreko eskualdea eta gero Hazparneko eskualde horrek beste bat, hola egiten du lurralde guzian eta irratia

indarra hurbiltasuna da. Amikuzeko irratia sortzeko beharra aipatzen zelarik bezala, nahi dut esan, *Irulegiko Irratian* diran [...] Nahi dut esan, Garazi-Baigorri dinamika azkarra dago, beraz, hemen zelararik kazetari ba hemengoekin zaude batez ere haremanetan. Esaten den bezala, kazetaritzan informazioa nondik biltzen da? Ba esaten dut, bai, beste hedabideek kontatzen dutenetik, [e-]mailetan jasotzen duzun informaziotik edo sare sozialetan ikusten zuna, baina informazioa biltzen da ere kalean, ba juten zelararik tabernana lana eta gero trago bat hartzen edo bazkaltzen juten zelararik, eta tipo bat ikusten eta lau galdera egiten eta informazioa hola biltzen da ere, eta informazio interesgarriena ere. Interesgarriena, nahi dut esan, gauzetatik ateratzen zelararik ba jendearekin hitz eginez eta trukatur eta, “Entzun dut hau”, “A bai? Itxoin, aztertuko dut” eta hori da, da elkar trukatur eta informazioa bilduz, beraz, hemen mamia badago, beraz, nahi dut esan, ni ordainduta nau, nik daukat egunean elkarrizketa bat egiteko, beraz, elkarrizketa hori hemen lortu badut ez naiz jungo bilatzen zer gertatzen den Amikuzen, zenta hemen hemen egindakoa Garazin daukat, tipoa igual irratira etorriko da, edota 5 minutura daukat. Aldiz, Amikuzera joateko ordu erdi, elkarrizketa egin, han berriro etorri, beste ordu erdi eta ya ordu bat galdu dut bidian, horregatik hurbiltasun horrek inportantzia dauka, Amikuzen bezala. Hola, ba informazioa, tokiko gauzak, tokiko desberdintasunak... ba lortzen direlakotz eta esaten dudarik, Hazparnera joateko hemendik ordu erdi bat behar duzu. Orduan, han inguruan bazan han dinamismoa badago. Beraz, hurbiltasun horrek, bai. Gero da hori, antena mantentzeko gauza, ba hurbiltasuna sortzen da, baina gero antena mantentzeko eta hori beste gauza bat, horregatik guk egiten duguna, Baxe-Nafarroako irratien lotura hori eta horrek gauzak ekartzen ditu.

## **29. Eta esango zenuke gaur egun zaila dela lankideak aurkitzea?**

Aurkitzea erraxagoa, gelditzea konplikatuagoa. Ez, nahi dut esan, depenitzen du eta nik esaten dudana, *Irulegiko Irratian* ere eztena gehio egiten, baina ni *Xiberoko Botzan* hartu ninduten udako langile bezala eta nik esaten dut udako langileen lanpostuen edo, aurrekontu baten ukaitea, inportantzia daukala, zenta 16 urtetan gazteak berdina zaie, haiek nahi dutena da lan pixkat egin, ez zailegia, zenta baduzu aukera taberna batian ibili, edo irratian goxoki, edo arto kapatzen ibili, edo beste, ba irratikoa plan ona da. Gainera, ekipa goxoa da, euskal giroan gauza, beraz, ez, irratiko lana polita da. Besteak ere politikak dira, ez dut kritikatzeko, baina badu abantaila ta irratiko gazteak lortzen bagenituen, hola, jende desberdina, gero bakigu jendea, nola pastu den udaran, badakigu peril batzuk ikusten zenta irratian ez dago inor kazetari ikasketak dituztenik, denak daukagu ibilbide desberdinak, baina denak daukagu ere kulturari eta lotura. Nahi dut esan, *Irulegiko Irratia* hartzen badugu ba Mattin Lerissa kantaria da, Maria Ágnes antzerkia egiten du, *Xiberoko Botza* hartzen badugu Beñat Larrory, bera kantaria da, nik, enaiz



kantari ez antzezleri baina egin ditut bi maskarada, egin ditut bi pastoral, nahi dut esan, hemen Estitxu eta Antton libertimenduan ari dira ere, nahi dut esan badaukagu hori, irratia espektakulo bat da, azkenean hori esaten diote ere. Antzezlanean gabiltza, da joku bat beste, orduan, ba lotura hori daukan jendeak ere asko hurbiltzen da irratira, bertsolariak, plaza gizon edo plaza emazte, perfil hori dutenak, beraz, hori, esaten dut udako gauzaz da *Xiberoko Botzaren* kasuan, ni *Xiberoko Botzan* hartu zidaten baina udako langile bezala, Joannes Etxebarria *Xiberoko Botzan* hartua izan zan baina udako langile bezala ere ibili zen, Julen Guiresse, gaur egun *Xiberoko Botzan* dabilena, udako langile moduan ere hartua izan zen eta horrek erretzen du ba zure taldea osatzea, azkartzeko eta ez zerotik hastea jende batzuekin. Beraz, jendea badau, gero hori da, ba betiko gauza, lana da kudeaketa eta ba gauza hoietatik zaila, beraz, eta esaten dudan bezala, *Euskal Irratiak* eta *Irulegiko Irratia* da tren bat eztena gelditzen, ezin dugu hartu denborarik gelditzeko, orduan den pausa bakarra da gelditzen delarik esaten du esaten du *“Hendaiatik Parisera doan tren, Baiona. Minutu bateko geldialdia, Baiona”* eta hor ez duzu ezer egiteko denborarik. Beraz, [...] trenera besteak montatzen diren bitartean eta berdina da irratian. Beraz, erritmoa hor dagoela eta irratian on izateko autodidaktak garenez eta formakuntza planak hor badaude, batzuk, baina egoera ikusiz ere ez dira terribleak Covidakin eta beste, baina bost urte behar dira irratigintzan eroso senditzeko, beraz, luzea da auto-formakuntza hori, barrukoa.

### **30. Eta kolaboratzaileak zer? Erraza edo zaila?**

Berdin. Gu elkarte irratia gara eta nik askotan azpimarra zutana, baina irratia ere kolaboratzaileek, laguntzaileak egiten dute. Gu hor gaude, bai, [...] gu hor gaude botoiak zapatu, animazioa eiteko baina mamia eta hori jendeak digu ekartzen, beraz, ez da beti errez aurkitzea jende interesgarria gauza partekatzeke dituna, denbora hartzea berarekin, lotura egitea, gero jende guzi hoiak bolondreski ari dira, beraz behar dira zaindu pixkat, baina guk ere batzutan gure gora-behera edo arazoak edo, ez gaude beti prest haiei behar den atenzioa emateko, beraz, bai, zailtasunak ere hor badaude. Momentuz iristen gara baina... Jendeak batzutan esaten du, *“Bai, bai”* eta ohartzen dira bai, lana ere dela kolaboratzea edo eta jendeak ere antenan pasaten da, hor zaude, beraz, ez duzu zer nahi kontatuko, beraz, balio du mami pixkat jartzea eta orduan...

### **31. Esango didazu zein den langileen perfila?**

Langile guzien aurkezpena? Ba Maria Agnes, bera daukagu langile zaharrena, berak ere kontatzen digu bere anekdotak. Kontatzen digu nola hasi zen praktikekin irratian, lehen lana dula eta ez duela sekulan atera, hara, gora-behera asko ukanda baina, nahi dut esan, iduritzen zait, ezta hor, baina hor ekipa

pixkat freskatu da, aldaketa asko izan dira, zaila izan da irratian zenta jun dira hiru mitiko Jojo, Bernadette, Pantzo, Pantxika ere bazen hogeitun urte hemen zela junda eta aldaketa handiak egon dira *Irulegiko Irratian*. Beraz, Jone eta Maria Agnes, horiek dira zaharrenak, beraz, haientzat pixkat ba zaila. Zaila zenta jun direnak ere aspertuak ziren pixkat, beraz, haiek ere desmotibazio guztia jarrita zuten, beraz, horiek haien atzetik eta... Garai konplikatuak izan da eta irratietan hori gertatu da, generazio aldaketa handiak izan direla, *Xiberoko Botzan* bezala. *Xiberoko Botzako* zaharrenak 35 urte ditu, beraz, pentsatu. Orduan aldaketa horiek izana ba Maria Agnes eta iruditzen zait ba ekipo guztia berriro azkartu garelako, laneko elkar laguntza, elkar ongi pastea eta gauzak, baditugula bazkariak, egin ditugu batera, asteazken guztiz dugu errituala bazkaria prestatzeko eta norberak zozer prestatzeko, eguberriz antolatu dugu lagun izkutuaren jokua eta gero gure artean eta barre eiteko eta hola, aitzaki guziak ongi dira ere, gure artean pixkat gure harremanak azkartzeko eta giro goxo bat izateko. Beraz hori, Maria Agnes aspalditik hor dagoena eta gelditzen zaiona, uste dut, 10 bat urte oraindik, beraz, pixkat zail edo aldaketa asko bai aldaketa asko asko zahar arazoak ere ukan dituna, beraz, zaila asko hastapenean edo, aldaketa asko baina ondo. Nik ikusten dut hola gustora dagona, esperientzia daukana, jakintza dauka hor ere ongi da... ongi da holako pertsonak ukaiteak zenta gu ere batzutan zalantzak edo eztaigularik ba holakoen erreferente dira, bakite eta nola tratatu gai batzuk, batez ere hildakoak daudelarik edota gai ez hain erosoak eta hori. Gero, daukagu Jone, bera ere hor azken, ez dakit zenbat urte hemen dagoen, bera nik esaten dut dela gure liburutegi musikala. Musikalki dauka jakintza bat... edozein talde, edozein kantaldi, berari eskatu behar da eta bera ere gustora ba bere karakterrekin, denak bezala. Gero hori, zailagoa da pixkat, agian, esperientzia eta urteak daukenekin ba haiei bakitelako gauzak eta gauza batzuek gehio ez direlako hamen esaten edo kudeatzeko eta hori, hori esaten dut kudeatzeko nik dudalako kudeazioa. Ikasketen aldetik ere, ez dakit zer duten ikasketa bezala, Maria Agnesek justu egin zun formakuntza bat Parisen ere, I.N.A-m – *Institut National de l'Audiovisuel* –Irratigintzari buruz, *Xiberoko Botzan* Beñat Larrory ere hara bidali genuen eta oso aberasgarria den formakuntza bat. Gero, ordenan esango dut baina gero ni naiz zaharrena hemen, beraz, nik 35 urte eta zaharrena gero, nik 10 urteko esperientzia, hala ere irratian eta ibilbide ezberdinetan ibiliz baina ez irratiko ibilbidetik gero Mattin Lerrisa bera... A! Eta perfiletan hori, Maria Agnes eta Jone animatzaile, kazetaritza ezaiena batere gustatzen eta berri aurkezlegoa gutxiago, nire kasuan ni animazioan ere, kazetaritza pixkat baina berri aurkezlegoa, ez. Nik daukadan arazoa da disleksikoa naiela eta hori polita da ere, jendea daukana dislexia eta irratian ari dena. Hori esaten dut ez dakidalakotz irakurtzen. Gero, Mattin Lerrisa, bera hemengo gazte bat, irratiaz betidanik maitemindua, praktikak egin beti saiatu irratian sartzea eta lortu du, bere ametsa zen eta hemen, eta gustora, bera ere animazioan, beste arazo bat dauka berak da erdi

itsua dela eta dauka euskarako lizentzia bat filologian aterata, gazteena da ere, 21 urte. Eta gero ditugu azken hiruak hartu ditugunak aurten, Estitxu, Amikuzeko irratian ari dena, berak ez dauka beste munduko ikasketarik, lan ezberdinetan izan dela beti eta hartu genuen hasieran kanpaina kudeatzeko eta gero aldaketekin ni Amikuzen nengoenez, berak hartu zuen nire Amikuzeko postua. Gero daukagu azken biak, Antton Castoreo, berak dauka master bat historian eta kazetaritzaz interesatua ba hona etorri da, ba kazetari lanetan ibiltzera, bera ere da Aiherrakoa, barnekaldekoa, Baxenafarrtarra eta gero Inhar Iraizotz, hau azkena, honek ere dauka lizentzia euskal filologian, bera Iruñarra baina azken urtetan hemen bizi dena Izturitzen eta bera kazetaritzan hartua izan da, berak ez dauka hemengo euskalkia baina iruditzen zitzaigun porfil interesantea zukala eta kuriositate hori azkartzeko eta hori, Estitxu ere Amikuztarra da, Maria Agnes Garaztarra eta Jone Amikuztarra eta Mattin Hergaraikoa, ezik ni, Xiberotarra.

### **32. Guztiek daukazue lanaldi osoa?**

Bai.

### **33. Esan didazu orduan talde nahiko anitza dela eta nik galdera bat bota nahi dizut, ze kolektibo edo eragile sozialen presentzia handitu nahiko zenukete?**

Nahiko nuna zen laguntzaile gehio. Nahi dut esan, jende berria gai desberdinak jorratzeko, hori. Irratiak aberastasun hori dauka, eta libreak garelara eta edozein gaietaz hitz egiteko aukera eta sakontzeko aukera, da nahiz eta musika pasteko bada, baina gazte gehio, laguntzaile gehio. Baina gero [...] eta horiek uste dut denek daukatela. Gero, guk baditugu ere gure tendentziak eta gure atseginagoak eta nahi dut esan, egiten dularik urte hasierako bilerak, irailean hasten gara sasoiak, beraz, irailean esaten dugu heldu den urteko nola ikusten dugun gauzak. Beraz, gure afinitatearen arabera dira, proporsamen batzuk ateratzen dira eta ez zaigu interesatzen adibidez ni Donapaleun nengolarik suhiltzaileekin egiten nituen kronikak. Niri suhiltzaileak gustatzen zaizkit, batzuei ez zaie gustatzen, baina hori, interesatzen zaizunari lotu eta gauza da zuri interesatzen bazaizu eta zure... pasionatua ere bada, gehienetan pasionatua den jendea eta hori irratian entzuten duzu errexi entzuten baduzu norbait gogo gabe ba senditzen duzu baina zeuk ere gogo galtzen duzu gaiaz.

### **34. Eta orain mezu eta helburuen gainean galdeginez zeintzuk dira helburuak datozen urteei begira?**

Baxenafartarrak informatzen segitzea, euskaraz bizitzen segitzea eta uste dut nahikoa dela. Orai arteko lana aurrera eramatea.

### **35. Eta epe luzera?**

Epe luzera beti hor egote. Ondo dagona ez dago aldatzerik, hobetu igual bai, baina...

### **36. Zeintzuk dira Irulegiko Irratian azaltzen diren gai ohikoenak?**

Laborantza, ekitaldiak, kultura eta gero gure ibiltzeko modua hori da, *Euskal Irratietan* gaudenez, dago erredakzio talde bat. Erredakzio taldeak hartzen ditu gai potoloak direnak, nahizta kulturalak ere batzuk potoloak baina politiko edo ekonomiko... gai hoiek *Euskal Irratiak* pasatzen ditu, beraz, ez errepikatzeke entzulegoari, tokiko tartek eta *Irulegiko Irratiaren* tartek direlarik, ez ditugu bortxaz pasten. Nahi dut esan, gai batzuk pisua dukatenak ba hoiek *Euskal Irratietan* sartzen dira ba interesgarriago delakotz ere hola Iparralde guzian entzuten dena, gai eta aipaldi bada, eta gero ba... Gero esaten dudana, da beti, nik esaten dut Baxe-Nafarroan pasten den edozein gaiek *Euskal Irratietako* balioa dula, da gero nola saltzen duzun zure gaia, zure elkarrizketa. Hori da kazetariaren lana, baina atzo, Donapaleuko kontseiluan nengoen, plenoan, eta elkarrizketa egin dut, pastu da Donapaleuko Irratian, *Amikuzeko Irratian*, baina hor kazetaria etorri zait eta esan, "*Bai, badute gauza batzuk interesgarriak*" eta gero ikusi nola lantzen den baina gogoia baduzu, ba, erredaktore buruari esan, "*Elkarrizketa hau atera da hau, hau, hau esaten da eta bai, balio du jartzea pixkat aurrean*" edo adibide bezala hor, ari naiz pentsatzen baina... adibidez beitu, esne Danonek Gers eskualdean, Frantzian, zaukan enpresa bat hemengo behi esneen erosten zuna eta transformatzen eta erabaki du hango enpresa bermoldatzea, bakarrik esne begetala sortzeko bermoldatzea, beraz, hango [...] kaketan daude eta hemengo laborari batzuekin gaude harremanetan eta orduan, elkarrizketa horiek *Euskal Irratietara* juten dira. *Euskal Irratietako* tartetan sartzen dira, ba bertako berri sailetan edo programa berezietan, eta hemen sartua denez, ez dugu aipatzen, edo "*Herri Elkargoak salistatu ditu eztaikit zenbat laborantza proiektu*", ba laborantza proiektu hoiek *Euskal Irratietan* aipatuak izan dira, prentsaurrekoa Baionan izan da, baina hoietariko proiektuan %80a Baxe-Nafarroan zen eta horiek azaletik tratatuak izan dira. Hori gero guri da hartzea eta jutea, ba proiektu bakoitzan aurkezpena egiten eta elkarrizketak egiten, ba hori lantzea. Horiek dira irratietan ibiltzeko modu desberdinak, *Xiberoko Botzaren* kasuan haiek da "*errepika*", esaten da irratian beti errepikatzen dela, jendea kejatzen da ere, baina entzuten dugularik hemen *BFM* eta 24 orduzko berri sailen kate hoiek, egun guztietan pasatzen dute ber gauza esaten ere. Beraz, ez dakit argi izan naizen edo ez baina

*Xiberoko Botzan* errepikatzen dute nahi bezain bat haien gaiak. Hemen saiatzen da ez larrei errepikatzea, zenta goizeko 7.30tan pasatzen da berrietan ba, adibidez, “*Donapauleko kontseiluko plenuan ateratako angelua*” eta gero 8.15tan guk ateratzen dugu, “*Bai, gaur pasatu da Donapauleko kontseiluko plenua*”, 9tako berrietan berriro eta gero guk berriro 9.30tan pasten dugu elkarrizketa osorik [...] egiten da bukaeran. Orduan oreka hori aurkitu behar da eta horrek du egiten gaien aldeko... ez zatiketa baina bai partekatzea eta...

### **37. Eta esango zenuke gaien hautaketan nolabait desberdintzen dela *Irulegiko Irratia* Gure Irratitik edo *Xiberoko Botzatik*?**

Bai. Bai, bai. Hori uste dut. Xiberuarekiko daukagu hurbiltasun gehio ingurumena halako dugulakotz. Laborantzako gai pila bat aipatzen dute *Xiberoko Botzan* eta guk ere. Hemen daukagu Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Departamenduko Laborantza Ganbara, bi estruktura nagusienak. Beraz bai, hurbiltasun hori izanki, egitura hoiekin, ba gai inportanteak dira. Xiberuan industria pixkat gehio dago, beraz, gai industrial, ekonomikoki industrialaruntz gehio daukate, beraz, holako gaiak, bai. Gero *Xiberoko Botzan* ba, bai, berdintsu gaude baserri mundu eta inguru horrekiko. Kostaldean daukate haiek egitura guztiak, elkargoko egitura edo hirugarren sektoreko egitura nagusiak han daude. Sindikatuak, adibidez, sindikalismoa edo hoiek *Euskal Irratiek* tratatzen dituzte gehien bat baina kostan daude denak eta mobilizazio guztiak eta gauza guztiak han daude. Gero, gauza da hori, *Xiberoko Botzak* egiten duna eta guk egiten ez duguna egiten dira, nola gai batzuk hurbilarazi Xiberuruntz. Hori ainitz maite dut nola egiten duten. Hori hemen saiatua naiz ere aipatzen ba “*Frantzia gertatzen da ezta zer*”, ba Frantziako gai horrek nola ikutzen ahal duen xiberotar bat eta Xiberuan nola tratatzen ahal den. Ba Frantzia ateratako gaiak ikutuak daude. Baionan atzo... larunbatean zegoen manifa presoan alde. Guk hemen... ezta tratatu, *Euskal Irratietan* aipatua izan da eta beste baina *Irulegiko Irratia* ez dugu gauza berezirik egin. *Xiberoko Botzan* egin dute elkarrizketa bat, xiberotar batekin, manifako deia zabaltzen zun, esplikatzen eta beste nahiz eta *Euskal Irratietan* “*Goiz Berriko*” gonbita eta beste, ba hori adibidez. Hori bezala, guk ere balio zuen hemen egitea ba Baxe-Nafarroan preso izan den batekin oroitarazi edo holako gauza batzuk ez titugunak bortxaz egiten, gai inportantak direnez eta *Euskal Irratietan* aipatuak direnez, ba hori. *Xiberoko Botzak* daukana gehio da hori, da euskalkiarekin dira eta hurbiltasun hori. Euskalkiarekin, beraz, edozein gai aipatzeko, ba saiatu behar dute xiberotar batekin eta edozein gai eta gauza, ba saiatuko dute haien aldetik berriro aipatzen. Ta edozer gauza, ba *Durangoko Azoka*, zuri be ideia bat emateko, baina *Durangoko Azoka* guk aipatu dugu zabaletara *Euskal Irratiaetan* ba sartuak “*Goiz Berri*” batean edo “*On Daiziela*” saio batean edo beste, baina *Xiberoko Botzak Durangoko Azokaz* nahi bazun

ba egingo zuen xiberotar artista batekin elkarrizketa esplikatuz *Durangoko Azokak* ze interes duen, zer den *Durangoko Azoka*, ia lehen urtean zer juten zena, ulertzen? Pedagogikoagoa esango nuke, edo holako zoker.

**38. Eta orduan zein esango zenuke Irulegiko Irratia bidez zabaldu nahi duen mezua edo diskurtsoa?**

Ez dakit. Ez, ez. Esandakoak ildo horretatik euskara eta lurraldea, hurbiltasuna.

**39. Eta bueno ba amaitzeko hau ya da erabat filosofikoa baita, zure ustez zer ekarri dio Irulegiko Irratia Baxe-Nafarroari, Iparraldeari eta oro har Euskal Herriari?**

Uff, asko. Asko. *Irulegiko Irratia* bai euskararekiko deia esango nuke zenta esandakoa generazio guziek baina etxe guzietan nire kasuan bezala gurasoek irratia entzuteko ohitura hartuz ba euskararekiko arrotasun hori apurtu nahiz eta gune batzutan tarnsmismoa apurtu edo beste nahi dut esan esaten den bezala nik ez dakit gurasoek ez didate erakutsi euskara baina amatsi eta aitatzik badakite euskara beraz ba hara juterakoan II entzuten dugu II nahi dut esan BNan markatutako irrati bat da ba Euskal Irratiek ekarri diena da BNko berriginitza eta informazioa eta hori zabaltzea eta jakitea hemen zer gertatzen den eta EH mailan ba, eztakit, eztakit, filosofikoezia.

**40. Mahai gaineratuta etorkizuneko erronkarik?**

Mahaigaineratuta komunikazioa lantzea, nahi dut esan, gure barne komunikazioa, gure aurpegia hobeto erakustea kanpoari. Komunikazio aldetik, nahi dut esan, *France Bleu Irratiari* konparatuko dugu baina gaur egun internet eta gauza guztietan gaudenez, ba elkarrizketa bat egiten dugu eta argazki bat ateratzen dugu. Ba nire estudioan elkarrizketa eitut eta argazkia harzteut, baina ezin. Nire estudioa ez da dekorazioa dela terrible baina nire paretan daukat, hor, kartel bat behi batekin eta gero daukat agenda erraldoi bat gauzak jarrita, ba tipoa jarriko dut horren atzean eta horren atzean hartuko dut argazkiz, ez. Behar dugu gela bat ukan behintzat non dagoen *Irulegiko Irratia* idatzita hor haundiz gauza polit bat eta tipoa hor atzean agertzea argazkiz, holako gauzak. Komunikazioa kanpora juterakoan ere, ba egiten dugularik zuzenezko bat ba gu ez egoteko hor ez mahai batekin eta gure mikrofonoarekin. Igual jartzea hor hiruzpalau banderatxo hoiak non idatzia den *Irulegiko Irratia* eta hoiak aurrean jartzea. Batzutan esaten da, ezta erronkak aipatzen direla, baina erronketan da orain arte bezala Baxe-Nafarroan entzuna dagoen... nahi dut esan, *Irulegiko Irratia* da Baxe-Nafarroan gehienik entzuna den irratia, hizkuntz guziak nahastuta e, frantsesa eta euskaldunak kontutan harturik eta da gehiena entzuna den irratia, hor ez dauka konkurrentziarik. Ba esaten nizuna lehengoa Mendililia bezala agertzen bada ba a!

Baina momentuz gara eta helburua eta gerora etorrita ba hori da, da jarraitzea beti etxe guztietan entzuna izatea eta... entzuna izatea, hori da helburua zenta entzulerik ez badugu ez du balio lanean aritzea.